

**HIRU HIZKUNTZATAN IDAZTEN:
HURBILPEN HOLISTIKO, ANALITIKO ETA
HIZKUNTZA ARTEKOA**

***WRITING IN THREE LANGUAGES:
HOLISTIC, ANALYTIC AND CROSS-LINGUISTIC
PERSPECTIVES***

Author: María Orcasitas Vicandi

Directors: Dr. Jasone Cenoz and Dr. Durk Gorter

Donostia-San Sebastián

2018



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Espainiako Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak finantziatutako doktorego tesia.

Hezkuntza Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak Sailari aurkeztutako doktorego tesia, UPV/EHU.

Hezkuntza, Filosofía eta Antropologia Fakultatea.

Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea Doktorego Programa.

A dissertation funded by the Ministry of Economy, Industry and Competitiveness of Spain.

A dissertation submitted to the Department of Research Methods in Education of the University of the Basque Country, UPV/EHU.

Faculty of Education, Philosophy and Anthropology.

Doctoral program of Education: School, Language and Society.

Acknowledgements

I have been privileged to receive a helping hand from many people in the past four years. With these words, I hope to express my deepest gratitude.

First, I would like to thank my supervisors Dr. Jasone Cenoz and Dr. Durk Gorter for your guidance throughout the process of writing this dissertation. Your feedback challenged me to be rigorous, and your invaluable comments were key in improving this dissertation. It is being a real honor to work with you hand by hand, and I hope to have the opportunity of working close again.

I am also most grateful to my dear friend Dr. Andrea Perales and Dr. Dolly Jesusita Young from Tennessee University Knoxville (UTK). Thank you very much for hosting me during the international stay. You offered me a wider view of what research is while sharing your knowledge and comprehension in everyday conversations. I know I owe you a doctor hat, Andrea.

I would also like to extend my deepest gratitude to my colleagues in Donostia. Specially to my workmates Oihana Leonet and Dr. Karin van der Worp. The many hours we spent together in the office of the research group DREAM and the conversations we held about life and research kept me on track in the decisive times of this PhD project. I would like to thank also Dr. Elizabeth Arocena for her inspiring work and encouraging words in the last stages of this thesis. I could not be more grateful of your company during these 4 years, and I wish you best in your academic career. Hopefully, we have the opportunity of working close again soon.

I am indebted to the Ministry of Economy, Industry and Competitiveness for providing me the opportunity to carry out this PhD project by offering me a

predoctoral contract. Many thanks to the department of Research Methods and Diagnostics in Education, especially to the doctoral program ‘Education: School, Language and Society’, and to the research group DREAM (Donostia Research on Education and Multilingualism) for providing me the opportunity to be part of during these four years. I would also like to express my gratitude to Elena, from HABE, for providing me the books and articles that were so necessary for the writing of this dissertation, and for her endless patience.

Thanks to all the teachers and students who made all of this possible as you allowed me enter in your workplace and classrooms. Thanks for your predisposition and cooperation. Your willingness provided me the opportunity of carrying out this project, and thus you are the true protagonists.

Finally, I want to express my whole-hearted thanks to those closest to me. To my family, Begoña, Jose Ramón, Ane and Estibaliz, and to my best friend Iñaki. You have held my back in every adventure I have embarked on, even if you were not very sure about them, including this one. Whatever good comes out from here is a result of your support, faith and unconditional love. I could not have done this without you.

Bihotz-bihotzez zuei guztioi, mila esker.

Abstract

The multilingual context of the Basque Country offers an inestimable opportunity to do research on languages and languages in contact. The challenges that the Basque education system is facing with the introduction of English as a language of instruction, or the increasing number of home languages in the classrooms demands new ways of looking at language instruction and research.

This PhD thesis explores the extent to which traditional tools are suitable for investigating multilingual speakers' practices in the context of the Basque Country, and comprises two empirical studies on two related issues in the study of multilingualism. Study 1, assessment measures in trilingual writing, explores the relationships between Basque, Spanish and English through different accuracy measures. Study 2, crosslinguistic influence in third language writing, investigates the influence of the first and second languages on the third, and the effect of a number of factors is analyzed. In this way, the entire linguistic repertoire of our participants is considered in both studies following the approach Focus on Multilingualism developed by Jasone Cenoz and Durk Gorter (2011, 2014).

The sample group consisted of a total of 133 students from the 4th grade of secondary education studying in two schools of the Basque Country. In order to answer the research questions as fully as possible, we combined quantitative and qualitative approaches. Participants completed a background questionnaire and wrote three compositions, one in each language (Basque, Spanish and English).

Among the most relevant conclusions, we could mention the following. First, the most frequent errors are shared in the three languages, and a number of error-types such as lexical, punctuation or spelling errors are

significantly related across the languages. This finding suggests that different subsystems are connected across the languages, and that they may support each other in their acquisition and development. Second, there is an influence on the part of the first and the second languages on the third, and there are a number of factors such as typology or proficiency in the target language that affect significantly the strength of this influence. These results confirm that all languages in multilinguals' mind are related to each other at different degrees, and that a multilingual approach -Focus on Multilingualism- provides new information when compared to traditional approaches.

Table of content

<i>Acknowledgements</i>	<i>i</i>
<i>Abstract</i>	<i>iii</i>
<i>Table of content</i>	<i>v</i>
<i>List of tables</i>	<i>xi</i>
<i>List of figures</i>	<i>xv</i>
<i>List of abbreviations</i>	<i>xvii</i>
SARRERA	1
Eleaniztasuna	3
Doktorego tesiaren xedea	6
Doktorego tesiaren antolamendua	9
1. KAPITULUA: ELEANIZTASUNAREN EREDU TEORIKOAK	13
1.1. Ereduelebidun eta eleaniztunak	13
1.1.1. Ereduelebidunak	14
1.1.2. Eredueleaniztunak	18
2. KAPITULUA: HIZKUNTZA IDATZIAREN EBALUAZIOA	27
2.1. Hizkuntza idatziaren ebaluazioa	27
2.2. Idazketaren ebaluaziorako neurri holistiko eta analitikoak	28
2.2.1. Neurri holistikoak	31
2.2.2. Neurri analitikoak	33

2.3. Zuzentasunaren ebaluazioa	35
2.4. Erroreen analisia	37
2.4.1. Erroreen definizio eta diagnosia	38
2.4.2. Errore lexikoen taxonomiak	42
3. KAPITULUA: HIZKUNTZEN ARTEKO ELKARRERAGINA	45
3.1. Definizioa	45
3.2. Hizkuntzen arteko elkarreragina hirugarren hizkuntzan	46
3.2.1. Hirugarren hizkuntzaren jabekuntza ereduak	49
3.2.1.1. Sintaxiaren jabekuntza	49
3.2.1.2. Lexikoaren jabekuntza	56
3.3. Hizkuntzen arteko elkarreraginaren mailak	60
3.3.1. Elkarreragin ortografikoak	60
3.3.2. Elkarreragin morfologikoak	63
3.3.3. Elkarreragin lexikoak	67
3.3.4. Elkarreragin sintaktikoak	79
3.3.5. Elkarreragin diskurtsiboak	83
3.3.6. Elkarreragin pragmatikoak	85
3.3.7. Elkarreragin soziolinguistikoak	88
3.4. Hizkuntzen arteko elkarreraginaren faktoreak	93
3.4.1. Hizkuntza gaitasun-maila	93

3.4.2. Hizkuntzen arteko distantzia tipologikoa	100
3.4.3. Bigarren hizkuntzaren estatusa	105
4. KAPITULUA: ALDERDI ENPIRIKOA	111
4.1. Sarrera	113
4.2. Ikerketaren testuingurua	114
4.3. Landa-lana	123
4.3.1. Helburuak eta ikerketa galderak	124
4.3.2. Lagina	125
4.3.3. Neur-tresnak	125
4.3.4. Prozedura	128
CHAPTER 5: THE RESULTS	139
5. 1. STUDY 1: Assessment measures in trilingual writing	139
5.1.1. The distribution of the errors in Spanish, Basque and English	142
5.1.1.1. Spanish error-analysis	143
5.1.1.2. Basque error-analysis	144
5.1.1.3. English error-analysis	149
5.1.2. Relationship between Spanish, Basque and English analytic accuracy measures	153
5.1.3. Relationship between Spanish, Basque and English holistic scores	155
5.1.4. Relationship between analytic and holistic accuracy measures in Spanish, Basque and English	159

5.1.5. Relationship between Spanish, Basque and English errors per word (Err/W) ratios	164
5.1.6. Relationship between the errors per word (Err/W) ratios and holistic scores in Spanish, Basque and English	167
5.2. STUDY 2: Crosslinguistic influence in third language writing	169
5.2.1. General overview of the study	171
5.2.2. First language in CLI	178
5.2.3. Proficiency in target and source languages	185
5.2.4. Crosslinguistic influence and multilingual writing strategies	197
CHAPTER 6: DISCUSSION AND CONCLUSIONS	219
6.1. Assessment measures in trilingual writing	222
6.2. Crosslinguistic influence in third language writing	237
6.3. General conclusion	275
6.4. Limitations and future directions	280
REFERENCES	285
RESUMEN	327

List of tables

Table 2.1.	Characteristics of holistic and analytic assessment measures	p.30
Table 4.1.	Characteristics of the instruments	p.126
Table 4.2.	Differences between the ESL Profile develop by Polio et al. (1981) and the revised rubric proposed by Polio (2013)	p.129
Table 4.3.	Content, Organization, Language Use, Vocabulary and Mechanics descriptors	p.130
Table 4.4.	Classification of CLI based on quantitative analysis	p.135
Table 4.5.	Crosslinguistic influence and the multilingual strategies	p.137
Table 5.1.	Correlations between Spanish, Basque and English accuracy measures	p.154
Table 5.2.	Spanish, Basque and English holistic evaluation	p.156
Table 5.3.	Correlations between English, Basque and Spanish holistic ratings	p.158
Table 5.4.	Correlations between holistic and accuracy measures in Spanish	p.160
Table 5.5.	Correlations between holistic and accuracy measures in Basque	p.161
Table 5.6.	Correlations between holistic and accuracy measures in English	p.162

Table 5.7.	Average number of words and errors in Spanish, Basque and English compositions	p.165
Table 5.8.	Correlations between errors per word (Err/W) ratios	p.166
Table 5.9.	Correlations between error per word (Err/W) and holistic measures in Spanish, Basque and English compositions	p.167
Table 5.10.	Differences in CLI	p.173
Table 5.11.	Spanish as the source-language of CLI	p.174
Table 5.12.	Basque as the source-language of CLI	p. 175
Table 5.13.	Ambiguous source-language of CLI	p.175
Table 5.14.	Distribution of CLI in nouns	p.176
Table 5.15.	CLI in verbs	p.176
Table 5.16.	CLI in adjectives	p.177
Table 5.17.	Differences between L1 groups in CLI types	p.182
Table 5.18.	Differences between L1 groups in CLI tokens	p.183
Table 5.19.	Proficiency scores in Spanish, Basque and English compositions	p.186
Table 5.20.	English proficiency groups' scores	p.187
Table 5.21.	Differences between English proficiency groups for each of the CLI categories counted as types and tokens.	p.188
Table 5.22.	Basque proficiency groups' scores	p.190

Table 5.23.	Differences between Basque proficiency groups for each of the CLI categories counted as types and tokens.	p.191
Table 5.24.	Spanish proficiency groups' scores	p.193
Table 5.25.	Differences between Spanish proficiency groups for each of the CLI categories counted as types and tokens.	p.194
Table 5.26.	Distribution of non-adapted nouns according to the text type	p.197

List of figures

Figure 1.1.	Multi-Competence	p.18
Figure 1.2.	Writing assessment from the Focus on Multilingualism perspective	p.22
Figure 3.3.	The continuum of lexical crosslinguistic influence	p.68
Figure 3.4.	Implicit linguistic competence and explicit metalinguistic awareness	p.72
Figure 4.1.	Language competence in the Basque Country by territory	p.115
Figure 4.2.	Language competence by area in Navarre	p.117
Figure 4.3.	Evolution of bilingual population in the Basque Country by territory	p.118
Figure 4.4.	Students' enrolment according to language: Basque and Spanish	p.121
Figure 5.1.	Error-type scores in Spanish, Basque and English	p.142
Figure 5.2.	Distribution of errors in Spanish compositions according to the error-type measures	p.143
Figure 5.3.	Percentages of Spanish error-types	p.144
Figure 5.4.	Distribution of errors in Basque compositions according to the error-type measures	p.145
Figure 5.5.	Percentages of Basque error-types	p.148
Figure 5.6.	Distribution of errors in English compositions	p.149

according to the error-type measures

Figure 5.7.	Percentages of English error-types	p.150
Figure 5.8.	Distribution of CLI instances according to frequency	p.173
Figure 5.9.	Basque L1 students' CLI measured as tokens	p.179
Figure 5.10.	Spanish L1 students' CLI measured as types	p.180
Figure 5.11.	Spanish L1 students' CLI measured as tokens	p.180
Figure 5.12.	Bilinguals students' CLI measured as types	p.181
Figure 5.13.	Bilinguals students' CLI measured as tokens	p.181
Figure 5.14.	Distribution of CLI instances according to English proficiency groups	p.187
Figure 5.15.	Distribution of CLI instances according to Basque proficiency groups	p.190
Figure 5.16.	Distribution of CLI instances according to Spanish proficiency groups	p.193

List of abbreviations

CA	Contrastive analysis
CAF	Complexity, Accuracy, Fluency
CEM	Cumulative-Enhancement Model
DMM	Dynamic Model of Multilingualism
EA	Error analysis
ESEP	Euskara Sustatzeko Ekintza Plana/Action Plan for the Promotion of the Basque Language
ESL	English as a Second Language
L1/1H	First language/ Lehen hizkuntza
L2/2H	Second language/Bigarren hizkuntza
L3/3H	Third language/Hirugarren hizkuntza
FL	Foreign language
SL	Source-language/Jatorri hizkuntza
TL	Target-language
TPM	Typological Primacy Model
SLA	Second Language Acquisition
TA	Transfer analysis
TLA	Third Language Acquisition
UPV/EHU	Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea

(University of the Basque Country)

Sarrera

SARRERA

Tesi lan honek testu eleaniztunak aztertzea du xede nagusitzat. Testu hauek, eleaniztasunean ematen diren hizkuntzen arteko harreman eta hiztun eleaniztunen inguruko informazioa ematen digute. Horregatik, sarrera atal honetan, eleaniztasuna zeri deritzogun zehaztuko dugu lehenenik eta behin. Izan ere, definizio honek tesi lan honen diseinuan, datu-bilketan eta emaitzen ulermenean lagundu gaituzte. Bigarren eta hirugarren azpi-ataletan, aldiz, tesi lan honen xedeak eta antolamendua aurkeztuko dugu.

Eleaniztasuna

Eleaniztasuna bai gizarte zein indibiduoetan ematen den fenomeno da (ikus Fishman, 1980). Europar Komisioaren arabera, eleaniztasunaren definizio apropos bat ondorengoa litzateke: ‘the ability of societies, institutions, groups and individuals to engage, on a regular basis, with more than one language in their day-to-day lives’ (European Commission, 2007, 6. orr.).

Gizarte mailako eleaniztasunean erreparatuz, globalizazioak, migrazioak edo ingelesa ‘lingua franca’ moduan egindako zabalketak, hizkuntza gehiago kontaktuan egotea izan du ondoriotzat. Honela, gizarte aunitz eleaniztunak direla azaldu da (Aronin eta Singleton, 2008) bai eta hizkuntza ikasle asko hirugarren edo laugarren hizkuntza ikasleak direla ez, ordea, bigarren hizkuntza ikasleak (De Angelis 2007). Era berean, komunitate eleaniztun asko, hizkuntza minorizatu bat duten herrialdeak dira eta, hauetan, hiztunek hizkuntza minorizatua eta dominantea jakin ohi dute gero eta ‘eleaniztunago’ bihurtuz (Cenoz eta Gorter, 2012, 184. orr.). Herrialde berdinean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeak hainbat ondorio ditu. Adibidez, hizkuntza mantentze edo hizkuntza bakoitzak komunitatean izango duen rola zehaztu behar izatea (Bathia, 2013).

Bestalde, gizarte mailako eta eleaniztasun indibiduala guztiz bananduta ez daudela dakigu (Cenoz, 2013b). Izan ere, pertsona eleaniztun gehiago aurkitzen ditugu lurralde eleaniztunetan. Adibidez, hizkuntza minorizatuak dauden lurraldeetan. Eleaniztasun indibiduala definitzeko garaian, hizkuntza-gaitasun mailari erreparatu zaio maiz. Definizio batzuek, pertsona bat eleaniztuna dela esateko hizlari natiboarekiko alderaketak proposatu dituzte (ikus Bloomfield, 1933). Beste batzuek, aldiz, eleaniztun kontsideratzeko hizkuntzarekiko gramatikaren inguruko nozio eta kontrol minimo bat izatea nahikoa dela (ikus Hall, 1952). Ikerketa honen helburuetarako, muturreko bi irizpide hauek egokiak ez liratekeela uste dugu. Izan ere, oso gutxi dira hizlari natiboen gaitasuna bi hizkuntza edo gehiagotan erakutsi dituzten hizlariak (Aronin eta Singleton, 2012) eta, ikerketa honetan aztertzen ditugun hizkuntzetan idazteko, ikasleek hizkuntza-gaitasun minimo bat beharrezkoa dute.

Cenozen (2013a) aburuz, eleaniztasun indibidualak ere berezko ezaugarriak lituzke hizkuntzen jabekuntza edo erabilerari dagokionez. Zehazki, ikaste esperientzia hauek antolamendu eleaniztunaren edo elebitasun-motan eragina dutela.

Lehendabizi, hortaz, elebitasun eta eleaniztasunaren arteko desberdintzea egitea daukagu. Desberdintze hau, kuantitatiboa edo kualitatiboa izan daitekeela azaldu da. Kuantitatiboa da, elebitasunak bi hizkuntza baino gehiago barne hartzen ez dituen heinean (Aronin eta Hufeisen, 2009). Aldiz, desberdintze hau kualitatiboa litzateke, eleaniztasunek hizkuntza ikaste estrategia, errepertorio linguistiko edota kontzientzia metalinguistiko zabalago bat dutela erakutsi dutenez (Aronin eta Singleton, 2012). Tesi lan honetan, elebitasuna bi hizkuntzei erreferentzia egiteko erabiliko dugu soilik. Eleaniztasuna, aldiz, hiru edo hizkuntza gehiagori erreferentzia egiteko. Hala

ere, ondorengo atalean azalduko ditugun eleaniztasunaren ezaugarri asko elebitasunari ere atxiki litzaizkioke ikusiko dugunez.

Eleaniztasun indibidualaren aspekturik garrantzitsu eta espezifikoenetariko bat hizkuntza anitzen arteko erlazio eta elkarreraginak dira. Hogeigarren mendearen hasieran, elkarreragin hauek utzikeriari atxiki zitzaion eta hala dirau zuen Uriel Weinreich (1953) eta Robert Lado (1957) ikerlarien lanak argitaratu arte. Izan ere, lan hauetan, hizkuntzen arteko harreman eta elkarreragina hizkuntzen jabekuntzan eta erabileran eragotzi ezinezko ezaugarri zirela azaldu zuten (Jarvis & Pavlenko, 2008, 3. orr.). Bigarren hizkuntzaren jabekuntzan, hizkuntzen arteko elkarreraginaren ikerketak hizkuntzen jabekuntzan ematen diren prozesu kognitiboen inguruko informazio baliagarria eskaini du. Eleaniztasuna salbuespen beharrean normaltzat hartuz joen den heinean, hirugarren hizkuntzaren jabekuntzan ere hizkuntzen arteko elkarreragina ikertu duten lanak azalduz joan dira.

Eleaniztasuna baliabide egokiez interpretatzeko ahaleginean, bide berriak zabaldu dira aniztasun linguistikoaren fenomenoaz aztertzeko. Aztergai dugun hizkuntzen arteko harreman eta elkarreraginaren alorrean, eztabaida teorikoak eta planteamendu berritzaileak egiteko premia nabarmendu da (ikus Cenoz & Gorter, 2011, 2014; De Angelis, 2007). Tesi lan honek, ikerketa lerro hau jarraituz, hizkuntzen arteko elkarreragin eta erlazioak ikuspuntu eleaniztun batetik aztertzea izan du xede nagusitzat. Era honetan, ikasle euskaldunetan eta hizkuntza maila desberdinetan aurkitu ditugun erlazio eta elkarreragin patroia desberdinak azalduko ditugu. Gure iritziz, erlazio hauen berebiziko interesa daukate hizkuntzen irakaskuntzan. Izan ere, hizkuntzen jabekuntzan ematen diren prozesuen inguruko informazioa helarazten digute eta, modu honetan, hizkuntzen irakaskuntzarako gida izan daitezke.

Doktorego tesi honen xedea

Jarraian doazen lerroak doktorego tesi honen xede nagusiak eta hauen zergatiak azaltzeko erabili nahi izan ditugu.

Bigarren hezkuntzan hizkuntza irakasle ibili nintzen urteetan, ikasleek beren hizkuntza guztiak beste hizkuntzen ikasketarako errekurtsio bezala erabiltzen zituztela sarriki ikusi nuen. Euskara irakasten nengibilela, adibidez, Gasteizko ikasle erdaldun askok gaztelerara jotzen zuten bi hizkuntza hauen arteko loturak egin eta euskararen erabilera barneratzeko asmoz. Ingelesa irakasten nengoenean, aldiz, erdarara jotzen zuten maiz erreferentzi bila. Ikasleek modu naturalean bilatzen zituzten hizkuntzen arteko asoziazio hauek, hizkuntza hauen irakaskuntzarako erabiltzen hasi nituen aurki.

Egon nintzen institutu gehienetan hizkuntza bat baino gehiago irakasteko aukera izan nuen. Ikasle berdinak hizkuntza eskola desberdinetan izanik, ikasle hauek modu osatuago batean ulertzeko aukera izan nuen. Honela, ikasle eleaniztunek hizkuntzen artean partekatzen zituzten hainbat aspekturi erreparatu nion. Adibidez, ikasle batek hiztegi pobrea bazuen gazteleraz, euskaraz eta ingelesez seguruenik antzeko zailtasuna izango zuen. Eskola horietan atzeman nituen ikasle eleaniztunen hainbat bereizitasun. Adibidez, hizkuntzek askotariko moduetan erlazioa zutela eta erlazioa hauek modu desberdinetan antzeman eta erabili zitezkeela.

Denbora tarte horretan, Bilboko Hizkuntza Eskolan B2 euskara azterketa zuzentzaile moduan lan egiteko aukera izan nuen. Parada honetan, zuzentasunak idatzizko hizkuntzaren ebaluazioan zuen garrantziaz jabetu nintzen. Azterketen idazlanak zuzentzen nengibilela, ikasleek egindako errore askok zekizkiten beste hizkuntzen influentzia erakusten zutenaz jabetu nintzen. Errore horiek azaltzen zituzten gogoeta asko zuzenak ziren arren, ez

ziren idazten ziharduten hizkuntzaren arauetara egokitzen. Nolanahi ere, hizkuntzen jabekuntzan garrantzitsuak ziren hizkuntzen inguruko hausnarketak islatzen zituzten.

Fenomeno hauen inguruko galdera aunitz egin nizkion orduan neure buruari. Zergatik eta zertan oinarrituz erlazionatzen dira dakizkigun hizkuntzak? Ba al da erlazio horietan eragiten duen faktorerik? Ikasleek ekoiztutako erroreek zer digute esaten hizkuntzen jabekuntzen inguruan? Ba al da hizkuntzen artean partekatzen duten errore edo zailtasun gune nabarmenik?

Hizkuntzen arteko erlazio eta elkarreragina hizkuntza erabilera zein jabekuntza testuinguru desberdinetan gertatzen den arren, ez da atzematen erraza. Erlazio eta elkarreragin hauek emaitzak positiboak edo negatiboak izan daitezkeela jakinda, eta fenomeno hauen izaera konplexua egoki jasotzeko ahaleginetan, oso bestelako ikerketa diseinuak proposatuak izan zirela jakin nuen tesi lan honen hasierako etapan. Hizkuntzen arteko elkarreraginaren aintzindarietako bat izan zen Ringbom ikerlariaren aburuz, erroreak ziren hizkuntzen arteko elkarreragin hauen emaitza tangibleenak (Ringbom, 1986, 60. orr.) eta horregatik aukeratu genituen tesi lan honetan aztergai.

Doktorego tesi honek, hortaz, hizkuntzen arteko erlazioak eta hizkuntzen arteko elkarreragina errorean bitartez aztertzea izan du xede. Abiapuntutzat, euskal hezkuntza sisteman irakasten diren hiru hizkuntza nagusiak aztertzen ditu Euskal Autonomi Erkidego (EAE) zein Nafarroako Foru Aldundiko egoera soziolinguistikotik abiatuz. Hots, euskara gutxiagotutako hizkuntza, gaztelera gehiengoaren hizkuntza, eta ingelesa atzerriko hizkuntzak direla kontutan hartuz.

Helburu espezifikoa bezala, euskaraz, gaztelera eta ingelesez idatzitako idazlanetan ikasleek ekoizten dituzten erroren arteko erlazioak aztertu ditugu, bai eta korrelazio esanguratsuak aurkitu ere zuzentasunaren neurri analitiko eta holistikoen artean. Gainera, hizkuntzen arteko elkarreraginean influentzia duten hainbat eragile aztertu ditugu hirugarren hizkuntzaren idazketan. Zehazki, lehen eta bigarren hizkuntzaren estatusa, tipologia eta hizkuntza-gaitasuna bai xede zein jatorri-hizkuntzetan. Erlazio eta hizkuntzen arteko elkarreragina honela aztertuz, tesi lan honek ondorio esanguratsuak dakartza eleaniztasuna eta bigarren zein hirugarren hizkuntzaren jabekuntza alorretan.

Tesi lan hau, honela, hainbat zentzutan bakarria dela esan dezakegu. Zuzentasuna aztergai izan duten ikerketa gehienek hizkuntza bakar bat aztertu duten artean, tesi lan honen abiapuntuak ikusmirak zabaldu eta zuzentasuna ikasleek dakizkiten hizkuntza guztietara zabaltzen baitu. Lehenengo ikerketan erabilitako kategorizazioak, ikasleek hizkuntza bakoitzean dituzten zailtasun-guneak zehazteko diseinatu dugu. Errore hauen arteko erlazioak korrelazio analisien bidez aztertuz, gainera, zailtasun-gune hauen arteko erlazioak zehaztu ahal izan ditugu. Bigarren ikerketak, ordea, errore kontrastiboak edo 'interlingual errors' direlakoak ditu aztergai. Errore hauek aurretiko hizkuntzen influentzia adierazten duten artean, aurretik aipatutako faktoreen influentzia aztertzeko erabili ditugu. Hain zuzen ere, lehen eta bigarren hizkuntzaren estatusa, tipologia eta hizkuntza-gaitasuna bai xede zein jatorri-hizkuntzetan.

Tesi lan honen lehenengo helburua, beraz, zuzentasuna hizkuntza ikasle eleaniztunen errepertorio linguistiko osoan aztertzearena da. Izan ere, hizkuntza bakoitzaren zailtasun-guneak identifikatuz jakin baitezakegu noruz bideratu irakaskuntza bera. Tesi lan honen bigarren helburua,

hizkuntzen arteko elkarreragina atzerriko hizkuntzan aztertzearena izan da (ingelesean, hain zuzen ere). Izan ere, aurretik ikasitako hizkuntzak zein modutan eragiten dioten atzerriko hizkuntzaren jabekuntzari azaltzen laguntzen digu. Hurbilpen holistiko honek euskal hezkuntza sistema eta ikasleen hizkuntza guztiak barne hartzen dituen artean, hizkuntzen irakaskuntzetarako ekarpen garrantzitsua eskaintzen duela uste dugu.

Doktorego tesi honen antolamendua

Doktorego tesi hau sei kapituluk osatzen dute:

1. 2. eta 3. kapituluak alderdi teorikoa aurkezten dute. Lehenengo kapituluan, hizkuntza bi edo anitzen prozesamendurako proposaturiko eredu teoriko aipagarrienak aurkeztuko ditugu. Bigarren kapituluan, aldiz, zuzentasunaren ikerketan erabiliak izan diren neurri analitiko zein holistikoen aurkezpena egingo dugu, gure ikerketan garrantzizko diren neurrietan bereziki erreparatuz. Amaitzeko, hirugarren kapituluan, hizkuntzen arteko elkarreragina hizkuntza maila desberdinetan aurkeztuko dugu, eta honen inguruko ekarpen teoriko eta enpirikoen errebisioa egingo du hirugarren hizkuntzaren jabekuntzan.

4. kapituluak tesi lan honen testuingurua eta metodologia azaltzea du xede. Lehendabizi, hortaz, ikerketen testuinguruari erreparatuko dio. Bigarrenik, ikerketen helburu, ikerketa galderak, lagina, neur-tresna eta erabilitako prozedura azalduz.

5. kapituluak tesi lan honen emaitzak aurkeztea du xede. Lehenengo atalak, hiru hizkuntzetan eta zuzentasun neurrien bitartez jasotako emaitzak azalduko ditu. Bigarren atalak, aldiz, hirugarren hizkuntzaren idazlanetan jasotako errore-contrastiboen ingurukoak.

6. kapituluak tesi lan honen ondorio nagusienak azalduko ditu. Bide batez, ikerketa honen inplikazioak, mugak eta ikerbide berriak planteatuz.

Alderdi teorikoa

1. KAPITULUA: ELEANIZTASUNAREN EREDU TEORIKOAK

Lehenengo kapitulu honek bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, elebitasun eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren esparruan proposaturiko eredu teoriko aipagarrienen aurkezpena egitea (Cook, 2003; Grosjean, 1992). Bestetik, eleaniztasuna eta hirugarren hizkuntzaren jabekuntzen esparruetatik proposatu diren eredu teorikoen aurkezpena egitea (Cenoz & Gorter, 2011, 2014; Herdina & Jessner, 2002). Izan ere, eredu hauek bigarren zein idazketa eleaniztunaren ikerketan marko teoriko bezala erabili dira (ikus Polio eta Ji-Hyun, 2016).

1.1. Eredu elebidun eta eleaniztunak

Ikerketa esparru desberdinetan gauzatutako proposamenek, prozesatze eleaniztunaren azalpen osatu bat eskaintzen digute. Neurolinguistikan egindako ikerketek, adibidez, pertsona eleaniztunek ondo dakiten hizkuntza bat edo gehiago hitz egiten dutenean, garunean antzeko aktibazio patroiak nola funtzionatzen duten azaltzen dute. Alegia, nahiz eta hizkuntza desberdinak izan, jardunean parte hartzen duen sistema neuronala berdintsua dela (Abutalebi, Cappa, eta Perani, 2005). Ildo berdinetik baina psikolinguistikaren ikerketa-esparruan, hizkuntzak ‘piztu’ eta ‘itzaltzea’ ia ezinezkoa gertatzen dela azaldu duten ikerketak aurkitu ditzakegu (Dijkstra, 2005; Kroll, Bobb eta Wodniecka, 2006). Horregatik, hizkuntza-erabilera modu holistikoa batean azaldu duten ikerketak gerturatu nahi izan ditugu. Zehazki, hizkuntzen erabilerak hizkuntza jakituria zehazten duela argudiatu duten ikerlarien proposamenak. Ekin diezaiozun bada, elebitasun zein eleaniztasunean ematen diren hizkuntzen arteko harremanak aztertu dituzten ikerketa eta proposamenen azalpenari.

1.1.1. Eredu elebidunak

Bilingual Speech Modes (Grosjean, 1989, 1992, 1997)

Ikerlari honen lana 1989. urtean kokatzen da; izan ere, pertsona elebidunak bi pertsona elebakarren batuera ez zirela azaldu zuen. Honela, pertsona elebidunon bi hizkuntzak eta pertsona elebakarren ama-hizkuntzaren jardunbidea desberdindu zituen lehendabizikoz, eta elebidunen jarduna azaltzeko eredu holistikoa proposatu zuen.

Ikerle honek proposatutako Bilingual Speech Modes (Grosjean, 1992) ereduak elebidunon jardunan continuum batean kokatu zuen. Ikerlariaren aburuz, pertsona elebidunen hizkuntzen aktibazio maila erlatiboa zen, eta aktibazio erlatibo honi hizkuntza modua edo ‘language mode’ deitu zion. Hala, bi hizkuntza modu zehaztu zituen: modu elebakar eta elebiduna. Hizkuntza modu elebakarra, pertsona elebidunak haien hizkuntza bakar bat dakiten hizlariekin komunikazioan daudenean ematen zen. Modu elebiduna, aldiz, hizlariak hizkuntza bat baino gehiago partekatzen dutenean eta hizkuntza aldaketak gertatzen zirenean.

Hizkuntza modu elebidunean, hiztun elebidunek hizkuntza oinarri bat (‘matrix language’) erabakitzen zutela argudiatu zuen ikerlariak eta, hortik aurrera beste hizkuntza(k) (‘guest languages’) erabiltzeko posibilitatea irekitzen zela haien behar edo nahietara egokituak. ‘Guest languages’ hauek erabiltzeko garaian, bi modu zeudela argudiatu zuen Grosjeanek (1997). Lehena, ‘code-switch’ edo kode-aldaketak ziren. Bigarrena, ‘borrowing’ edo hizkuntza maileguak. Lehenak, hizkuntza aldaketa total bat suposatzen zuen. Bigarrenak, aldiz, hizkuntza baten hitz edo esaldi bat hartzean zetzan, eta forma hori morfologikoki (eta askotan fonologikoki) eraldatzea ‘matrix language’ edo oinarri hizkuntza horri egokituz. Honela, bi interakzio mota

hauek ('code-switching' eta 'borrowing' direlakoak), aktibazio maila desberdinak azalarazten zituztela argudiatu zuen ikerlariak. Gainera, faktore desberdinek hartzen zuten parte hizkuntzen aktibazio erlatibo hauetan. Zehazki, hizlari eta entzulea, hizkuntza gaitasun maila edo testuinguru ez linguistikoa (Grosjean, 1997, 228. orr.). Grosjeanen aburuz, hortaz, pertsona elebidunon hizkuntza aktibazioa testuinguruari lotuta zegoen, bai eta behar komunikatiboetara (ez prozesu psikolinguistikoetara soilik). Hori dela eta, hiztun elebidunen hizkuntza prozesamendurako eredu psikolinguistikoek, pertsona elebidunen modu desberdinak hauek (hizkuntza modu elebakar eta elebiduna) azaldu beharko lituzketela defendatu zuen, bai eta pertsona elebakar eta elebidunen arteko desberdintasunak bi modu hauetan. Adibidez, pertsona elebidunak hizkuntza modu elebakarrean eta pertsona elebakarrak hizkuntza modu elebakarrean egotearen arteko desberdintasunak bai pertzepzio zein ekoizpenean (Grosjean, 1997, 225. orr.). Honela, Grosjeanen lanak (1992, 1997) elkarrizketa eleaniztun batean ematen diren hizkuntzen arteko harreman-motak (kode-aldaketak eta maileguak) ulertzen laguntzen digu, interakzio hauek testuinguruari (eta honen aldagaiei) lotuz.

Eredu honen baliagarritasunaren aldeko emaitzak azaldu dituzten lanen artean Dewaele (2001) edo Cenoz (2003a) aurkitzen ditugu. Cenozek (2003a), adibidez, euskal ikasle hirueledunek euskara interakzio estrategietarako hizkuntza-hornitzaile gisa erabiltzen zutela azaldu zuen, eta hizkuntza erabilera hau honela azaldu zuen:

'The use of Basque seems to be influenced by the characteristics of the context and could be influenced by the use of Basque as the school language, the knowledge of Basque by the interlocutor or the relatively informal context in which the conversation took place' (Cenoz, 2003a, 8. orr.)

Ikus daitekeenez, Grosjeanen (1992) ereduak momentu zehatz batean ematen diren hizkuntzen aktibazio, aukeraketa, eta moduei (kode-aldaketak/maileguak) buruzko zehaztapenak ematen dizkigu, bai eta hauek ulertzen lagundu.

The Integration Continuum (Cook, 1991, 2003, 2008)

Cookek (1991) ‘multi-competence’ terminoa proposatu zuen bi gramatika buru berdinean zituen pertsona baten hizkuntza-gaitasuna definitzeko. Honela, bigarren hizkuntzaren jabeak, pertsona elebidunen lehen-hizkuntza barne hartzen zuela azaldu zuen. Ikuspegi honek, oro har, pertsona elebidunak modu holistiko batean ikustea bermatzen zuen, eta hizkuntzen arteko elkarreraginak prozesamendu eleaniztunaren parte bailira azaldu ahal izatea.

Cookek aburuz, bigarren hizkuntza ikaslea edo pertsona elebiduna modu batean edo bestean erabiltzen zuten hizkuntza ‘erabiltzaileak’ ziren, eta ez bigarren hizkuntzaren erabilera natibo bat bilatzen zuten ikasle burutugabeak. Kontzeptualizazio aldaketa honek, bestean artean, jatorrizko-hiztunaren eta 2. hizkuntza ikaslearen terminoen zama aritzen zituen.

‘Multi-competence’ kontzeptuaren definizioak, hainbat elementu barne hartzen zituen. Horien artean, syntaxiaz aparte, hizkuntzen lexikoa edo fonologia, 2. hizkuntzak ez ziren beste hizkuntzak (3. edo 4. hizkuntzak, adibidez), eta hiztun komunitateak; hots, aspektu psikolinguistikoaz aparte, soziolinguistikoak.

‘Multi-competence’-aren baitan ematen diren hizkuntzen arteko erlazio posibleen eredu, 2003. urtean garatu zuen Cookek eta The Integration Continuum deitu zion. Honela, continuum hau azaltzeko, 2. hizkuntzaren irakaste metodologietan erabiliak izandako bi muturreko eredu azaldu zituen


lehendabizi. Izan ere, muturreko bi ereduen artean ematen diren harreman-motak azaltzeko baliagarria izan zitekeela argudiatu zuen.

Mutur batean, 'hizkuntzen banaketa eredu' aurkeztu zuen. Honetan, bi hizkuntzen arteko harremanik existitzen ez zela azaldu zuen, hots, ikasleek 2. hizkuntza lehenengo hizkuntzarekiko loturarik gabe ikasten zutela. Beste muturrean, aldiz, 'hizkuntzen integrazio eredu' kokatu zuen. Integrazio eredu honetan, bi hizkuntzek sistema bateratu bat osatzen zutela azaldu zuen, nahiz eta ikasleek hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko aukera egiten zuten.

Muturreko bi eredu hauek ezinezko zirela argudiatuz, Cookek (2003) bide erdian leudekeen bi interkonexio modu azaldu zituen: elkarri lotuta dauden hizkuntzena eta partzialki lotuta dauden hizkuntzena. Lehenak, funtsean banatuta dauden bi hizkuntzen arteko elkarreragina azalduko luke, eta transferentziak bi norabideetan gertatzen direla. Bigarrenak, aldiz, hizkuntzen artean teilakatze partziala gertatzen dela, eta teilakatze hau lexikoan, syntaxian edo beste hizkuntza eremuetan ematen zela. Honela, Cookek (2003) bere *The Integration Continuum* eredu, norabide bikoia zela azaldu zuen, eta eredu honek hizkuntza sistema osoari eragin behar ez ziola argudiatu. Izan ere, pertsona baten lexikoa integratua egon zitekeen, fonologia banatua zegoen artean (Cook, 2003, 9. orr.). Gainera, aldagai indibidualek ere bere pisua zutela defendatu zuen, eta pertsonaren kokalekua continuumean alda zitekeela Grosjeanek (1992) proposatutako hizkuntza moduaren arabera.

2008. urtean ikerlariak honela irudikatu zuen pertsona elebidunen hizkuntza-gaitasuna edo 'multi-competence' delakoa:

Irudia 1.1: Multi-Competence (Cook, 2008, 18. orr.).



1.2.2. Eredu eleaniztunak

Eleaniztasunean ematen diren hizkuntzen arteko harremanak azaltzeko proposatu diren ereduak hainbat berezitasun dituzte. Izan ere, pertsona eleaniztunek dakizkiten hizkuntzak bi baino gehiago izanik, hizkuntzen arteko harremanen norabide posibleak ugaltu egiten dira (ikus De Angelis 2007). Gainera, hirugarren hizkuntzaren jabekuntzan azaldutako hainbat ikerketek azaldu bezala, hirugarren hizkuntza ikasleek jabekuntza estrategia eta kontzientzia metalinguistiko zabalago bat dute (ikus Cenoz 2013a). Hori dela eta, atal honetan eleaniztasunean ematen diren hizkuntzen arteko harreman eta elkarreragina hobeto azaltzen laguntzen diguten ereduak aurkezpena. Bide batez, ikerketa honetan erabili dugun ereduak, Focus on Multilingualism (Cenoz eta Gorter 2011, 2014) azalduko dugularik.

Dynamic Model of Multilingualism (Herdina eta Jessner, 2002)

Dynamic Model of Multilingualism (DMM) eredua Herdina eta Jessner (2002) ikerlariek diseinatu zuten. Eredu honetan, pertsona eleaniztunak konfigurazio linguistiko espezifiko bat zutenaren ideia defendatu, eta konfigurazio hau hizkuntzen arteko interakzio konstanteetan eta ko-existentzian oinarritzen zela argudiatu zuten (Herdina eta Jessner, 2002, 59. orr.)

DMM ereduak, sistema eleaniztunaren garapena denboran azalduko luke, eta garapen honen ezaugarrien artean linealtasun falta, itzulgarritasuna edo hizkuntzen arteko menpekotasuna azpimarratu zituzten. Gainera, sistema eleaniztunearan eragiten zuten faktoreen artean, hizkuntza galera eta hizkuntza mantentzea defendatu zituzten ezinbestekotzat.

DMM eredua sistema dinamikoen teorian oinarritu zutelako, faktore guztiek elkarri eragiten ziotela azaldu zuten, bai eta faktore hauen arteko erlazioak zehaztean zetzala eredua bera. Era honetan, interakzio hauek aztertzeke ezinbesteko ikuspuntua holistikoa behar zuela izan adierazi zuten. Zehatzago, hau zela eleaniztasunaren ikerketan hizkuntza sistemen arteko dinamikak azaldu zezakeen ikuspuntu bakarra (Herdina eta Jessner, 2002, 150. orr.)

Hizkuntza eta hiztunen inguruan, autoreek, ondorengo kontzeptualizazioa egin zuten. Alde batetik, hizkuntzak sistema-psikolinguistikoak zirela defendatu zuten: zehazki, sistema irekiak eta faktore sozial eta psikologikoenganako menpekotasuna erakusten zutenak zirela. Autoreen iritziz, beraz, hizkuntza sistemen garapena azaltzea litzateke DMM ereduaren xedea, ez hizkuntza berauen azalpena (Herdina eta Jessner, 2002,

89. orr.). Hiztun eleaniztunei dagokionez, Multilingual Proficiency (MP) edo gaitasun-eleaniztuna eta honen ezinbesteko osagaiak definitu zituzten. Gaitasun honek, hizkuntza-sistema psikolinguistiko anitzen interakzio dinamikoen (LS1, LS2, LS3, LSn), hizkuntzen arteko interakzioen (CLIN), eta pertsona eleaniztunak elebakarretatik desberdintzen dituen efektu guztien (M-factor) batuera zela argudiatu zuten (Herdina eta Jessner, 2002, 130 orr.). Beraz, gaitasun eleaniztun honen ondorengo formula hau planteatu zuten: $LS1, LS2, LS3, LSn + CLIN + M\text{-factor} = MP$.

Labur, hortaz, DMM ereduak hiru berezitasun nagusi dituela esan genezake. Lehen, ikuspuntu holistiko bat ezinbestekotzat jotzen zuela prozesamendu eleaniztunaren azterketarako. Bigarrena, hizkuntzen garapena pertsona eleaniztunen sistema psikolinguistikoaren osagaia zela azaldu zutela (eta ez hizkuntzak sistema estatikoak berez). Eta hirugarren, eleaniztunon hizkuntza-gaitasuna hizkuntzen arteko interakzio konstante eta ko-existentzian oinarritu zutela.

Focus on Multilingualism (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014)

Focus on Multilingualism ereduak ikerketa honen diseinurako aukeratu dugun eredu da. Izan ere, eredu honek ezinbesteko jotzen ditugun hiru ardatzetan oinarritzen da: pertsona eleaniztuna, erreperitorio linguistikoa eta testuinguru soziala. Pertsona eleaniztunari dagokionez, eredu honek pertsona eleaniztuna modu holistikoan aztertzeko proposamena egiten du. Honela, hiztun eleaniztuna hizlari natiboekin alderatu ezin diren subjektuak direla azalduko du. Hots, egoera komunikatibo desberdinetan, berariazko errekurtsio linguistikoa dituzten subjektuak direla. Pertsona eleaniztunen ikuspegi honek, aurretik azalduko ditugun Grosjean (1989) eta Cook (1991) ikerlariek planteatutako pertsona elebidunen deskribapenekin bat egingo du aurrerago ikusiko dugun moduan.


Errepertorio linguistikoari dagokionez, Focus on Multilingualism ereduak eleaniztunen hizkuntza guztiek sistema oso bat bailira azalduko du, elkarri lotuak baileude. Elkarrekintza honetan, hizkuntzek bata bestearen garapenean parte hartzen dutelarik. Honela, hizkuntzen arteko mugak malgutzen dituen eredu honek, hizkuntzen arteko ‘connected growers’ (De Bot, Lowie eta Verspoor, 2007; De Bot, 2008) edo lotetsitutako-hazlee dira. Hots, hizkuntza-garapenean eta beste hizkuntzen jabekuntza prozesuetan lagungarri diren azpi-sistemak. Horregatik, hizkuntza batean gaitasun bat garatzeak, hizkuntza horretan edo beste hizkuntza batean lagungarri gerta daitekeela azalduko du. Adibidez, hizkuntza batean hiztegi teknikoak ikasteak, beste hizkuntza batean idatzitako testu tekniko bat hobeto ulertzen lagungarri izan daitekeela. Beraz, eleaniztunen hizkuntzak nola eragiten dioten elkarri ezagutzeko, errepertorio linguistiko osoa kontutan hartzea proposatuko du eredu honek.

Focus on Multilingualism ereduaren hirugarren ardatza testuinguru soziala da. Honen inguruan, pertsona eleaniztunek beren hizkuntza-gaitasuna testuinguru sozialean emango diren interakzioetan garatuko dutela azalduko du. Interakzio hauetan, pertsona eleaniztunak behar komunikatiboei aurre egiteko beren hizkuntza guztien errekurtsoak erabiliko dituela azalduz. Beraz, testuinguru sozial zehatz hori izango da eleaniztunen hizkuntza praktika definituko duena.

Eredu honetan topatzen diren autore eta teoriak, pertsona eleaniztunen jardunaren argazki osatuago bat eskaintzen digutela uste dugu. Eta honek, hizkuntza idatzian ematen diren hizkuntzen arteko elkar-emanak hobeto ulertzen lagunduko digula. Hori medio, tesi lan honetarako Focus on Multilingualism ereduaren hiru dimentsioetan oinarritu gara eta dimentsio bakoitzean tesi lan honetan aztertu ditugun azpidimentsioak zehaztu ditugu.

Tesi lan honetan erabilitako ereduaren irudikapena, hortaz, ondorengo litzateke:

Irudia 1.2: Testu eleaniztunen ikerketa Focus on Multilingualism eredu



Tesi lan honetan ondorengo azpi-dimentsioak aztertu ditugu:

Errepertorio linguistikoa:

- Aurretiko hizkuntzak eta hauen ezaugarriak: hizkuntza tipologia, lehen (1H), bigarren (2H) edo hirugarren (3H) hizkuntza diren.
- Zuzentasun linguistikoa.
- Euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko harreman eta elkarreragina.

Hiztun eleaniztuna:

- Hizkuntza-gaitasuna: lehen (1H), bigarren (2H) eta hirugarren (3H) hizkuntzan.

- Idazte estrategiak.
- Kontzientzia metalinguistikoa. Zehazki, kontzientzia morfologikoa.

Testuingurua:

- Testuinguru soziolinguistikoa: Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Aldundia.
- Ikaste testuingurua: eskolaratze eredu, adibidez.

Oro har, testu eleaniztunen ikerketak eredu eleaniztun eta holistikoen balia frogatu dute. Horregatik, atal honekin amaitzeko honen adibide diren hiru ikerketa gerturatu nahi ditugu:

Lehenengo ikerketa, Cenoz eta Gorter (2011) ikerlariak bideratu zuten. Ikerlari hauek, euskara eta/edo gaztelania lehen hizkuntza zuten 165 ikasleen produkzio idatzia aztertu zuten hiru hizkuntzetan (euskara-gaztelania-ingelesa). Idazlanak Jacobs, Zingraf, Wormuth, Hartfiel eta Highey-k (1981) proposatutako eskala holistikoaren bitartez ebaluatu zituzten eduki, antolamendu, hizkuntza erabilera, hiztegi eta hizkuntza mekanikaren inguruko emaitzak lortuz. Koerlazio analisiek, geroago, gaitasun idatziaren bost dimentsio hauen arteko harremanak esanguratsuak zirela adierazi zuten hiru hizkuntzen artean. Gainera, hizkuntzen arteko elkarreragina, norabide posible guztietan ematen zela azaldu zuten. Hots, 1Htik>3Hra, 2Htik>3Hra, 1Htik>2Hra, 2Htik>1Hra, 3Htik>2Hra eta 3Htik>1Hra. Idazketa estrategien inguruan eta, analisi kualitatiboak azaldu bezala, ikasleek indibidualki pareko estrategia erabiltzen zituztela azaldu zuten hiru hizkuntzen ekoizpenean. Ondoriotzat, pertsona eleaniztunen hizkuntza errepertorio osoa aztertzearen abantailak nabarmendu zituzten ikerlari hauek, 'Focus on

Multilingualism' eredu eleaniztunaren baliagarritasuna azalduz idazketa eleaniztunaren ikerketan.

Bigarren ikerlana, De Angelis eta Jessnerrek (2012) bidertau zuten. Ikerlari hauek, 8. mailako ikasleen ekoizpen idatzia aztertu zuten hiru hizkuntzetan (italiera-alemana-ingelesa). Idazlanak aztertzerako garaian, jariotasun zein konplexutasun gramatikal eta lexikoko datuak kontutan hartu zituzten. Halere, hizkuntzen arteko harremanak azaltzeko, jariotasun neurriak soilik hautatu ziren, hots; T-unitate eta hitz kontaketa. Ikerketaren emaitzek, lehen, bigarren eta hirugarren hizkuntzaren arteko elkarreragin eta interakzio dinamikoak erakutsi zituen, perspektiba eleanitz baten aldeko ebidentziak emanaz eta bi hizkuntza aztertzetik, hiru hizkuntza aztertzearen proposamena eginez.

Hirugarren ikerketa, Kobayashi eta Rinnert (2013) ikerlariiek bideratutako ikerketa longitudinala litzateke. Ikerketaren diseinuak, idazle eleaniztun baten argazki ulerkorra marrazten zuen ikerlana bera hiru ataletan banatuz: (a) idazlanak, (b) konposizio prozesuak eta (d) faktore indibidual eta sozialak. Idazle eleaniztunaren hiru hizkuntzetan (japonesa-ingelesatxineraz) idatzitako argudio testuen analisi linguistikoek, pertsona eleaniztunen berezko hizkuntzen arteko 'muga malguak' (Cenoz eta Gorter, 2011, 357. orr.) azaldu zituzten testu ezaugarri eta konposizio prozesuetan. Gainera, maila lexiko-gramaikalean, ikerketaren emaitzek bi norabideekiko elkarreraginak azaldu zituzten (1H-japoniarra eta 3H-txineraren artean), bai eta ingelesetik japoniarerako eraginak konposizio prozesuetan. Emaitza hauek, 'multicompetence' edo gaitasun-anitz teoria (Cook 1991) eta 'Focus on Multilingualism' (Gorter eta Cenoz, 2011) ikerlariiek jasotako emaitzak baieztatutako zituzten.

Hizkuntza idatzi desberdinak aztertuz eta fokapena hizkuntza gutxituan izanda (Cenoz eta Gorter, 2011; De Angelis eta Jessner, 2012), aipatutako hiru ikerketa hauek, hizkuntzen arteko elkarreraginak dinamikoak direla eta norabide desberdinetan ematen direnaren ideian bat egiten dute, bai eta hurbilpen eleaniztun baten berebiziko garrantzia azpimarratu.

Laburpena

Atal honetan aurkeztutako erduei esker, ondorengo esan dezakegu:

Hizkuntzen arteko harremanak ikertu dituzten autoreek, ikuspuntu holistiko bat ezinbestekotzat ikusten dutela eleaniztasunaren ikerketan (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014; Cook, 2003; Grosjean, 1992; Herdina eta Jessner, 2002). Hizkuntzen arteko harremanetan faktore psikolinguistiko (Herdina eta Jessner, 2002) zein soziolinguistikoek (Grosjean, 1992) hartzen dutela parte. Eleaniztunon hizkuntza erabileran, hizkuntzen arteko harreman-mota desberdinak ematen direla (kode-aldaketak edo maileguak, adibidez) eta hauek hizkuntza baten edo bestearen aktibazio maila desberdinak azaltzen dituztela (Grosjean, 1992) ikusi dugu. Eta azkenik, eleaniztasunaren ikerketan hiru ardatz nagusi berezitu daitezkeela: eleaniztunen errepertorio linguistikoa, hiztun eleaniztunaren ezaugarriak eta testuingurua bera (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014) azaldu dugu.

2. KAPITULUA: HIZKUNTZA IDATZIAREN EBALUAZIOA

Bigarren atal teoriko honen bitartez, idazketaren ebaluazioan erabiliak izan diren neurri-tresnen errebisia egingo dugu. Lehendabizi, idazketaren ebaluazioaren dimentsioak azalduko ditugu (2.1 atala). Ondoren, zuzentasuna neurtzeko proposatu diren neurri analitiko eta holistikoen aurkezpena egingo dugu, bai eta hauen abantaila eta desabantailen aurkezpena ere. Harira, gure analisietarako erabili ditugun neurri-tresnak ere azalduko ditugu. Alegia, funtzio/eduki eta type/token analisiak (2.2 eta 2.3 atalak). Amaitzeko, erroreen analisi, definizio eta kategorizazio desberdinak azalduko ditugu (2.4 atala).

2.1. Hizkuntza idatziaren ebaluazioa

Bigarren hizkuntzaren jabekuntzan eta 70eko hamarkadatik aurrera, hizkuntza-garapenaren aspektu desberdinak neurtzeko hiru kategoria erabili dira hizkuntza idatzian: jariotasuna, zuzentasuna, eta konplexutasuna. Hauek, hizkuntzaren ekoizpena, garapena eta jabekuntza zehaztu zezaketen hiru dimentsioak bailira ulertzen hasi ziren orduan (ikus Housen, Kuiken, Vedder, 2012).

Lehenik eta behin, zuzentasuna eta jariotasuna desberdindu ziren (Brumfit 1984) eta geroago, Skehanen (1989) ereduarekin, konplexutasuna gehitu eta ‘Konplexutasun, Zuzentasun, Jariotasun’ hirukoa zehaztu zen (CAF edo Complexity, Accuracy and Fluency delakoa, ingelesez).

90eko hamarkadatik aurrera, bigarren hizkuntzaren ekoizpenaren osagarriak zirela eta hainbat faktore neurtzeko aldagaiak bezala ikusten hasi ziren. Honen adibide, Foster eta Skehan (1996) ikerlariak ditugu. Ikerlari hauek,

CAF neurtu zuten atazaren diseinuarekiko eta hauen arteko erlazioak azaldu zituzten (adibidez, plangintza eta jariotasunaren arteko erlazioa).

Honela, azken hamarkada honetan hiru osagai hauek ikerketen foku bilakatu dira (ikus Housen, Kuiken, Vedder, 2012; Larsen-Freeman, 2006; Norris eta Ortega, 2009; Ortega, 2003, besteak beste), eta 2. hizkuntza jabekuntzaren estadio nabariak azaldu ditzaketela azaldu da. Honen inguruan, Housen, Kuiken eta Vedder ikerlarien ondorengoa azaldu zuten:

‘CAF emerge as the primary epiphenomena of the psycholinguistic processes and mechanisms underlying the acquisition, representation and processing of L2 systems. The status of CAF as principal and distinct dimensions of L2 performance and proficiency has now been justified both empirically and theoretically’ (2012, 3.orr).

Era honetan, konplexutasuna, zuzentasuna eta jariotasuna (CAF) maila linguistiko desberdinetara neurtu daitekeela ikusi da. Hala nola, fonologian, lexikoan, morfologian, sintaxian, semantikan, diskurtsoan eta pragmatikan. Honela, hizkuntzaren maila bakoitzak beren berezko neurriak diseinatu behar izan ditu.

2.2. Idazketaren ebaluaziorako neurri holistiko eta analitikoa

Hayes eta Flowerek (1980) azaldu bezala, idaztea idazleek informazio hutsune bat gainditu behar duten arazo-ebazpen prozesu bat da. Helburu hau buruan, testu bat ona edo txarra den esateko irizpideak hainbat puntu barne hartu behar ditu.

Produktio idatziaren ebaluazioak, zerk neurtzen duen testuen aspektu bakoitza hobeto ezagutzea du jomuga. Galdera honek, begiratzen duen ikerketa esparruaren arabera, erantzun asko izan ditzake eta honela ebaluaziorako eraikin uniforme bat zehaztea helburu zaila da. Ikusiko

dugunez, aukera eta ebaluazio tresna aunitz eta konbinazio desberdinak erabili izan dira, eta atal honetan hauetan sakonduko dugu.

Modu zabalean, bi izan dira ekoizpen idatzia neurtzeko erabilitako eskala motak: holistikoak eta analitikoak. Tradizionalki, eskala holistikoak puntuazio integratu eta bakar batean oinarritu dira, idatzizko produkzioa osotasun bat bailitzan irudikatuz. Honek, idatzizko produkzioa entitate bakar baten moduan ikusi eta hala puntuazio bakar batek hobeto neurtzen duenaren ideia islatzen du. Gerturatze honek, ondo eginda dagoena gabezien gainetik nabarmentzen duela adierazi duten ikerlariak aurki ditzakegu (White, 1985, adibidez).

Eskala mota honi kritika egin dioten ikerleen artean, Knoch (2009) aurkitzen dugu. Honela, lau ideia azpimarratu zituen ikerlari honek. Lehena, puntuazio bakar batek ezin duela diagnostiko informazio nahikoa eman. Bigarrena, ebaluatzaileek idatzizko burutzearen aspekturen bat ahanzi ditzaketela. Hirugarrena, ebaluatzaileek kategoria desberdinetan haztapen bat eman ahal izatea sortu zezakeen fidagarritasun eta, hots, balidazio falta suposa lezakeela. Eta azkenik, 2. hizkuntzaren idazketari erreferentzia zuzena eginez, eskala holistikoek 'idazteko gaitasuna' eta 'hizkuntza-gaitasuna' nahasteko aukera nahitaezkoa zutela puntuazio bateratuaren ondorioz.

Eskala analitikoak, ostera, puntuazio desberdinak baimentzen dituzte idazketaren aspektu desberdinetarako. Honela, estandarizazioa eta fidagarritasuna ahalbideratzen dutela azaldu da. Rinnert eta Kobayashi (2016) ikerlariak, idazketa eleaniztuna ikertzeko neurrien inguruan hausnartu zuten. Honela, hizkuntzen artean alderagarriak ziren neurri analitikoek beharra azpimarratu zuten. Testuen ezaugarriak ikertze aldera, neurri analitikoek testu maila desberdinak barne hartu behar zituztela azaldu zuten; ezaugarri ortografiko, lexiko eta esaldi ezaugarriak kontutan hartuz, besteak

beste. Neurri analitikoek jasotako kritika nabarienak, idazketaren edo hizkuntzaren atalak zenbatzea, osotasuna baino gutxiago denaren ingurukoak izan dira, eta neurri hauek osotasun horren neurketa bermatzen ez dutela (ikus White, 1985).

Ondorengo taulan, Knochek (2009, 40. orr.) zehaztutako eskala holistiko eta analitikoek eskaintzen dituzten abantaila eta desabantailen sintesia azaltzen dugu ebaluazio neurriek izan beharko lituzketen ezaugarrien arabera:

Taula 2.1: Eskala holistiko eta analitikoaren konparaketa

Kalitatea	Eskala holistikoak	Eskala analitikoak
Fidagarritasuna	Analitikoa baino baxuagoa baina onargarria	Holistikoa baino altuagoa
Eraikin balidazioa	Eskala holistikoak, idazmenaren aspekturik garrantzitsuenak puntuazio berdinean garatzen direla barne hartzen du: puntuazio holistikoek luzera eta grafologiarekin koerlatzen dute	Eskala analitikoak 2H idazleentzako dira egokiagoak, idazteko gaitasunaren aspektu desberdinak puntuazio desberdinetan azaltzen baitituzte
Praktikotasuna	Erlatiboki azkarra eta erraza	Denbora handia hartzen du; garestia
Inpaktua	Puntuazio bakar batek idazteko perfil gorabeheratsu bat ezkutatu dezake, eta kokalekua okertu	Eskala gehiagok, kokatze eta/edo instrukziorako diagnosikorako informazio erabilgarriago bat ematen dute; ebaluatzaileek instrukziorako informazio gehiago dute
Autentikotasuna	Whiten (1985) iritziz, holistikoki irakurtzea, analitikoki irakurtzea baino prozesu naturalago bat da	Ebaluatzaileek holistikoki irakurri eta puntuazio analitikoak egokitu ditzakete inpresio holistikoak berdinkidetzeko

2.2.1. Neurri holistikoak

Bigarren hizkuntzaren idatzizko ekoizpena neurtzeko erabili diren eskala holistikoen artean ondorengo lau eskalak dira aipagarrienak. Hauen artean, tesi lan honetarako erabili dugun eskala holistikoa aurkeztuko dugu. Hain zuzen ere, Poliok (2013) garatutako ESL Profilararen birmoldaketa.

American NAEP Studies

‘The American Nationwide Assessment of Educational Progress’ study (NAEP), idatzizko ikerketaren esparruan datu bilketa handienetarikoa bat egin zuen. Honela, 1998. urtean 60.000/61.000 ikasleek idatzitako testuak aztertu ziren eskala hau erabiliz eta, 2007. urtean, 167.800 ikasleek idatzitakoak.

Erabilitako kodeketan, maila eta irizpide desberdinak erabili ziren adin-talde eta testu-genero bakoitzarako. ‘The American Nationwide Assessment of Educational Progress’ (NAEP) diseinatutako hiru gaitasun mailak, honela deskribatu ziren:

‘*Basic* denotes partial mastery of prerequisite knowledge and skills that are fundamental for proficient work at a given grade. *Proficient* represents solid academic performance. Students reaching this level have demonstrated competency over challenging subject matter. *Advanced* represents superior performance’ (NAGB, 2007, 6. orr.)

Test of Written English (TWE)

Eskala holistiko ezagunetarikoa bat da ingelesa bigarren hizkuntza (ESL) testuinguruan. Sei puntuko eskala honek, puntu bakoitzeko, 3-6 deskriptore zehazten ditu. Puntu bakoitzaren definizio nagusia ondorengoa litzateke:

‘6 score: Demonstrates clear competence in writing on both the rhetorical and syntactic levels, though it may have occasional errors.

5 score: Demonstrates competence in writing on both the rhetorical and syntactic levels, though it will probably have occasional errors.

4 score: Demonstrates minimal competence in writing on both the rhetorical and syntactic levels.

3 score: Demonstrates some developing competence in writing, but it remains flawed on either rhetorical or syntactic levels, or both.

2 score: Suggests incompetence in writing.

1 score: Demonstrates incompetence in writing' (TWE, 2004, 21. orr.)

ESL Profile (Jacobs eta beste, 1981)

Ikertzaile askok erabili duten errubrika honek bost dimentsio eta dimentsio bakoitzean 3-6 deskriptore azaltzen ditu. Eskala hau gure testuinguruan erabilitako ikertzaileen artean Cenoz (1991), Lasagabaster (1998) edota Arocena (2017) aurkitzen ditugu. Ebaluaziorako zehaztutako bost dimentsioak: edukia, antolamendua, hizkuntza erabilera eta hizkuntza mekanikaren inguruko puntuazioak eskaintzen dituzte. Dimentsio bakoitzak, puntuazio maximo bat izanda, aspektu desberdinei garrantzi bat o beste egokitzen zaiela zehazten du 'edukia' eta 'hizkuntza erabilera' beste bost dimentsioetatik gailenduz. Honela, puntuazio maximoak hauexek lirateke: edukia (=30 puntu), antolamendua (=20 puntu), hizkuntza erabilera (=25 puntu), hiztegia (=20 puntu) eta hizkuntza mekanika (=5 puntu). Eskala honek, bere erabilerarako eskuliburu bat aurkezten du eta argibideetan bi ebaluatzaileen puntuazioekin ezartzen dela batz besteko nota azaltzen da.

ESL Profile (birmoldatua) (Polio, 2013)

Poliok (2013) errebisatutako eskala hau, Jacobs eta beste (1981) ikerlarion *ESL Profilaren* birmoldaketa da. Birmoldaketa honek, jatorrizko eskalaren

dimentsioen puntuazioak berrezartzen ditu. Honela, dimentsio guztiei pisu berdina ematen die 20 puntuko maximoa ezarriz.

Neurtutako dimentsioak, *ESL Profile* (Jacobs eta beste., 1981) eskalaren berdinak dira, bai eta deskriptoreak ere. Azken ikerketei jaramon eginez (ikus Connor-Linton eta Polio, 2014), Poliok (2013) proposatutako birmoldaketa hau balidazio eta fidagarritasun esparruan eraginkorragoa zela erakutsi zuen heinean, tesi lan honetan erabilitako eskala holistikoa izan da (Appendix 6). Honela, bi eskalen arteko puntuazioen desberdintasunen zehaztapenak prozeduren kapituluan biltzen dugun 4.3 taulan ikus daitezke.

2.2.2. Neurri analitikoak

Modu zabalean, ikerketan erabilitako neurri analitikoak hiru produkzio unitate nagusietan oinarritu dira. Unitate hauek perpausa, T-unitatea eta esaldia izan dira.

Perpausak, aditz sintagma eta subjektu batez osaturik daude (Bardovi-Harling eta Bofman, 1989). Hala, bi perpaus mota aurki daitezke: perpaus jokatu eta jokatugabeak. Perpaus jokatuak aditz sintagma eta subjektu bat dute eta perpaus jokatu gabeak, aldiz, aditz sintagma eta partizipio, infinitibo edo gerundio batez osatzen dira. Badira perpaus jokatuak bakarrik neurtu dituzten ikertzaileak (Ishiwaka, 1995), bai eta biak neurtu dituztenak ere (Kobayashi eta Rinnert, 1994).

T-unitatea perpaus nagusi batek eta bere menpeko guztiek osatuko lukete (Hunt, 1965). Honela, perpaus koordinatuek bi T-unitate izango lituzkete, adibidez. Produkzio unitate hau, heldutasun sintaktikoa isla zezakeen unitate moduan pentsatu zuen Hunt (1965), xede hizkuntzan ematen diren 'embedding processes' edo prozesu integratuak barne hartzen dituen heinean (Sharma, 1980, 320. orr), eta oraindik ere zabalki erabilia den unitatea da

(Gyllstad eta beste, 2014; Kobayashi eta Rinnert, 1994, adibidez). Nahiz eta konplexutasun sintaktikoa neurtu dezakeen neurria den, komunikazio gaitasuna neurtzen ez duen neurria dela argudiatu duten lanak ere izan ditugu (Homburg, 1984, adibidez).

Esaldia maiuskulaz hasitako eta puntu batez amaitutako produkzio unitate moduan definitu da (Swain, 1975), eta badira unitate hau T-unitatea baino egokiagoa dela defendatu duten ikerleak (Bardovi-Harlig, 1992; Bardovi-Harlig eta Bofman, 1989, adibidez).

Hiru produkzio unitate hauetan oinarritutako ebaluazio neurriek hizkuntza bera maila sintaktikoan neurtzeko erabili izan dira. Aldiz, hizkuntza maila lexikoan ebaluatzeko garaian, beste bi neurketa-mota aurkeztu behar ditugu. Zehazki, type/token eta eduki/funtzio hitzen kategorizazioa.

Type/Token analisia

Type/Token analisiak bi termino desberdintzen ditu lexikoaren aniztasunaren azterketarako. *Type* terminoak, idazlanean azaldutako hitz desberdin bakoitzari egingo dio erreferentzia. *Token* terminoak, berriz, erabilia izan den hitz bakoitzari (nahiz eta hitz hauek errepikatuak egon). Honela, Type/Token analisisian bi tendentzia desberdinu dira:

- *Type* moduan lexema berdinetik ateratako hitz guztiak ulertzen dituzten ikerleak (Harley eta King, 1989, adibidez)
- Desinentzia desberdin bakoitza nahiz eta lexeman berdina izan, *type* desberdin baten moduan neurtzen dituzten ikerleak (McClure, 1991, adibidez).

Gure bigarren ikerketaren helburuekin lotuta, gure analisia bigarren tendentzian oinarritu dugu. Zehazki, desinentzia desberdin bakoitza *type* desberdin bat bailira identifikatuz.

Eduki/Funtzio hitzen kategorizazioa

Eduki/funtzio hitzen kategorizazioari dagokionez, analisi honek hitzen pisu semantikoa eta kalitatea neurtzean datzala esatea dago. Honela, funtzio hitz bezala preposizioak, artikulua, konjuntzioak eta izenordeak neurtu dira. Eduki hitz bezala, aldiz, izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbioak (Fagan eta Hayden, 1988). Hitzen kategorizazio honek, dentsitate lexikoaren kalkulurako erabilia izan da (Engber, 1995), eta ondorengo kapituluan honen xehetasunak emango ditugu.

2.3. Zuzentasunaren ebaluazioa

Orobat, zuzentasuna erroreetatik libre egoteko gaitasuna bezala kontsideratu da, definitzen erraza gerta litekeen eraikina. Wolfe-Quintero eta beste ikerleen hitzetan, ‘accuracy shows the conformity of second language knowledge to target language norms’ (1998, 4. orr.). Tradizionalki, forma linguistiko bat okerra edo zuzena zen zehazteko erreferentzia-puntua ‘hizlariaren mailakide natiboa’ izan da (Lennon, 1991, 182. orr.). Aldiz, ‘hizlari natiboa’ zuzentasunaren erreferentzia-puntu bezala ulertzeko joera, ‘hizlari natiboaren’ ideia bera, eta errorearen definizioak kontraesanak sortu dituzten hiru nozio dira (ikus James, 1998). Edonola ere, hezkuntzan berezik eta idatzizko testuen ebaluazioan, zuzentasunak berebiziko garrantzia duela antzeman da (ikus Neumann, 2014).

Zuzentasunaren dimentsioan eragina duten faktoreetan erreparatuz, Wolfe-Quintero eta beste ikerlariak (1998, 34.orr) hiru faktore nabarmendu zituzten. Lehena, hizkuntzaren ekoizpenean lehiatzen duten

errepresentazioen indarra da. Bigarrena, hizkuntzaren erabileraren automatizazioa. Eta hirugarrena, hizkuntza errepresentazio beraren zuzentasun maila.

Lehenengoak, bigarren hizkuntzaren jabeakuntza prozesuaren lehenengo estadioetan finkatuago leudekeen errepresentazio linguistikoaren sarreren maiztasunean eragin zezakeela azaldu zuten Wolfe-Quintero eta beste ikerlariek. Bigarrenak, aldiz, erroreen ekoizpen kopuruan eragin zezakeela. Honela, automatizazio maila altuago batek errore ekoizpen baxuago bat eragingo lukeela azaldu zuten ikerlariak aurkitzen ditugu (MacKay, 1982, adibidez).

Zuzentasuna neurtzeko neurri analitikoaren artean, bi mota desberdinak dira. Lehenak, perpausak, T-unitateak, esaldiak edo hitzak errorerik gabekoak diren edo ez azalduko luke eta errorerik gabeko unitateak unitateko aztertzea dute jomuga. Adibidez, errorerik gabeko T-unitateak T-unitateko (EFT/T). Zuzentasun lexikoaren ebaluazioan, errorerik gabeko hitzak hitz kopuruarekiko (E/W) ebaluazio-neurria erabilienetarikoa izan da, eta horrexegatik tesi lan honen lehenengo ikerketarako aukeratu dugu.

Zuzentasuna neurtzeko bigarren neurri mota, aldiz, errore kontaktuan oinarritutako neurriak lirateke eta zenbat errore leudeke produkzio unitate bakoitzeko zehaztea luke jomuga (Bardovi-Harlig eta Bofman, 1989). Ondorengo atalean ikusiko dugun bezala, bigarren neurri-mota honetan, errore sailkapen desberdinak erabili dira.

Orobat, neurri hauek bi kritika jaso dituzte. Alde batetik, errorerik gabeko unitate neurriari (edo, lehen motako neurriari) egindako kritika nagusien artean, erroreak unitatean nola banatzen diren erakusten ez dutela da. Hots, errore bakarra eta aunitz dituzten unitateak berdin kontsideratzen dituztela

(Bardovi-Harlig eta Bofman, 1989, 22.orr.). Errore kontaketei (edo, bigarren motako neurriei) egindako kritiken artean, errore hierarkia eta erroreak printzipio bateratuz kontsideratzeko beharra azaldu da (ikus Gaies, 1980).

Gainera, zuzentasunaren ebaluaziorako zehaztutako bi neurri mota hauek, frekuentzia, ratio eta indizeak erabiliz neurtu dira.

Wolfe-Quintero eta beste (1998) ikerlariak konplexutasun, zuzentasun eta jariotasuna aztertzen zituzten hainbat ikerketa lanen errebisioa egin zuten. Beren monografian, neurri analitiko eta holistikoen arteko harremanak aztertzen zituzten ikerketen errebisioa egin zuten hizkuntza garapena hobeto deskribatu zitzaizketen neurri-tresnen bila. Zuzentasun neurriei dagokionez, ratioek neurri holistikoekin korrelazio esanguratsuagoak ematen zituztela azaldu zuten indize eta frekuentziekin alderatuz. Ikerlari hauen aburuz, korrelazio esanguratsuenak ematen zituzten ratioak ondorengoak ziren (ikus Wolfe-Quintero eta beste, 1998, 43-62.orr)

- Erroreak/hitzeko (E/W) (Linnarud, 1986; Hyltenstam, 1992; Polio eta Shea, 2014, adibidez)
- Errorerik gabeko T-unitateen ratioa (EFT/T) (Hirano, 1991; Kawata, 1992; Polio eta Shea, 2014; Tomita, 1990, adibidez)
- Errorerik gabeko perpausak perpauseko (EFC/C) (Ishiwaka, 1995; Polio eta Shea, 2014 adibidez)

Hau dela eta, zuzentasun lexikoa neurtzeko asmoz, gure lehenengo ikerketan Erroreak/hitzeko (E/W) ratioa aukeratu dugu.

2.4. Erroreen analisia

Bigarren hizkuntzaren jabekuntzan eta erroreen analisiari dagokionez, hiru joera berezitu dira: ‘contrastive analysis’ (CA), ‘error analysis’ (EA), eta

‘transfer analysis’ (ikus James, 1998). Labur, joera bakoitzaren desberdintasunik aipagarriena aztertzen zituzten osagaietan aurkitzen ditugu:

Contrastive Analysis (CA) lehen hizkuntza eta xede-hizkuntzaren arteko aldeak aztertzen ditu. Konparaketa honetan oinarrituz, desberdintasun nabariak aurkitu eta erroreak aurrean ahal izatea bilatzen du.

Error Analysis (EA), aldiz, ikasleek ekoiztutako hizkuntza bera edo ‘interlanguage’ eta xede-hizkuntza alderatzen ditu. Helburua, ikasleek duten xede-hizkuntzaren bertsioa aztertzearena da. Joera honen berezitasuna, lehen hizkuntzak (1H) ekuazioan parte hartzen ez duenaren ideia dago.

Transfer analysis (TA) error analysis (EA) egin eta ondorengo etapa litzatekeela azaldu da (ikus James 1998). Joera honetan, ikasleek ekoiztutako hizkuntza bera lehen hizkuntzarekin (1H) alderatzen da.

Ikusten dugunez, joera bakoitzak osagai desberdinak aztertzen ditu konbinazio desberdinetan: (a) contrastive analysis (CA) lehen hizkuntza eta xede-hizkuntza; (b) error analysis (EA) ikasleek ekoiztutako hizkuntza bera eta xede-hizkuntza; eta, (c) transfer analysis (TA) ikasleek ekoiztutako hizkuntza bera eta lehen hizkuntza. Honela, gure tesi lan honen lehenengo ikerketan, erroreen analisisa (EA) egiten dugu. Bigarreanean ikerketan, aldiz, transfer analisisa (TA) bideratuz.

2.4.1. Erroreen definizio eta diagnosia

Dulay, Burt and Krashen (1982) ikerlariek azaldu bezala, erroreen definizio eta diagnosia bi ekintza desberdin dira. Ikerlari hauen hitzetan: ‘the accuracy description of errors is a separate activity from the task of inferring the sources of those errors’ (1982, 145. orr.). Honela, erroreen definizioak deskribapena eskatzen duen artean, erroreen diagnosiak azalpena eskatzen du.

Ikusiko dugunez, tesi lan honetan lehenengo ikerketan erroreen analisia bideratzen dugu erroreak sailkatuz. Izan ere, erroreen analisiak (EA) ikasleek xede-hizkuntzarekiko dituzten zailtasunak identifikatzen laguntzen digute. Bigarren ikerketan, aldiz, trasferentzien analisia (TA) egingo dugu erroreek zergatik duten duten forma azaltzeko asmoz.

Errore kontrastiboak edo hizkuntzen arteko erroreak

Errore kontrastiboek ikasleek aurretik dakizkiten hizkuntzen eragina azaltzen dute. James (1998) ikerlariaren aburuz, errore mota hauek garrantzi berezia dute. Izan ere, errore azpi-multzo nabarmen bat dira. Ikerlariaren hitzetan:

‘errors triggered by L1 interference are not the only errors, as we shall present here. But they are a significant subset of all errors, though estimates and counts vary between the 3 and the 25 per cent of all errors. The remaining 75 per cent of the errors are what Richards (1974a) aptly called ‘non-contrastive’ errors’ (James, 1998, 181. orr.)

Ondorengo kapituluan azalduko dugun bezala, hizkuntza jabekuntzak ikasleek dakizkiten hizkuntzetan oinarritzen da modu desberdinetan. Antzekotasun formalek hizkuntzen arteko identifikazioak errazten dituzten artean, ikasleek antzekotasun hauek jabekuntza eta ekoizpenerako estrategikoki erabiltzen dituzte. Lado (1957, 2. orr) ikerlariak, antzekotasun eta zailtasunaren arteko erlazio hau sinplistikoki deskribatu zuen. Ikerlariaren ustez, zailtasuna desberdintasunarekiko proportzionala zen: hots, zenbat eta desberdinago, orduan eta zailago. Alabaina, hizkuntzen arteko identifikazioak prozesu konplexu eta eragin faktore aunitzekin erlazionatu dira. Horregatik, ondorengo kapituluan erroretzat ebaluatu litezkeen instantzien inguruko azalpenean sakonduko dugu bai prozesu eta hauetan eragina duten faktoreetan.

Errore ez-kontrastiboak edo xede-hizkuntzaren erroreak

Aurretik ikasitako hizkuntzetan duten jakituriaz aparte, hizkuntza ikasleek beste bi errekurso erabili ditzakete xede-hizkuntzarekiko ezjakintasunaren aurrean. Errekurso hauek ikaste estrategiak eta komunikazio estrategiak dira. Bi errekurso hauek errore-iturri direla frogatu den artean errore hauen sailkapena eman nahi izan dugu James (1998, 185-188 orr.) ikerlariaren monografian oinarrituz.

Ikaste estrategietan oinarritutako erroreak

- *Analogia faltsuak*: Ikasleak gaizki erabiltzen du B terminoa, dakien A terminoa bezala jokatzen duela uste duelako. Estrategia honi ‘cross-association’ deitu zion Georgek (1972). Adibidez, ikasle batek ingelesez ‘child’ eta ‘girl’ hitzen plurala antzeko jokatzen duela uste duenean ematen diren erroreak lirateke, azkenik ikasleak ‘childs’ hitza ekoiztuko balu.
- *Analisi okerrak*: Ikasleek hipotesi oker bat eraikitzen duenean ematen dira ikasten ari diren item berri batekiko. Adibidez, ingelesez ‘its’ ‘it’ izenordainaren plurala dela pentsatzen dutenean.
- *Arau baten aplikazio partziala*: Edo, bestela esanda, gutxiezigko orokortzea. Adibidez, ‘nobody knew where was Jon’ esatea ‘nobody know where Jon was’ esan beharrean. Kasu honetan, ikasleak galdera formulazioaren hiru osagaietatik bi bakarrik hartu ditu: wh-osagaia aukeratu eta aurrera eramanean du (1 eta 2 osagaiak), eta ez du subjektu eta aditzaren arteko inbertsioa egin (3 osagaia).
- *Erredundantzia ustiatzea*: Errore hauek xede-hizkuntza gehiegi eraikitzerakoan azaltzen dira. Adibidez, markaketa bikoitz baten

bitartez. Errore honen adibide bat, ondorengoa litzateke: ‘I don’t know nothing’. Adibide honetan, esaldiaren interpretazio literala alderantzizkoa izan liteke. Hots, ‘I do know something’.

- *Aldibereko murrizketak kontutan ez izatea:* Adibidez, ‘People in America live more quickly than we do’. Kasu honetan, bi errore aurkitzen ditugu. Alde batetik, ‘quick’ eta ‘fast’ sinonimoak bailira kontsideratu direla. Bestalde, ‘quick’ (‘fast’-en moduan) adjektibo eta adberbiotzat jokatu dezakeela pentsatu duela eta, hori medio, ez diolako –ly atzizkia ezarri adberbioari.
- *Hiperzuzentasuna:* Errore hauek xede-hizkuntza gehiegi kontrolatzen denean azaltzen dira eta ikasleek, sistematiko izan nahiez, hizkuntza sinplifikatzen dutenean. Adibidez, ikasle batek euskarazko ‘hartu’ aditza ergatiboa behar duela ikasten duenean eta ‘joan’ aditzarekin erabiltzen duenean ondorengo esaldia ekoiztuz: ‘Amaiak lanera joan zen’.
- *Gehiegizko orokortzea edo sistemen sinplifikazioa:* Adibidez, ikasle batek ‘that’ erabiliko balu sistematikoki ‘who’ erabili ordez.

Komunikazio estrategietan oinarritutako erroreak

- *Estrategia holistikoak:* Kasu hauetan, ikasleek xede-hizkuntzan A esan badezakete B esan dezaketela suposatzen dute. Horretarako, gerturatze estrategiak erabiltzen dituzte. Hala nola, sinonimo, antonimo edo asmakizun lexikoak.
- *Estrategia analitikoak:* Kasu hauetan, ikasleek item bat azaltzeko garrantzi nabaria duten ezaugarriak azaltzen ditu erreferentzia zuzena

egin beharrean. Adibidez, ‘swimming pool’ adierazteko ‘the big ... water ... outside ... summer’ erabiltzen duenez.

2.4.2. Errore lexikoen taxonomia

Xede-hizkuntzan ekoiztu daitezkeen errore ez-kontrastibo moten artean, lexikoan ematen diren errorek aukeratu ditugu tesi lan honetan. Llach (2011) ikerlariak, gure ikerketan erabilitako errore lexikoen definizioa gerturatzeko digu:

‘A lexical error is a deviation in form and/or in meaning of a target-language lexical word. Form deviations include orthographic or phonological deviations within the limits of single words, and also ignorance of syntactical restrictions which result in false collocations, for example. Meaning deviations appear when lexical items are used in contexts where they are attributed another meaning or where they violate semantic restrictions’ (2011, 75. orr.)

Errore lexiko baten definizioak hitz baten jakituriaren inguruan ditugun ideiak islatzen baditu, errore taxonomia batek ikerketa horretan bilatzen den informazio mota adieraziko du. Källkvist (1998) ikerlariak adierazi bezala: ‘No two previous studies on lexical errors have adopted the same error typology, and categorizing lexical errors is far from a straightforward exercise’ (1998, 82. orr.).

Horregatik, errore lexikoak ikertu dituzten ikerketa askok beren taxonomia propioak eraiki dituzte zuten interesen arabera, informazioa modu koherente, sistematiko eta zehatz batean jasotzeko. Tesi lan honetarako bi taxonomia eraiki ditugu: a) hitz-klaseetan oinarritutako taxonomia bat (ikerketa 1) eta b) influentziaren jatorriaren hizkuntzan oinarritutako errore lexikoen taxonomia (ikerketa 2). Ekin diezaiogun bada hauen azalpeneri.

Hitz-klaseetan oinarritutako errore lexikoen taxonomia

Hitz-klaseetan oinarritutako taxonomiek errore lexikoak hitz-klaseen arabera sailkatzen dituzte. Adibidez, errorea duten hitzak eduki edo funtzio hitz diren edota izen, aditz edo adjektiboetan eman diren erroreak zehaztuko dute. Lennonen (1991) sailkapenak adibidez, izen, aditz, adjektibo, adberbio eta kolokazio erroreak sailkatzen zituen. Errore sailkapen honek, gainera, inplizituki item lexikoen omisioak, ordezkapenak, gehitzeak eta berrantolaketak barne hartzen zituen.

Hitz-klaseetan oinarritutako taxonomiek, kategoria eskusiboak eraikitzen dituzte. Hots, kategoria batean dauden erroreak ez daude beste kategoriak batean. Honek, erroreen sailkapenean anbiguotasunik ez egotea ahalbideratzen du. Ezaugarri bi hauek medio, taxonomia mota hau gure lehenengo ikerketan erabili dugu.

Influentziaren jatorriaren hizkuntzan oinarritutako errore lexikoen taxonomia

Tradizionalki, bi errore-kategoria sailkatu dira: a) lehen hizkuntzaren influentzia ('interlingual errors'), b) xede-hizkuntzaren sailtasunak ('intralingual errors').

Ringbom (1981, 1983), adibidez, lehen hizkuntzaren eragina zuten erroreetan fokatu zen. Ikerlari honentzat taxonomia ez zen berez helburua. Autoreak taxonomia hau hizkuntzen arteko elkarreragina aztertzeko erabili zuen. Hala, kategorizazio bikoitz bat ezarri zuen 'mailegu' eta 'transferentzia lexikoetan' oinarrituz. Ondorengo kapituluan xehetasunez azalduko dugun bezala, maileguen kategoriak elkarreragin formal bat azaltzen zuen. Transferentzia lexikoen kategoriak, aldiz, elkarreragin semantiko bat. Bi

kategoria orokor hauen azpian hainbat azpi-kategoria aurkeztu zituen irizpide psikolinguistikoetan oinarrituak.

Ikusiko dugunez, tesi lan honetan errore taxonomia desberdin bat eraiki dugu ikerketa bakoitzerako. Lehenengo ikerketan, hizkuntza zailtasunak eta harremanak zeintzuk ziren aztertzean genuenez interesa, hitz-klaseetan oinarritutako errore taxonomia bat eraiki genuen aztergai genituen hiru hizkuntzetan oinarrituz. Izan ere, Rinnert eta Kobayashik (2016) azaldu bezala, ‘the study of multilingual writing involves comparison of writing by the same writers in more than one language’ (366. orr.). Bigarren ikerketarako, berriz, irizpide psikolinguistikoetan, influentziaren jatorri hizkuntzetan eta hitz-klaseetan oinarritutako errorearen taxonomia bat eraiki genuen.

Manchón (2016) ikerlariaren aburuz, testu idatzien ezaugarrietan oinarritutako ikerketa deskriptiboek, linguistikan eta psikolinguistikan ikerketa lerro garrantzitsua dira. Bere hitzetan, ‘descriptive studies on writers’ text features constitute important linguistically -and psycholinguistically- oriented lines of quantitative inquiry’ (525.orr.). Honela, neurri analitiko, holistiko eta hizkuntza artekoak erabiliz, idazketa eleaniztunean ematen diren hizkuntzen arteko harreman eta elkarreragina aztertu dugu tesi lan honetan.

3. KAPITULUA: HIZKUNTZEN ARTEKO ELKARRERAGINA

Alderdi teorikoaren hirugarren kapitulu honen bitartez, aztergai dugun hizkuntzen arteko elkarreragina aurkeztuko dugu. Lehendabizi, fenomeno honen definizio orokorra eta honen xehetasunak hirugarren hizkuntzan aurkeztuko ditugu (3.1 eta 3.2 atalak). Ondoren, aurreko hizkuntzek hirugarren hizkuntzaren sintaxi eta lexikoaren jabekuntzan zein moduetan eragiten dioten zehaztuko dugu proposatu diren ereduetan oinarrituz (3.2.1 atala). Jarraian, hizkuntzen arteko elkarreragin linguistikoaren nolakotasunak hizkuntza maila desberdinetan azalduko ditugu. Bereziki, elkarreragin ortografiko, morfologiko, lexiko, sintaktiko, diskurtsibo, pragmatiko eta soziolinguistikoak ezagutzeko asmoz (3.3 atala). Amaitzeko, hizkuntzen arteko elkarreraginean parte hartzen duten faktore nabarmenen errebisioan egingo dugu, bai eta ikerketen ekarpenak azaldu ere (3.4 atala). Zehazki, hizkuntz tipologiak, gaitasun-mailak eta 2. hizkuntzaren faktoreek duten eragina azalduz.

3.1. Definizioa

Hizkuntzen arteko elkarreragina fenomeno negatibo bailitzan ikusteko joera, hogeigarren mendearen amaierara arte iraun du. Fenomenoaren ulermen eskasak, hizkuntzen arteko elkarreragina, utzikeria edo buru argitasun faltaren sinonimo zirela pentsarazi zuten (Jarvis eta Pavlenko, 2008). Sinesmen hauei erronka egin zieten lehenengo lanak, 50eko hamarkadan argitaratu ziren, eta hizkuntzen arteko elkarreraginaren eztabaidari, maila akademiko bat eman zioten (Weinreich, 1953; Lado, 1957, adibidez).

Terminologiak ideologia azaleratzen duela pentsatuz eta, 80ko hamarkadara iritsita, ‘transfer’ terminoa desagoki ikusten hasi ziren ikerlariak agertuz joan

ziren. Beren ustetan, termino honek, gaitasun transferentzian eta tradizionalki, nozio konduktibistekin gorde zuen erlazioak azpimarratzen zituen (Odlin, 1989, 26. orr.). ‘Interference’ terminoak, era berean, antzeko interpretazio bat jaso zuen: konnotazio konduktibistak zituen artean, atentzioa emaitza negatiboetara zuzentzen zuela argudiatu baitzuten ikerlari batzuek (ikus Jarvis eta Pavlenko, 2008). Honela, Kellerman eta Sharwood Smith (1986) ikerlariak, gaur arte mantendu den ‘crosslinguistic influence’ terminoa proposatu zuten egokiagozat. Alabaina, badira termino hau desegoki ikusten duten ikerlariak. Cooken aburuz, adibidez, ‘crosslinguistic influence’ terminoak hizkuntza batek beste hizkuntza batean izan dezakeen elkarreagina adieraziko luke. Ez, ordea, integratua den hizkuntza-gaitasun baten existentzia, edo aurretik azaldu dugun ‘multi-competence’ (ikus Cook, 2002).

3.2. Hizkuntzen arteko elkarreagina hirugarren hizkuntzan

Hirugarren hizkuntzan ematen den hizkuntzen arteko elkarreagina hainbat berezko ezaugarri ditu. Cenozek (2013a, 75. orr.) azaldu bezala, hirugarren hizkuntza ikasleek hiru aspektu garatzen dituzte bereziki:

- Ikaste estrategiak. Alegia, hirugarren hizkuntza ikasleak esperientzia handiagoko ikasleak direla dakigu, bai eta bi hizkuntza-sistema ikastearen ondorioz, hizkuntza ikaste-estrategien jakituria zabalago bat dutela.
- Kontzientzia metalinguistiko zabalago bat. Hots, hirugarren hizkuntza ikasleek badutela bi hizkuntza ikastearen esperientzia eta bi sistema linguistikoen jakituria, eta honela hizkuntza modu abstraktuago batean (objektu gisa) pentsatzeko gaitasun garatuago bat dutela.

- Errepertorio linguistiko zabalago bat. Hain zuzen ere, hirugarren hizkuntza ikasleek hizkuntza gehiago dakizkiten heinean hauek errekurtsio gisa erabiltzeko aukera dutela.

Ikerlari asko dira hizkuntzen arteko elkarreragina hirugarren hizkuntza bat (edo gehiago) ikastearen trebetasun hauekin harremandu dutenak.

Ikaste estratēgiei dagokionez, adibidez, Müller-Lancek (2003) ekoizpen eta ulermen estratēgia eleaniztunak berezi eta aztertu zituen. Ekoizpen-estratēgiek, hiztegian zein testuinguruan oinarritutako estratēgiak zirela azaldu zuen, eta hizkuntzen arteko transferentziak barne hartzen zituztela. Ulermen-estratēgiak, aldiz, hitzen esanahia inferitzeko estratēgiak zirela azaldu zuen. Ikerlari honen emaitzen artean estratēgietatik harporrenak aurretiko hizkuntzak erabiltzen zituzten estratēgiak zirela erakutsi zuten eta, hauetan, lehen-hizkuntzak paper berezirik ez zuela azaldu.

Era berean, aurretiko hizkuntzen jakituria, arazo-ebazpen eta ikaste-estratēgia moduan erabiltzen direla ikusi da (Jessner, 1999), bai eta hizkuntzen arteko identifikazioak lexikoaren (Hall eta Ecke, 2003) zein gramatikaren jabekuntzarako erabiltzen direla (Rothman 2010, 2011). Honek guztiak, 3. hizkuntza ikasleek kontzientzia metalinguistiko zabalago bat izatea dakarrela azaldu da. Hots, hizkuntzaren inguruan modu abstraktu batean pentsatu ahal izatearen abilitate zabalago bat (Jessner, 2006, 42. orr.). Gainera, kontzientzia metalinguistikoa ikasitako hizkuntza kopuru eta lortutako hizkuntza-gaitasunarekin hazten dela azaldu da, eta honek hurrengo hizkuntzen jabekuntza errazten duela (ikus Aronin eta Singleton, 2012; De Angelis, 2007; Jessner, 1999, 2006). De Angelisek (2007) elebidun eta elebakarren abilitate metalinguistikoak aztertzen zituzten ikerketen errebisio zabal bat egin zuen. Honela, ikasle elebidun eta eleaniztunek, pertsona elebakarrak baino jabekuntza-estratēgia abaniko zabalago bat zutela

adierazi zuen eta, hainbat modutan, kontzientzia metalinguistikoari atxiki zion. Honela, ikasle elebidun eta eleaniztunek dakizkiten hizkuntzen sintaxi, morfologia eta lexikoaren inguruko kontzientzia garatuago bat dutela azaltzen duten ikerketak aurkitzen ditugu maiz (Fouser, 2001, adibidez). Kontzientzia metalinguistikoak, hortaz, hizkuntzen arteko antzekotasunak modu kontziente batean bilatu eta erabiltzea ahalbideratzen du, bai eta antzekotasun hauek ikaste-estrategia moduan erabiltzea (Otwindowska, 2016). Honek guztiak, eleaniztasunean ematen den hizkuntzen arteko eragina ulertzeko marko zabalago bat eskaintzen digu.

Amaitzeko, bigarren hizkuntzaren jabekuntzan hizkuntzen arteko elkarreraginaren aurrerako norabidea ($1H \rightarrow 2H$) eta atzerako norabidea ($2H \rightarrow 1H$) identifikatu badaitezke, hirugarren hizkuntzaren jabekuntzak beste hiru berezko norabide ditu. Lehena, alboko norabidea, tarteko-hizkuntza batetik beste tarteko-hizkuntza batera ematen den elkarreraginari egingo dio erreferentzia ($2H \rightarrow 3H/3H \rightarrow 4H$). Bigarrena, norabide bi edo anitzekoa, hizkuntza bikote bat eraginaren jatorri-hizkuntza eta xede-hizkuntza direnean ematen da ($1H \leftrightarrow 2H/2H \leftrightarrow 3H$). Azkenik, elkarreragin konbinatuak, aurretiko hizkuntzen aldibereko eragina xede-hizkuntzan adieraziko luke ($1H+2H \rightarrow 3H$). Norabide posible guzti hauen inguruan, De Angelisek (2007) eta Jarvis eta Pavlenkok (2008) hausnarketa sakonak egin zituzten haien monografietan. Gure tesi lanean lehen eta bigarren hizkuntzen eragina hirugarren hizkuntzan aztertzen dugunez, aurrerako ($1H \rightarrow 3H$), alboko ($2H \rightarrow 3H$) eta elkarreragin konbinatua ($1H+2H \rightarrow 3H$) aztertuko ditugu, bai eta kontzientzia metalinguistikoaren eta ikaste estrategien inguruko hausnarketak egingo ere.

3.2.1. Hirugarren hizkuntzaren jabekuntza ereduak

Ikusi dugunez, pertsona eleaniztunen hizkuntzak ko-existentzian eta interakzioan oinarritzen eta garatzen dira (ikus Cook, 2003, 2008; Herdina eta Jesser, 2002, adibidez). Horregatik, hizkuntza jabekuntza prozesuetan ematen diren harremanak aztertzea, eta jabekuntza prozesu hauetan eragiten duten faktoreen aurkezpena egitea ezinbestekoa zaigu.

3.2.1.1. Sintaxiaren jabekuntza

Bost dira hirugarren hizkuntzaren sintaxiaren jabekuntzarako egin diren proposamen teoriko aipagarrienak. Proposamen hauek, ‘L2 Status Factor Hypothesis’ (Bardel eta Falk, 2007; Falk eta Bardel, 2011), ‘Cumulative-Enhancement Model’ (CEM), ‘Typological Primacy Model’ (TPM), ‘Scalped Model’ eta ‘Linguistic Proximity Model’ (LPM) dira. Atal honetan, hauen aurkezpena egingo dugu, bai eta hauen arteko antzekotasun eta desberdintasunen aipamena ere.

L2 Status Factor Hypothesis (Bardel eta Falk 2007)

Bigarren hizkuntzaren estatusa (L2 status) lehen-hizkuntza saihesteko joera azaltzen du bigarren edo tarteko-hizkuntzen mesedetan (Hammarberg, 2001, 36-37 orr.) Bardel eta Falk (2007) ikerlariak, 2. hizkuntzaren estatusa 3. hizkuntzaren sintaxiaren jabekuntzara zabaldu zuten, eta 2. hizkuntzak transferentzien jatorri-hizkuntza gisa paper pribilegiatu bat zuela azaldu. Autore hauek, 2. hizkuntzak lehena blokea zezakeela defendatu zuten, nahiz eta erlazio tipologiko estu bat egon zitekeen lehen eta hirugarren hizkuntzen artean. Ikerleen hitzetan:

‘our data support the hypothesis that the L2 status factor is stronger than the typology factor in L3 acquisition: the typological proximity between L1 and L3 is not enough for the EN group to resort to L1 transfer [...] The results

from the present study shed new light on the issue of typology: in L3 acquisition, the L2 acts like a filter, making the L1 inaccessible' (Bardel eta Falk, 2007, 480. orr.)

Bost urte geroago, Bardel eta Falk (2012) ikerlariak Paradišen (2004, 2008) lanera jo zuten beren '2. hizkuntza faktore eredu' neurolinguistikoki justifikatzeko. Autoreek, Paradišen (2008) argumentazio berdina hartuz, 2. hizkuntzaren influentzia zehazteko, memoria prozedural edo deklaratiboaren arteko desberdintasunean oinarritu ziren:

'all late-learned languages (L2, L3, Ln) are sustained to a large extent by declarative memory. As such, they are more likely to manifest dynamic interference from one another than from the native language(s)' (Paradis 2008, 344. orr.)

Ikerlari hauen ustez, memoria prozedural eta deklaratiboaren arteko desberdintasun neurolinguistiko honek, hirugarren hizkuntzan ematen diren transferentzia patroi desberdinak azaldu litzakete. Adibidez, lehen eta bigarren hizkuntza eduki-hitzen transferentzien jatorri-hizkuntza izatea, eta 2. hizkuntza, aldiz, funtzio-hitzen transferentzietan jatorri-hizkuntza izatea (Bardel eta Falk 2012, 74 orr). Hau gertatzeko, funtzio-hitzek 2. zein 3. hizkuntzan 'hiztegi-estatusa' zutela azaldu zuen Paradišek (2009); ez, ostera, lehen-hizkuntzaren funtzio-hitzak. Honela, 2. hizkuntzatik lehen-hizkuntzatik baino sarriagotan transferitzen zirela 3. hizkuntzara azaldu zuten Bardel eta Falkek (2012, 74. orr.)

Beste ikerketa batzuen artean, 2. hizkuntzaren estatusaren faktore ereduaren aurkako ebidentziak, Rebecca Dahm (2015) ikerlariak aurkeztu zituen berriki. Ikerketa honetan, adibidez, pertzibatutako antzekotasun tipologikoa azaldu zen hizkuntzen arteko elkarreraginaren faktorerik nabarientzat.

Emaitzek, hala, antzekotasun tipologikorik ez zegoen arren, lehen-hizkuntzak zuela paper garrantzitsuena elkarreragin-lexikoetan erakutsi zuten. Ez, ordea, eredu honek iradoki bezala, bigarren hizkuntzak.

Cumulative-Enhancement Model (Flynn, Foley eta Vinnitskaya, 2004)

Cumulative-Enhancement Model (CEM) eredu, hizkuntza jabekuntza naturalki metagarria denaren ideian oinarritzen. Zehazki, hiztunek aurretik dakizkiten hizkuntza guztiek eragin potentzial bat dutela ondorengo hizkuntzen jabekuntzan. Horregatik, lehen-hizkuntzaren pribilegioa zalantzan jarri, eta 3. hizkuntzaren jabekuntzan hizkuntza sistema guztiek paper lagungarri bat izan zezaketela defendatu zuten ikerlari hauek (Flynn, Foley, eta Vinnitskaya, 2004, 5. orr.).

Flynn eta beste ikerlariak (2004) bideratutako ikerketaren abiapuntua pertsona eleaniztun baten lehen-hizkuntzak 3. hizkuntzaren jabekuntzan pribilegiozko paper bat zeukan (edo ez) aztertzea izan zen. Hori dela eta, hizkuntzen arteko elkarreraginaren norabidean jarri zuten interesa. Flynn eta beste ikerlariak (2004), 3. hizkuntza ingelesaren hiru menpeko perpaus aztertu zituzten lehen-hizkuntza kazakhera eta bigarren hizkuntza errusiera zuten ume zein helduekin. Emaitzek, estruktura sintaktiko hauen jabekuntzan lehen-hizkuntzak pribilegiozko paperik ez zuela erakutsi zuten, eta autoreek beren ereduaren aldeko emaitzak zirela azaldu zuten.

Nahiz eta autoreen iritziz hizkuntza jakituria metagarria izan, jakituria hau ez zela errepikakorra defendatu zuten (Flynn eta beste 2004, 14. orr.). Ikerle hauen aburuz, hizkuntza jabekuntza prozesu kolektibo bat zen eta, buruak errepikapena saihesten zuen artean, jabekuntza prozesua nahitaez erredundantziarik gabekoa behar zuela izan defendatu zuten. Honela, eredu

honek, lagungarria (gehigarria) ez den edozein transferentzia neutralizatzen zela zehazten zuen.

Hirugarren hizkuntzaren jabekuntzan, transferentziak hizkuntza bakar batera atxiki ezin direla erakusten duten lanak asko diren artean, modu horretan eredu hau balioesten dutela esan dezakegu. Aipatzekoa, Berkes eta Flynnen (2012) lana. Ikerle hauek, beren ikerketaren partaideak bi taldetan sailkatu zituzten. Lehen taldeko partaideek, lehen-hizkuntza alemana eta bigarren hizkuntza ingelesa zuten. Bigarren taldeko partaideek, aldiz, lehen-hizkuntza hungariera, bigarren hizkuntza alemana eta hirugarren hizkuntza ingelesa zutelarik. Emaitzek, bigarren taldeak lehen taldeak baino errore gutxiago egiten zituztela azaldu zuten; hirugarren hizkuntzaren jabekuntzak subjektu/objektu errorean kopurua murrizten zuela, alegia. Honela, ikasitako azken hizkuntzak eragin negatiborik ez zeukala eta, izatekotan, positiboak zirela azaldu zuten. Emaitza hauek, CEM ereduaren baliagarritasuna probatzen zutela azaldu zuten autoreek.

Eredu honek jasotako kritiken artean, Rothmanek (2015), lagungarria (edo gehigarria) ez ziren transferentziak neutralizatu beharrak, prozesu kognitiboenganako zama areagotuko lukeela adierazi zuen. Ikerlearen hitzetan:

‘having to avoid non-facilitative transfer *a priori* would place an unrealistic burden on limited cognitive resources during the course of forming the emerging L3/Ln system. At a minimum, it implies that the learner would have to have enough experience with the L3/Ln on a property-by property basis to determine what could, for each domain, be non-facilitative.’ (Rothman 2015, 183. orr.)

Typological Primacy Model (Rothman, 2010, 2011)

2010. urtean ezarri zituen Rothman ikerlariak Typological Primacy Model (TPM) ereduaren oinarriak eta, pixkanaka, eredu honen nondik-norakoak zehaztu zituen (ikus Rothman 2011, 2013, 2015).

Lehen ikerketan, Rothmanek (2010) 3. hizkuntza portugesez brasildarraren jabekuntza patroiak aztertu zituen bi talde alderatuz. Lehenak, lehen-hizkuntza ingelesa eta bigarren hizkuntza gaztelera zuten ikasleek osatzen zuten. Bigarrena, aldiz, lehen-hizkuntza gaztelera eta bigarren hizkuntza ingelesa zuten ikasleek osatzen zutelarik. Honela, hitzen ordena aztertu zuen aditz trantsitibo eta ez-trantsitiboetan. Emaitzek, gaztelera zela transferentzien jatorri-hizkuntza erakutsi zuten. Zehazki, estrukturen antzekotasuna zela jatorri-hizkuntzaren aukeraketan faktorerik erabakigarriena. Hori medio, Rothmanek (2010, 2011) 3. hizkuntzaren jabekuntzaren hasierako etapetan ematen den transferentzia, hizkuntza konbinazio horretan ematen den konparaketa tipologiko baten bitartez ematen zela argudiatu zuen.

Hiru urte geroago, Rothmanek (2013) transferentzien jatorri-hizkuntzaren inguruko mugak azaldu zituen. Honela, 3. hizkuntzaren jabekuntzaren hasierako etapetan, ikasleek antzekotasun tipologikoetan oinarritutako ebaluazio bat gauzatzen zutela argudiatu zuen. Ebaluazio horretan, antzekotasun tipologikoak aztertzen ziren, eta horietan oinarrituz lehen edo bigarren hizkuntza aukeratzen zen transferentzien jatorri-hizkuntza gisa. Autoreak, ebaluazio honetan aukeratutako hizkuntza sistema osoaren transferentzia egiten zela azaldu zuen (Rothman 2013, 239. orr.).

Transferentzia prozesu hau holistikoki gauzatzearen arrazoia (hizkuntza-sistema osoa transferitzearena), hizkuntza jabekuntzan estrategia efektiboena

zenaren ideari atxiki zion. Gainera, hizkuntzen antzekotasun tipologikoaren ebaluazioan eragina zuten ezaugarriak, hierarkikoki azaldu zituen. Nabarienetik eragin murriztuago bat zutenera: lexikoa, ezaugarri fonologiko/fonotaktikoak, morfologia funtzional eta estruktura sintaktikoak zeudelarik.

Scalped Model (Slabakova, 2016)

Rothmanen (2010) ereduari kritika egin dioten lanen artean, Slabakova (2016) ikerlariak oraintsu argitaratutako ‘Scalped Model’ ereduak daukagu. Eredu honetan, lehen edo bigarren hizkuntzaren transferentzia propietatez-propietate gauzatuko litzateke eta ez, Rothmanek (2013) adierazi bezala, holistikoki. Ikerlariaren hitzetan:

‘the scalpel metaphor reflects a proposal opposed to the TPM’s wholesale transfer idea. I argue that the grammars already acquired act with a scalpel-like precision to extract the L1 or L2 options relevant to the acquisition task at hand. Therefore, transfer is selective and works property-by-property’ (Slabakova 2016, 6-7 orr.)

Slabakovak (2016) proposaturiko ‘Scalped Model’ ereduak, honela, CEM eta TPM ereduetatik hainbat propietate jaso zituen, beste batzuk baztertu zituen artean. CEM eredutik, lehen hizkuntzak paper pribilegiaturik ez duenaren ideia jaso zuen 3. hizkuntzaren jabekuntzan emango diren transferentzietan. Aldiz eta CEM eredutik desberdinduz, transferentzia horiek lagungarriak edo neutralak soilik izan daitezkeela proposatu beharrean, kaltegarriak (‘detrimental’) izan daitezkeela azalduko du Slabakoval (2016, 6. orr.). Hau argudiatzeko, transferentzia kaltegarriak atzeman zituzten ikerketa azaldu zituen autoreak (Slabakova eta Garcia Mayo, 2015, adibidez).

Bestalde, TPM eredutik desberdinduz, 3. hizkuntzaren jabekuntzaren hasierako etapan gertatutako transferentzia hizkuntza-sistema osoarena ez dela defendatu zuen Slabakovak. Esan bezala, Rothmanek transferentzia prozesu hau holistikoki gauzatzearen arrazoia (hizkuntza-sistema osoa transferitzearena), hizkuntza jabekuntzan estrategia efektiboena zenaren ideari atxiki zion. Slabakovak, aldiz, transferentzia hizkuntza-sistema osoarena ez dela erakutsiko zuten ikerketak azaldu zituen (Bruhn de Garavito and Perpiñán, 2014, adibidez), eta propietatez-propietateko transferentzia defendatu zuen.

Labur, hortaz, ‘Scalped Model’ ereduak 3. hizkuntzaren jabekuntzan propietatez-propietate gertazten dela proposatuko du (CEM eta ondorengo atalean ikusiko dugun LPM ereduaren moduan), bai eta transferentzia guztiak lagungarriak izan behar ez dutela defendatuko (TPM eta LPM ereduekin bat eginez).

The Linguistic Proximity Model (Westergaard, Mitrofanova, Mykhaylyk eta Rodina, 2016)

Westergaard, Mitrofanova, Mykhaylyk eta Rodina (2016) ikerlariak CEM eta TPM ereduaren iradokizunak enpirikoki aztertu eta alderatu zituzten 110 ikasleetan. Parte-hartzaileak, 22 noruegiar-errusiar elebidun, 46 noruegiar elebakar eta 31 errusiar elebakar izan ziren. Horretarako, parte-hartzaile hauen judizio gramatikalak bi kondizioetan alderatu zituzten: adberbioak zituzten deklaratioetan eta auxiliarrak zituzten galderetan. Izan ere, CEM, TPM eta LPM ereduak kondizio hauekiko iradokizun desberdinak proposatuko lituzke transferentzia lagungarri/kaltegarrien inguruan (ikus Westergaard eta beste, 2016, 8.orr.).

Emaitzek, errusiarrak paper lagungarri bat bete zuela erakutsi zuten ingelesaren (3H) ekoizpenean. Errusiarrak ingelesa eta noruegierarekiko harreman tipologikorik ez duen artean, ikerle hauek hizkuntzen arteko elkarreragina ez soilik tipologikoki baina antzekotasun estruktural abstraktueta oinarritzen zela defendatu zuten hau bera izanik LPM ereduaren desberdintasun nagusia eta honen proposamena. Ikerleon hitzetan: ‘our findings indicate that not just typological proximity but also structural similarity at an abstract level should be considered an important factor in L3A’ (13.orr.).

LPM ereduak, hortaz, aurretiko hizkuntza guztiek (1H/2H) 3. hizkuntzaren jabekuntzan parte hartzen zutela proposatzen zuen (CEM, TPM eta Scalped Model ereduak bezala), hizkuntzen arteko elkarreragina bai langungarria zein kaltegarria izan zitekeela (TPM eta Scalped Model ereduak bezala), propietatez-propietate gertatzen zela (Scalped Model ereduak bezala) eta tipologian ez ezik estrukturen antzekotasun abstraktuagoetan oinarritzen zela. Gainera, elkarreragin lagungarriak antzekotasun estrukturetan oinarritzen zirela zehaztu zuten. Elkarreragin kaltegarriak, aldiz, 3. hizkuntza ikasleak 3. hizkuntza oker aztertu eta propietate hori aurretiko hizkuntzen propietate batekin nahasten zutenean gertatzen zela (Westergaard eta beste, 2016, 6.orr.).

3.2.1.2. Lexikoaren jabekuntza

Hizkuntzen arteko elkarreragina maila lexikoan azaltzen lagungarri den eredurik aipagarriena Hall eta Ecke (2003) ikerlariak garatutako ‘The Parasitic Model’ ereduak litzateke. Horregatik, ondorengo atalean honen aurkezpena egin nahi izan dugu.

The Parasitic Model (Hall eta Ecke, 2003)

Hall eta Ecke (2003) ikerlarien proposamena, aurretiko jakitua lexikoaren arteko antzekotasunen esplotazioan oinarritzen zen. Honela, ikerle hauek hirugarren hizkuntzan ikasitako hitzak aurretiko hizkuntzen formekin antzekotasun gehiago zuten hitzekin lotzen zituztela azaldu zuten. Era honetan, harreman hauek Weinreichen (1953) 'subordinate structure' edo menpeko estrukturaren ideia islatuko lukeelarik (ikus Singleton, 2003, 175. orr.) Ikerle hauek, azpi-atalez osatutako hiru etapatan banatu zuten prozesua, eta etapa hauek ondorengoak dira:

Hasteko, hirugarren hizkuntzaren hitzek errepresentazio formal bat bilatuko dute. Bilaketa honetan 3H, 2H edo 1Hren errepresentazioak aktibatuko lirateke eta, antzekotasunik egotekotan, ordezeko errepresentazio hauetara egokituko lirateke ('host representations' deitu zituztenak). Etapa honetan, hirugarren hizkuntzaren hitzen eta errepresentazio horien arteko desberdintasunak antzemango lirateke eta, egokitzapen formalik gertatu ezean, hirugarren hizkuntzaren hitza gertuen duen baliokide kontzeptualaren markora egokituko litzateke.

Bigarren etapan, formalki erlazioa duen ordezeko hitzaren markoa 3Hren hitzaren formaren hedapenerako erabiliko litzateke. Izan ere, ordezeko errepresentazioa berreskuratua egongo litzateke hitz honen testuinguruaren xehetasunak konfirmatzen diren bitartean. Testuinguruak marko honen balia konfirmatuko ez balu, beste baliokide kontzeptual bat bilatuko luke 1H edo 2Han. Edo, baliokide kontzeptualik aurkitu ezean, marko probisional bat eraikiko litzateke (gako morfologikoetan oinarrituta), eta errepresentazio kontzeptualera konektatuko litzateke zuzenean.

Hirugarren etapan, hasieran egokitutako 1H, 2H eta 3Hren konexioak errebisatuko lirateke hiru mailetan (forma-marko-kontzeptu) hauen arteko konexio autonomoak bilatuz. Etapa honetan, konexio hauek indartuko lirateke, eta esposizio frekuentziaren arabera berriz definituko. Azkenik, 3Hren hiru mailetako konexio hauen arteko eskuragarritasun bideak automatizatuko lirateke 3H hitzaren jabekuntza gauzatuz.

Gure bigarren ikerketan hizkuntzen arteko elkarreragina maila lexikoan aztertu dugunez, eredu hau gure testuingurura ekarri nahi izan dugu 3H-ikasleek ingelesaren lexikoaren jabekuntzan izan dituzten aukera desberdinak azaltzeko Hall eta Ecke (2003) ikerlarien ereduaren arabera. Horretarako, ondorengo bi eszena posibleak proposatu nahi izan ditugu Hall eta Ecke (2003) ikerlarien ereduaren gure testuingurura gerturatzeko asmoz:

Euskara eta gaztelera dakien ikasle batek ingelesezko (3H) ‘constipate’ hitza ikasterako orduan, bi etapa gauzatuko litzake. Lehen etapan, ikasleak erdarazko ‘constipado’ hitzarekin erlazionatu lezake. Bigarren etapan, erdarazko ‘constipado’ hitzaren testuinguruari erreparatu eta balio ez lukeela ikusiko luke (ingelesezko ‘constipate’ hitzak erdaraz ‘estreñido’ eta ez ‘constipado’ esan nahi duen artean). Hala, beste baliokide kontzeptual bat bilatuko luke euskaraz, adibidez. Aurkitu ezean, marko probisional hori mantendu lezake (gako morfologikoetan eraikita dagoen heinean). Halaber, forma-marko-kontzeptuen arteko konexio baliagarririk gertatu ez denez (konexioa formala soilik denez), beste ikaste modu bat bilatu beharko luke ikasleak ‘constipate’ hitzaz jabetzeko.

Bestalde, ikasle berdinak ingelesezko ‘anthropology’ hitza ikasi nahiko balu, 1H euskara eta 2H erdarazko ‘antropologia’ hitzarekin erlazionatuko luke. Bigarren etapan, erdaraz eta euskarazko ‘antropologia’ hitzaren marko kontzeptualarekin erlazionatuko. Eta azkenik, hirugarren etapan,

antzekotasun formal eta kontzeptual horiek konparatuko lituzke eta, baliagarriak zaizkion heinean, ‘anthropology’ hitzaren forma eta esanahiaz jabetuko litzateke, erabilerarekin forma-marko-kontzeptuen erlazioak indartuz eta automatizatuz.

Cenozek (2003a) azaldu bezala, mekanismo honek jabekuntzaren hasierako etapetan transferitutako item kantitate altuak azaldu litzake, eta konpatiblea litzateke Clyne (1997) eta Dewaele (1998) aurkitutako ikasleen errepertorio linguistiko osoaren erabilerarekin.

Laburpena

Atal honetan azaldutakoa laburbilduz, hortaz, ondorengo esan dezakegu. Hasteko, 3. hizkuntzaren jabekuntzan aurretiko hizkuntzek duten papera luze aztertu dela. Honela, lehen hizkuntzak (1H) elkarreragin lagungarria zein kaltegarria izan daitekeela azaltzen duten ikerketak aurkitzen ditugu (Hermas, 2014; Jin, 2009, adibidez) bai eta bigarren hizkuntzak paper pribilegiatu bat duela azaltzen dutenak (ikus Bardel eta Falk, 2007, 2011) eta ukatzen dutenak (Dahm, 2015, adibidez).

Hirugarren hizkuntzaren (3H) jabekuntzan eleaniztunek dakizkiten hizkuntza guztiek parte hartu zezaketela iradokitzen duten bost proposamen teoriko aipagarrienak azaldu ditugu, bai eta hauen arteko desberdintasunak elkarreragin lagungarri/kaltegarrien inguruan, bai eta hizkuntzen arteko elkarreragina propietatez-propietate edo holistikoki gertatzen denaren inguruan.

TPM ereduan (Rothman 2010, 2011) hizkuntzen arteko elkarreragina faktore psikotipologikoek zehaztuko zuten. CEM ereduan (Flynn eta beste, 2004), aldiz, hizkuntzen jabekuntza metagarria litzateke eta transferentziak erredundateak izan ezin direla azaldu zuten autoreek. Honela ‘facilitative

transfer' edo transferentzia lagungarriak soilik iradoki zituen CEM ereduak. Aldiz, TPM, Scalped Model, LPM eta Parasitic Model ereduak transferentzia ez-lagungarriak ere posibletzat planteatu zituzten. Gainera, Slabakovak (2016) eta Westergaard eta beste (2016) ikerlariak 3. hizkuntzaren jabeakunza propietatez-propietate gauzaten zela defendatu zuten, eta ez TPM ereduak iradoki bezala holistikoki.

3.3. Hizkuntzen arteko elkarreraginaren mailak

Hizkuntzen arteko elkarreragina hizkuntzaren maila desberdinetan gertatzen da. Hizkuntzen arteko elkarreragin lexikoek, hizkuntzen unitate txikienetik (morfemetatik) zabalenera (hitz osoetara) ematen diren elkarreraginei egiten diote erreferentzia. Horien artean, ikerketa honi dagozkion eta, idazketan ematen diren, eragin ortografiko, morfologiko eta lexikoak deitu zaienak aurkitzen ditugu. Halaber, hizkuntzen arteko elkarreragina beste maila eta modu oso diferentetan ematen dela azaldu da (ikus Jarvis & Pavlenko, 2008). Horregatik, atal honetan ere elkarreragin sintaktikoak, diskurtsiboak, pragmatikoak eta soziolinguistikoak azaldu nahi izan ditugu labur. Izan ere, idatzizko hizkuntzan maiz ematen diren elkarreraginak dira eta, nahiz eta gure ikerketan zuzenean aztertu ez, honen ebidentziak ere aurkitu ditugu. Adibidez, hizkuntzen arteko elkarreragin sintaktikoarena.

3.3.1. Elkarreragin ortografikoak

Hizkuntzen arteko elkarreragin ortografikoak diogunean, hizkuntza idazketa sistemen artean gertatzen diren elkarreraginari egiten diogu erreferentzia. Idazketa sistemak zer diren zehazteko, definizio hau argigarria dela uste dugu:

‘Writing systems represent the flow of spoken language as a sequence of distinct linguistic units with clear boundaries. For instance, while phonemes

overlap in speech (Lively eta beste, 1994), they are represented as discrete units (letters) in alphabetic writing systems' (Bassetti, 2005, 226. orr).

Jarvis eta Pavlenkok (2008) idazketa sistemen elkarreraginean erreparatuz, bi elkarreragin-mota desberdindu zituzten:

- Fonologiak duen eragina ortografian.
- Ortografiak duen eragina fonologian.

Ortografiari dagokionez, hizkuntzen arteko elkarreragina esparru honetan oso zabala dela azaldu da. Aurkikuntzarik garrantzitsuena, agian, 1H-testuinguru ezberdinetako hiztunek errore ortografiko ezberdinak ekoizten dituztenarena izan liteke (ikus Harding, 2000).

Xede-hizkuntzan egin daitezkeen errore motak asko dira, noski, eta potentzialki guztiek izan ditzakete zergaiti aunitz. Xede-hizkuntzan (2. edo 3. hizkuntzan, adibidez) ematen diren errore mota desberdinen hainbat zergaiti identifikatu dituzte ikerketa desberdinek. Adibidez, abiadura edo axolagabekeriak eragindako erroreak (Kung, 2004), 2. hizkuntza arauen gehiegizko orokortzeak eragindakoak (Van Berkel, 2004) edo homofonoen nahasteak eragindakoak (Harding, 2000), besteak beste.

Gauzak horrela, badira errore batzuk lehen (edo beste aurretiko) hizkuntzen influentziari atxiki dakizkiokeenak. Hardingek (2000), adibidez, gaztelera lehen hizkuntza moduan zuten ingeles ikasleek /b/ eta /v/ soinuek parte hartzen zuten errore kantitate nabari bat ekoizten zutela antzeman zuen. Gaztelerak /b/ eta /v/ soinuen arteko desberdintzerik egiten ez duen artean, ikasle hauek {b} eta {v} letren arteko desberdintzerik egiten ez zutela 1Hri atziki zion. Era berean, finera hiztunek {w} eta {v} trukean erabiltzen zituztela antzeman zuen. Izan ere, fineraz /w/ eta /v/ soinuak ohikotasunez ordezkatzen dira. Bukatzeko, txinera hiztunek /v/ fonema {f}, {l}, {th}, {s}

eta {w} letren bitartez adierazten zutela antzeman zuen. Izan ere, txineraz /v/ fonema ez da existitzen. Beraz, 1H-testuinguru desberdinek errore ortografiko desberdinak errazten dituztela adierazi zuen.

Elkarreragin ortografikoen funtzio lagungarri bat ere izan dezaketela frogatu da. Van Berkelek (2004), adibidez, hiztun alemanek alemanaren soinu-sinboloen korrespondentzia errespetatzen zuten ingeles hitzak ekoizteko arazo gutxiagoa zituztela antzeman zuen. Honela, alemanaren (1Hren) soinu-sinboloen korrespondentzia ingelesaren ekoizpenerako lagungarria zela frogatu zuen. Korrespondentzia honen adibide bat, ondorengoia izan liteke. Adibidez, 'pit' hitz aleman bat izango balitz, ingelesezko 'pit' hitza bezala idatziko zen ahozkatzen den modua kontutan hartuz.

Hizkuntzen arteko elkarreragina aztertu duten ikerketa gehienek lehen hizkuntzaren (1H) eragina 2. hizkuntzaren ortografian aztertu dute (ikus Jarvis eta Pavlenko, 2008, 72.orr.). Beraz, hizkuntzen arteko elkarreragina aurretiko norabidean aztertu dutela esan dezakegu. Honela, alboko zein atzerako norabidea aztertzen duten ikerketak aurrera eramatea beharrezkotzat jotzen duten autoreak aurkitzen ditugu. Cook eta Bassettik (2005), adibidez, hizkuntzen arteko atzerako elkarreraginen inguruan luze hausnartu zuten. Aurretik azaldutako Multi-Competence (Cook, 1991) nozioan oinarrituz, pertsona eleaniztunen idazketa sistemak ko-existentzian oinarritutako sistema bateratu bat osatzen dutela defendatu zuten. Autore hauek erabilitako terminologia erabiliz, 2. hizkuntzaren idazketa sistemen erabiltzaile batek, modu kontzientean edo inkontzienteki aurretik ikasitako prozesu eta estrategiak erabiltzen zituen beste hizkuntza baten idazketan (Cook eta Bassetti, 2005, 46.orr.). Honela, 2.hizkuntzaren idazketa sistemak lehen hizkuntzaren (1H) idazketa sisteman eragina zuela azaldu zuten edo atzerako elkarreragina. Gainera, prozesu eta estrategia hauek erabiltzaile

elebakerren estrategietatik desberdindu zituzten hau bera frogatzen zuten ikerketen analisia eginez (Chiriti eta Willows, 1997, bestean artean).

3.3.2. Elkarreragin morfologikoak

Frost eta Grainger (2000) azaldu bezala, hizkuntza bakoitzak bere berezko ezaugarri morfologikoak ditu. Hala, hizkuntza batzuk monomorfemikoak dira (txinera, adibidez), eta beste batzuk morfema-anitzekoak direla dakigu (ingeleza, euskara edo gaztelera, adibidez). Horregatik, hizkuntzen arteko elkarreragina aztertzerako orduan, aztertutako hizkuntzen morfologietan eta hauetan ematen den elkarreraginari erreparatuko diogu soilik. Jasotako emaitzak, bestelako morfologia duten hizkuntzetara modu erraz batean transferi ezin direla jakinda.

Hizkuntzen arteko elkarreragina maila morfologikoan aztertzeak, ikerketa honen bi elkarreragin-motetako bat hobeto ulertzen lagunduko digu. Zehatzago, moldatutako maileguen kategoriaren azaldutako hizkuntzen arteko elkarreragina ulertzeko izango zaigu lagungarri. Moldatutako maileguak, aurretiko hizkuntza baten erroa (1H/2H) eta erro horri erantsitako eta xede-hizkuntzaren (3H) arau gramatikaletara moldatutako morfema azalduko ditu gehienetan. Adibidez, ‘alquiled’ hitza elkarreragin morfologiko bat erakusten duela diogunean, gaztelararen ‘alquilar’ aditzaren erroa hartu, eta ingelesaren (3H) arau gramatikaletara moldatu duelako da. Zehazki, ingelesez ‘-ar’ atxizkia existitzen ez den morfema den artean, kendu egin diolako ikasleak eta ingelesez behar duen ‘-ed’ atxizkia gehitu diolako, hain zuzen ere. Honela, moldatutako maileguak, hizkuntza batean zein bestean existitzen ez diren hitzak dira eta asmakizun hauek, aldi berean, morfemen moldaketan bitartez eraikiak direla dakigu.

Ondorengo paragrafoetan, prozesamendu morfologiko-motak eta eleaniztasunean ematen den hizkuntzen arteko elkarreragin morfologikoan eragina duen kontzientziari erreparatuko diogu, bai eta egindako ikerketen ekarpena aurkeztuko ere.

Prozesamendu morfologiko-motak

Prozesamendu morfologikoa aztertu duten ikerketek, bi prozesamendu-mota desberdindu dituzte. Alde batetik, prozesamendu morfo-ortografikoa. Bestetik, prozesamendu morfo-semantikoa (Frost, Grainger eta Carreiras, 2008, 935. orr.). Bestera esanda, morfemen formen bidezko prozesamendu hutsa, eta morfema horien esanahia kontutan hartuz egindako prozesamendua.

Longtin, Segui, and Halle (2003) eta Rastle, Davis and New (2004) ikerlariek, adibidez, geroago deituko zitzaion ‘corner-corn’ efektua hauteman zuten. Efektu hau, maila morfo-ortografikoari legokio. Izan ere, efektu honek hiztun ingelesek morfologikoki azpi-konplexua zen ‘corner’ terminoa ‘corn-‘ eta ‘-er’ atxizkian deskonposatzen zutela azaldu zuten. Deskonposatze honek oinarri semantikorik ez zuen artean, prozesatze morfo-ortografikoari atxiki zioten.

Esanahi eta morfemen arteko erlazioa aztertu duten lanen artean, badira erlazio hau ezinbesteko ikusten duten ikerketak (Plaut eta Gonnerman, 2000; Rueckl eta Raveh, 1999). Ikerle hauen ustetan, ‘-er’ atxizikia unitate azpi-linguitiko moduan eraikiko lukeena, honen korrespondentzia litzateke errepresentatzen duen esanahiarekiko. Honela, morfemen esanahiak hitzen errekonozimendua errazten duela azalduko zuten. Alegia, ‘darker-dark’ hitz bikotean errazago gertatzen dela errekonozimendua ‘corner-corn’ hitz bikotean baino, ‘darker-dark’ hitz bikotearen ‘-er’ atxizkiak duen esanahia

dela medio. Honela, Rastle eta beste (2004) ikerlariek, prozesamendu morfo-ortografiko eta morfo-semantikoaren arteko desberdinketaren garrantzia azpimarratu zuten.

Hizkuntzen artean ematen den elkarreragin morfoloikoa aztertu duten lanek, bi prozesamendu mota hauek desberdindu dituzte. Honela, hizkuntzen arteko elkarreragin morfoloikoa formala eta semantikoa dela adierazi ohi da (ikus Jarvis eta Pavlenko, 2008, 75-82 orr.)

Kontzientzia morfoloikoa

Weinreichen (1953) aburuz, bi hizkuntzen artean ematen den identifikazio eta transferentzia morfoloikoa honela defini zitekeen:

‘If the bilingual identifies a morpheme or grammatical category of language A with one in language B, he may apply to B form in grammatical functions which he derives from the system A. What leads the bilingual to establish the interlingual equivalence of the morphemes or categories is either their formal similarity or a similarity in preexisting functions’ (1953, 39. orr.)

Modu honetan, Weinreich (1953) hizkuntzen arteko transferigarritasuna maila morfoloikoan eman ahal izateko, kategoria hauen kontzientzia (identifikatu ahal izatea) beharrezkotzat jotzen zuen.

Kontzientzia metalinguistikoak hizkuntza-sistema osoei egiten bazion erreferentzia, kontzientzia morfoloikoak (MA), maila morfoloikoarekiko kontzientzia azalduko du. Oz (2014) ikerlariak, kontzientzia morfoloikoa honela definitu zuen:

‘(MA) means the explicit knowledge of the smallest meaningful units of language, including derivational (e.g., *-er/-or*, *-tion*, *un-*, *re-*) morphemes (i.e., suffixes and prefixes) and inflectional (e.g., *-ed*, *-s*, *-ing*, *-est*) markers

(i.e., suffixes) [...] students with MA are able to identify the smallest meaningful units of language such as free and bound morphemes as well as inflectional and derivational markers' (Oz, 2014, 99-100 orr.)

Weinreich (1953) kontzientzia hau esplizitua edo inplizitua izan behar zuten zehaztu ez arren, kontzientzia morfologikoa ikertu duten lanek, kontzientzia morfologikoaren garapenak hiztegiaren jabekuntzarekin (Kieffer eta Lesaux, 2012), bai eta jaroitasunarekin (Kieffer eta DiFelice, 2013) erlazio positibo estu bat dutela azaltzen dute, bai eta hizkuntza-jabekuntza prozesuak modu orokor batean errazten dituela (Ringbom, 2007, 70. orr.). Bestalde, kontzientzia morfologikoa hizkuntza batetik bestera transferitzen dela azaldu da (Deacon, Wade-Woolley, eta Kirby, 2007; Kieffer eta Lesaux, 2008; Ramirez, Chen, eta Pasquarella, 2013), bai eta hizkuntzen arteko transferentziak morfologia aske zein lotuetan ematen direla (Jarvis eta Odlin, 2000, adibidez).

Ezaugarri morfologikoak hizkuntza batetik bestera transferi daitezkeenaren inguruan, Jarvis eta Odlinek (2000) bideratutako ikerketa aipatzekoa da. Izan ere, transferitzen zaila zela sarri argudiatu den morfologia-mota ere transferitzen zela azaldu zuten. Zehazki, morfologia lotua hizkuntza batetik bestera transferi zitekeela hauteman zuten. Horretarako, 140 fines eta 70 suediar ingeles ikasleen ekoizpena aztertu zuten. Emaitzek, lehen-hizkuntza fineraren morfologia lotu eta aglutinatiboa eta lehen-hizkuntza suedierren morfologia askea, 2. hizkuntza ingelesaren erreferentzia espazialak egiteko transferitzen zela erakutsi zuten. Gainera, finera eta suedieraren arteko desberdintasun semantiko eta estrukturalak, transferigarritasunean patroi desberdinak azaltzen zituztela adierazi zuten.

Labur, orduan, hizkuntzen arteko elkarreragin morfologikoei dagokionez, ondorengo esan dezakegu:

- Hizkuntzen arteko identifikazio morfologikoek, hizkuntzen arteko elkarreragin morfologiko formala eta funtzionala ahalbideratzen dute (Weinreich, 1953).
- Kontzientzia morfologikoak, hizkuntzen arteko identifikazio morfologikoak ahalbideratzen ditu (Oz, 2014).
- Kontzientzia morfologikoaren garapenak, hiztegiaren jabekuntza errazten du (Kieffer eta Lesaux, 2012)
- Kontzientzia morfologikoa, hizkuntza batetik bestera transferitzen da (Deacon, Wade-Woolley eta Kirby, 2007; Ramirez, Chen eta Pasquarella, 2013)
- Aurretiko hizkuntzen morfologia lotu zein askea transferigarriak dira (Jarvis eta Odlin, 2000)


3.3.3. Elkarreragin lexikoak

Hizkuntzen arteko elkarreragin lexikoa diogunean, hizkuntza batean dugun hitzen jakituriak beste hizkuntza baten hitzen jakiturian edo erabileran duen eraginari egiten diogu erreferentzia (Jarvis eta Pavlenko, 2008, 72. orr.) Baina, zer diogu hitz bat dakigula diogunean?

Ringbomen (1987) iritziz, hitz baten jakituria zehazten duten sei dimentsio zueden. Hauek, eskuragarritasuna, morfologia, sintaxia, semantika, kolokazioa (hitza agertu ohi diren konbinaketak), eta asoziazioa (hitzak beste hitzekiko izan ohi dituen asoziazioak) ziren. Hala, ikerle honek hitz bat jakiteak sei dimentsio hauetako bat baino gehiagotan nolabaiteko jakituria izatea inplikaten zuela azaldu zuen (1987, 37. orr.). Honen argitan, ekoizpenean ematen diren hizkuntzen arteko elkarreragin lexikoek forma

anitzak hartzen dituztela imagina dezakegu. Izan ere, hizkuntzen arteko elkarreraginaren adibide den hitz bakoitzak dimentsio bat edo bestearekiko eragina adierazi lezake. Elkarreragin lexikoak eta konbinazio posible hauek sailkatzeko asmoz, Ringbomek (1987) forma eta esanahiaren arteko continuuma diseinatu zituen. Mugako bi eragin-faktore hauen artean (forma eta esanahia), erdibideko konbinazio posibleak aurkeztuko ditugu atal honetan bere lanean oinarrituz. Sailkapen honetan, ‘transferentzia lexikoen’ kategoriak esanahiaren eragin nabarmenago bat islatzen duela azalduko dugu, eta ‘maileguen’ kategoriak, aldiz, formaren eragin nabariago bat. Tesi lan honetan elkarreragin formalak aztergai ditugun artean, ‘maileguen’ kategorian aurkitzen ditugun moldatutako edo moldatu gabeko maileguak azalduko ditugu. Atala amaitzeko, tesi lan honetan aztertutako bi eragin-motei zuzeneko erreferentzia egingo diogu. Hain zuzen ere, moldatutako zein moldatu gabeko maileguei.

Irudia 3.3: Elkarreragin lexikoen continuuma (Ringbomen, 1987, sailkapenean oinarrituta)



TRANSFERENTZIA LEXIKOAK

- *Maileguen itzulpena*: Item bat (edo gehiagoren) propietate semantikoen itzulpena item lexiko bat (edo gehiagoren) konbinaketaren bidez. Adibidez, ‘cazatalentos’ esateko ‘talenthunter’ esango bagenu (‘headhunter’ beharrean). Kasu honetan, ‘cazatalentos’ hitzaren konponenteen itzulpena banan-banan egiten geundeke, nahiz eta ‘cazatalentos’ hitzaren itzulpen figuratiboa ingelesez ‘headhunter’ den (edo, literalki, ‘cazacabezas’).
- *Luzapen semantikoak*: Item baten propietate semantikoak, beste hizkuntza baten itemera transferitzen direnean. Adibidez, ingelesez ‘I bought a book in the bookstore’ esan ordez, ‘I bought a book in the library’ esango bagenu. Kasu honetan, gaztelaniaren ‘libreria’ hitzaren propietate semantikoak, xede-hizkuntza ingelesaren itemera (librería=library) transferitzen egongo ginateke.
- *Hitz-sustraikideak (sasi-adiskide moduan agertzen direnean)*: Itemen arteko antzekotasun formalek esanahietan eragina islatzen dituztenean hiru erlazio sortu ditzakete. Erlazio hauek, antzeko forma baina esanahi desberdinak dituzten hitz bikote hauen artean ondorengo moduetan gertatzen dira:
 - Esanahi guztiz desberdina duten hitzen artean: Adibidez, ‘I put my notes in the carpet’ diogunean, ‘I put my notes in the folder’ esan beharrean. Kasu honek, carpet (in.) = carpeta (gaz.) identifikazio okerra islatzen du; carpet (in.) = alfombra (gaz.) identifikazio zuzenaren ordez.
 - Antzeko esanahia dutenean, baina testuinguru berdinetan erabiltzen diren hitzen artean: Adibidez, ‘Actually, many cases of corruption

have been reported’ diogunean, ‘Recently, many cases of corruption have been reported’ esan beharrean. Kasu honetan, actually (in.) = actualmente (gaz.) hitzen arteko identifikazio okerra egiten geudeke, actually (in.) = en realidad (gaz.) hitzen arteko identifikazio zuzena egin beharrean.

- Batzuetan (baina ez beti) testuinguru berdinean (edo ia berdinetan) erabiltzen diren hitzen artean. Adibidez, ‘I make a compromise to go’ esaten dugunean, ‘I make a commitment to go’ esan beharrean. Nahiz eta baliokideak izan daitezkeen testuinuru batzuetan, esaldi honetan ‘commitment’ soilik izango litzateke egokia.

MAILEGUAK

- *Moldatutako maileguak*: Xede-hizkuntzaren arau morfologikoetara (zein fonologikoetara) moldatutako itemak. Adibidez, ‘apostation’ esaten dugunean ingelesez ‘bet’ (= *apostua*) esan orde. Kasu honetan, ‘apostu’ (eusk.) hitza ingelesaren arau morfologikoetara moldatu dugu; zehatzago, ‘-tation’ atxizkia gehitu diogu euskal ‘apost-’ erroari.
- *Moldatu gabeko maileguak*: Xede-hizkuntzaren arauetara moldatu gabeko itemak. Bestela esanda, ingelez idazten gaudela euskara edo gaztelerazko hitz baten erabilera egiten dugunean. Adibidez, ‘I was looking at the lámpara when she arrived’.

Hitzen kategorizazioa

Behin elkarreragin lexikoaren kategoriak ikusi ditugula, elkarreragin lexikoek zein hitz-klasetan oinarritu daitezkeenaren inguruko hausnarketa egingo dugu. Laurogeigarren hamarkadan, hitzen pisu semantikoak hizkuntzen arteko elkarreraginean influentzia zuela antzeman zen (Garrett,

1975). Hitzen pisu semantiko desberdindu honek, bi kategoria nagusitan banatu zituen hitzak. Ikerketa gehienek, ondorengo sailkapena egin ohi dute:

EDUKI HITZAK: Izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbioak.

FUNTZIO HITZAK: Konjuntzioak, preposizioak, artikulua eta izenordeak.

Eduki eta funtzio hitzen kategorizazioari dagokionez, Paradisen (2004, 2008, 2009) lana aipatu beharrekoa da. Izan ere, ikerlari honek bigarren eta hirugarren hizkuntzaren artean antzekotasun kognitibo nabariagoa zegoela antzeman zuen (lehen eta hirugarren hizkuntzen arteko antzekotasunarekin alderatuz). Hurbilpen neurolinguistiko batetik, antzekotasun kognitibo hau honela definitu zuen:


‘all late-learned languages (L2, L3, Ln) are sustained to a large extent by declarative memory. As such they are more likely to manifest dynamic interference from one another than from the native language(s)’ (Paradis, 2008, 344. orr.).

Gainera, Paradisek (2004, 2009) gaitasun-linguistiko inplizitua eta jakituria metalinguistiko esplizitua neurolinguistikoki desberdindu zituen. Izan ere, bi jakituria-mota hauek buruan desberdin antolatzen zirela argudiatu zuen. Alde batetik, memoria prozeduralean antolatzen zen gaitasun-linguistiko inplizitua. Bestetik, memoria deklaratihoan antolatzen zen jakituria metalinguistiko esplizitua (Paradis, 2009, 139. orr.).

Honela, Paradisek hizkuntza natibo eta ez-natiboen arteko jabekuntza prozesuak desberdindu zituen. Alde batetik, lehen-hizkuntzaren jabekuntza, inplizituki eta memoria prozeduralaren bitartez prozesatzen zela ardugiatu zuen (lehen hizkuntzaren morfologia, lexiko edo sintaxia, adibidez). Bestetik, bigarren hizkuntzaren jabekuntza, esplizituki eta memoria deklaratihoaren bitartez prozesatzen zela.

Funtzio eta eduki hitzen inguruan, Paradisek (2009) desberdintasun interesgarri bat planteatu zuen. Izan ere, lehen-hizkuntzaren funtzio hitzak inplizituki eta memoria prozeduralean antolatzen zirela azaldu zuen. Lehen-hizkuntzaren eduki-hitzak, aldiz, memoria deklaratihoan antolatzen zirela (2009, 18. orr.). Honela, Paradisek (2008, 2009) hausnarketak honela irudikatu genitzazke:

Irudia 3.4: Gaitasun-linguistiko inplizitu eta jakituria metalinguistiko esplizituaren arteko desberdinketa hurbipen neurolinguistikotik (Paradis 2008, 2009 oinarritua)



Baina, zer suposatzen zuen deberdintasun honek eduki eta funtzio hitzen kategorietan ematen den hizkuntzen arteko elkarreraginari dagokionez?

Bardel eta Falk (2012) ikerlarien ustez, Paradisek lehen eta bigarren hizkuntzen prozesatze desberdintzeak, 3. hizkuntzaren sintaxi eta hiztegiaren azterketan sarri azalduko emaitzak bi moduetan azaldu zitzaizketen. Alde batetik, hirugarren hizkuntzaren hiztegiaren lehen zein bigarren hizkuntzaren elkarreraginak azalduko lituzke, hiru hizkuntzen lexikoa memoria deklaratihoan prozesatzen diren heinean (Bardel eta Falk, 2012, 73. orr.). Bestetik, bigarren zein hirugarren hizkuntzen funtzio-hitzen ‘hiztegi

estatusak' hirugarren hizkuntzaren ekoizpenean funtzio-hitzak ohikotasun gehiagoz bigarren hizkuntzatik transferitzea lehen-hizkuntzatik transferitu beharrean (Ringbom, 1987; Vildomec, 1963; Williams eta Hammarberg, 1998). Honela, lehen eta bigarren hizkuntzen prozesamenduen desberdinketak, hizkuntzen arteko elkarreraginean bi patroik hauek partzialki azaltzen dituztela azaldu zuten Bardel eta Falk (2012) ikerlariak. Alde batetik, eduki-hitzetan gertatzen diren elkarreraginen jatorri-hizkuntza lehen eta bigarren hizkuntza izatea gehienetan, eta funtzio-hitzetan, aldiz, bigarren (edo hirugarren) hizkuntza izatea transferentzien jatorri-hizkuntza.

Hurbilpen neurolinguistiko interesgarri hau alde batera utziz, aipatzeko da hitz-kategoria berdinean ere prozesamendu desberdinak antzeman direla. Adibidez, eduki-hitzen kategorian, izenak arinago ikasten direla aditz eta adjetiboekin alderatuz (Sandhofer eta Smith, 2007). Ildo honetan, izenak kontextuarekiko aditz edo adjetiboak baino independenteagoak direla azaldu duten ikerketak aurkitzen ditugu (Wierzbicka, 1988). Independentzia hau, izenek entitateak izendatzen dituztela eta markazio gutxiago dutenaren ideari lotu zaio. Betiere, noski, aditz, adjektibo edota adberbioekin alderatuz. Honen adibide, Schmitt eta Zimmermanek (2002) bideratutako ikerketa aipa dezakagu. Ikerketa honetan, hitz-familia baten forma desberdinen ekoizpena aztertu zen (adibidez, 'select', aditza; 'selection', izena; 'selective'; adjetiboa; 'selectively', adberbioa). Ikasleek, hutsunea hitz egokiarekin bete behar zuten. Emaitzek, izen eta aditzak, adjektiboak eta adberbioak baino hobeto zekizkitela azaldu zuten. Izenek jabekuntzan azaltzen zuten abantaila hau azaltzeko, pertzeptualki errazagoak direla argudiatu zuten ikerlari hauek, bai eta esanahiarekiko gainjartze gehiago dutela beste hitz-kategoriekin alderatuz. Gainera, esanahiarekiko izenek azaltzen duten gainjartze honek, izenen transferabilitatean eragiten duela azaltzen duten ikerlariak aurkitzen ditugu (ikus Otwinowska, 2016).

Amaitzeko, hizkuntzen arteko elkarreragina eduki eta funtzio hitz-kategorietan ikertu dituzten lanen artean, ondorengo lauak aukeratu ditugure tesi lanaren helburuekin duten lotura medio:

Poullisse eta Bongaertsek (1994), aurretik azaldutako hizkuntzen arteko elkarreraginen bi azpi-kategoria ahozko ekoizpenean aztertu zituzten. Zehazki, moldatutako eta moldatu gabeko kode-aldaketak. Horretarako, 45 ikasle alemanen bigarren hizkuntza ingelesaren ekoizpena aztertu zuten. Emaitzek, moldatu gabeko 749 kode-aldaketa eta morfofonologikoki moldatutako 22 kode-aldaketa azaldu zituzten. Moldatu gabeko kode-aldaketei dagokionez, funtzio hitzak gehiago zirela antzeman zuten. Emaitza hauek, ahozko ekoizpenean parte hartzen duten kontrol-mekanismoekin lotu zituzten. Izan ere, eduki-hitzen 131 instantzietatik 70 instantzia erreparatu egiten zirela antzeman zuten; funtzio-hitzetan, aldiz, 316 instantzietatik 97 instantzia soilik erreparatzen zirela. Honek, eduki-hitzetan kontrol mekanismoak garrantzi gehiago zutela pentsarazi zien (1994, 45. orr.). Morfofonologikoki moldatutako kode-aldaketei dagokionez, aldiz, eduki-hitzak gehiago zirela antzeman zuten. Hala, funtzio-hitzetan moldaketa hain eskasak ematearen arrazoia, ingelesaren funtzio hitzak markatu gabeak izateari atxiki zioten (persona, zenbaki edo kasuko markaketarik ez izatearekin, alegia). Ikerketa honen emaitzek, hala, bi ideia garrantzitsu azaltzen dituzte. Alde batetik, moldatutako kode-aldaketak eduki-hitzetan gertatzen direla maizago. Bestetik, kontrol-mekanismoei dagokionez, eduki-hitzetan nabariagoak direla funtzio-hitzetan baino. Ikusiko dugunez, bi ideia hauek idatzizko ekoizpenean ematen diren moldatu eta moldatu gabeko instantziak hobeto ulertzen lagunduko digu.

Cenozek (2001) bideratutako ikerketak, Poullisse eta Bongaertsen (1994) emaitzak kontraesaten zituen. Izan ere, ikerlari honek hizkuntzen arteko

elkarreragina eduki-hitzetan funtzio-hitzetan baino sarriago ematen zela aurkitu zuen. Ikerketa honetan, euskara eta gaztelera lehen-hizkuntza zuten 90 ikasleen 3. hizkuntza ingelesaren ahozko ekoizpena aztertu zuen. Emaitzek, euskara jatorri-hizkuntza zuten funtzio hitzak eduki hitzak baino askoz gutxiago zirela azaldu zuten. Gaztelera jatorri-hizkuntza zuten funtzio zein eduki hitzen kopurua, aldiz, antzekoa zela eta gehiengoa zirela. Ondorioztat, hizkuntzen arteko distantzia tipologikoa elkarreraginen faktorerik nabarmenena zela azaldu zuen, bai eta distantzia tipologiko honek transferitutako hitz kategorietan eragina zuela. Emaitzen interpretazioan, ikerlari honek ikasle elebidunak euskaraz erabiltzen zuten komunikazio estrategia bat transferitzen egon zitezkeela azaldu zuen. Honela, euskaraz hitzegiterakoan transferitutako hitz erdaldunak eduki hitzak izatea, ingelesaren kasuan transferitutako hitzak eduki hitzak izatea ahalbideratu zezakeela azaldu zuen. Ikerlariaren hitzetan:

‘our results indicate that the type of word transferred is affected by linguistic distance. When two non-Germanic languages are used as the possible source languages, students may perceive function words in the target language to be more distant than when the source and the target language are Germanic. The fact that cross-linguistic influence from Basque is very weak in the case of function words confirms the importance of language distance. It seems that learners perceive the great difficulty of transferring from a highly inflected language (...) One possible explanation of these findings is that, when speaking Basque, Basque-Spanish bilinguals tend to borrow more content words than function words from Spanish. Learners in this study could be transferring this communication strategy to third language production. Therefore, the different structure of Basque as compared to Spanish and English would explain the limited transfer of function words, but the influence of linguistic distance could be direct when learners are

aware of linguistic distance or indirect when learners are applying a communicative strategy used when speaking Basque to a third language' (Cenoz, 2001, 17.orr.).

De Angelisek (2005) tarteko-hizkuntzen eragina aztertu zuen funtzio hitzetan. Horretarako, italiarra 3. edo 4. hizkuntza bezala zuten unibertsitate ikasleak hautatu zituen eta, zuten hizkuntza erreperitorioan oinarriturik, lau talde osatu zituen. Datu bilketarako, ikasle guztiek testu berdina irakurri zuten, eta honen laburpena idatzi zuten italieraz. Beren erreperitorio linguistikoa oinarritutako lau talde hauen emaitzak ondorengoak izan ziren:

- Gaztelera lehen-hizkuntza eta ingelesa tarteko-hizkuntza zuten ikasleen transferentzien jatorri-hizkuntza gaztelera izan zen argi bi hitz kategorietan (eduki eta funtzio-hitzetan).
- Ingelesa lehen-hizkuntza eta gaztelera tarteko-hizkuntza zuten ikasleen transferentzien jatorri-hizkuntza ingelesa izan zen eduki-hitzetan. Funtzio-hitzetan, aldiz, gaztelera aukera ohikoena zela azaldu zuten.
- Ingelesa lehen-hizkuntza eta frantsesa tarteko-hizkuntza zuten ikasleen transferentzien jatorri-hizkuntza ingelesa izan zen eduki hitzetan. Funtzio hitzetan, aldiz, frantsesa nahiago zutela erakutsi zuten.
- Gaztelera lehen-hizkuntza eta ingelesa eta frantsesa tarteko-hizkuntzak zituzten ikasleen transferentzien jatorri-hizkuntzak gaztelera edo frantsesa izan ziren eduki-hitzetan (ia inoiz ingelesa), eta funtzio-hitzetan erabilera berdintsua erakutsi zuten nahiz eta ingelesaren erabilera ahul bat azaldu.

Nahiz eta De Angelisen (2005) interesa funtzio-hitzetan soilik egon, emaitza hauek bi hitz-kategorien inguruko zehaztapenak ematen dizkigute. Beraz, emaitza hauen ondorengo irakurketa egin dezakegu.

Hasteko, lehen-hizkuntza ingelesa zuten bi taldeek bakarrik erakusten dute eduki eta funtzio hitzetan jatorri-hizkuntza desberdinak. Talde hauetan, eduki-hitzen jatorri-hizkuntza lehen hizkuntza da (ingelesa). Aldiz, funtzio-hitzetan, tarteko-hizkuntzak direla ikusi dezakegu (gaztelera eta frantsesa, alegia). Emaitza hauek, Paradisekin (2004, 2008, 2009) bat egingo lukete. Izan ere, ikerlari honek eduki-hitzen elkarreraginen jatorri-hizkuntza lehen eta bigarren hizkuntza zela iradoki zitekeela eta, funtzio-hitzetan, aldiz, bigarren (edo hirugarren) hizkuntza izango zela transferentzien jatorri-hizkuntza.

Ondoren, lehen-hizkuntza gaztelera zuten beste bi taldeek, aldiz, bai eduki zein funtzio-hitzen jatorri-hizkuntza beren lehen-hizkuntza zela azaldu zuten. Emaitza hauek, Paradisek iradokitako patroien kontra joango lirateke lehen hizkuntza (1H) elkarreraginen jatorri-hizkuntza den heinean funtzio-hitzetan. Beraz, emaitza hauei jaramon eginez, jatorri eta xede hizkuntzen arteko distantzia tipologikoak eragina duela pentsa dezakegu.

Ondorioz, hizkuntzen arteko elkarreragina aztertutako konbinazio linguistikoekin erlazio garrantzitsu bat duela esan dezakegu. Honela, hizkuntza konbinazio zehatz batean aurkitutako patroiak orokortzea edo beste konbinazio linguistiko batean iradokitzea ez dirudi egokia.

Amaitzeko, Navés, Miralpeix eta Celeyaren (2005) artikuluan argitaratutako bigarren ikerketak, eduki eta funtzio hitz kopuruen transferentziak adina eta instrukzio orduetako neurtu zituzten. Horretarako, katalan-gaztelaniar ikasle elebidunen 3. hizkuntza ingelesaren idatzizko ekoizpena aztertu zuten. Hala,

bi kategoriek transferentzia kopuru berdina azaltzen zutela ikusi zuten (%50a bakoitzak). Ikerketa honek, Poulisse eta Bongaerts (1994) eta Cenozen (2001) emaitzak kontraesaten ditu. Hau gertatzeko arrazoietakoa bat, zenbakiak funtzio-hitz moduan kodifikatu izanari atxiki zioten ikerlariak. Eta ez, Poulisse eta Bongaerts (1994) eta Cenezek (2001) kodifikatu bezala, eduki-hitz bailira (Navés eta beste., 2005, 128-129 orr.).

Ikerketa desberdinei jaramon eginez, emaitzak aztertutako modalitatearekin zerikusirik badutela uste dugu. Hortaz, hitz-kategoria hauek aztertu dituzten ikerketen ondorio nagusienak bi modalitate hauetan sailkatu nahi izan ditugu:

IDATZIZKO EKOIZPENEAN

Hirugarren hizkuntzaren idatzizko ekoizpenean, hizkuntzen arteko eragina eduki-hitzetan funtzio-hitzetan baino nabariagoa da, eta hizkuntzen arteko gertutasun tipologikoak eragina du elkarreraginaren jatorri-hizkuntzan (Pinto eta Carvalhosa, 2012, adibidez)

Hirugarren hizkuntzaren idatzizko ekoizpenean, lehen hizkuntza (edo tipologikoki gertu dagoen 2. hizkuntza) da eduki-hitzen transferentzien jatorri-hizkuntza; funtzio-hitzen jatorri-hizkuntza, aldiz, 2. edo tarteko hizkuntzak dira. Xede-hizkuntzatik tipologikoki gertu dauden lehen-hizkuntzen kasuetan, eduki zein funtzio-hitzen jatorri-hizkuntza lehen hizkuntza da (De Angelis, 2005).

Hirugarren hizkuntzaren idatzizko ekoizpenean, ikasleek funtzio eta eduki-hitzak pareko transferitzen dituzte eta hitzen sailkapenak emaitzetan eragin dezake. Adibidez, zenbakiak funtzio-hitz moduan kodifikatzea (Navés, Miralpeix eta Celaya, 2005).

AHOZKO EKOIZPENEAN

Bigarren hizkuntzaren ahozko ekoizpenean, lehen hizkuntzaren eragina azaltzen duten funtzio-hitzak eduki-hitzak baino gehiago dira. Moldatutako kode-aldaketetan, aldiz, eduki-hitzak dira funtzio-hitzak baino gehiago (Poullisse eta Bongaerts, 1994).

Hirugarren hizkuntzaren ahozko ekoizpenean, hizkuntzen arteko elkarreragina eduki-hitzetan funtzio-hitzetan baino nabariagoa da. Gainera, hizkuntzen arteko distantzia tipologikoak eragina dauka elkarreraginen jatorri-hizkuntzaren aukeraketan bai eta 2. hizkuntzaren estatusak (Cenoz, 2001).

Hizkuntzak bi baino gehiago direnean, funtzio-hitzak hizkuntza ez natiboetatik transferitzen dira (Ringbom, 1987; Vildomec, 1963; Williams eta Hammarberg, 1998)

Funtzio-hitzekin, kontrol-prozedurak lasaitu egiten dira, komunikaziorako esanguratsuagoak diren eduki hitzetan kontrol prozedura hauek fokatuz (Poullisse eta Bongaertsek, 1994)

3.3.4. Elkarreragin sintaktikoak

Sintaxia hizkuntzen arteko elkarreraginetik at zegoen hizkuntza maila zela luze pentsatu da. Alabaina, asuntzio hau zuzena ez dela erakutsi duten ikerketek elkarreragin sintaktikoak bai harreran zein ekoizpenean atzeman dituzte.

Odlinek (1989) hizkuntzen arteko elkarreraginaren inguruan idatzitako monografian elkarreragin sintaktikoa aztertzen zuten ikerketen errebisioa egin zuen hiru aspektu sintaktikoren inguruan: (a) hitz-ordena, (b) menpeko esaldiak eta (c) ezezko esaldiak. Ondorioen artean, hizkuntzen arteko

elkarreragina maila sintaktikoan hiru aspektu hauetan ez ezik beste esparru batzuetan hautemango zela iradoki zuen ikerketek aurrera egin ahala. Odlinen hitzetan:

‘some tendencies evident in those three areas suggest that similar tendencies will also emerge when other areas of syntax are investigated in greater detail in the future. In the acquisition of word order, relative clauses, and negation, transfer figures as an important factor, but it often occurs in conjunction with other acquisition processes, some of which show hints of typological and universal influences at work’ (110. orr.)

Harreraren domeinuan, Zoblek (1992) aurretiko hizkuntzen jakituriak gramatika kontserbadoreago edo flexibleago bat ahalbideratzen zuela aztertu zuen, bi motatako elkarreragin hautemanez. Alde batetik, lehen hizkuntza testuinguru desberdinetako bigarren hizkuntza ikasleek judizio gramatikaletan onargarritasun patroi desberdinak erakusten zituztela. Bestetik, ikasle eleaniztunek esaldi okerrak gutxiagotan baztertzen zituztela. Alegia, lehen hizkuntzak onargarritasun patroi desberdinak ahalbideratzen zituztela, eta hizkuntza bat baino gehiago jakiteak judizio gramatikaletan ‘flexiboago’ izatea ahalbideratzen zuela. Judizio gramatikaletan, gainera, elkarreragin sintaktikoa atzerako norabidean ere atzeman da. Hots, bigarren hizkuntza bat ikasteak lehen hizkuntzaren gramatikaltasunarekiko tolerantzia handiago eragiten duela (Köpke, 2002, adibidez).

Jarvis eta Pavlekok (2008) azaldu bezala, Cook, Iarossi, Stellakis eta Tokumaru (2003) edota Su (2001) ikerlarion lanek ikusmira zabaldu eta norabide-biko zein atzerako norabidean aztertu zuten hizkuntzen arteko elkarreragin sintaktikoa. Atzerako norabidean interesaturik, Cook eta beste (2003) ikerlariak lehen hizkuntza grekoa, japoniera eta gaztelania zuten parte-hartzaile elebakar eta elebidunen emaitzak alderatu zituzten. Parte-

hartzaile elebidunak, 2. hizkuntza ingelesa atzerriko hizkuntzat ikasten zuten ikasle helduak ziren. Honela, ikasle talde bi hauen arteko emaitza patroia desberdinduen bitartez, 2. hizkuntzak lehen hizkuntzan zuten eragina frogatuz eman zuten. Gainera, 2. hizkuntzaren eragina lehen hizkuntzan (1H) aurreko atalean azaldutako ‘multi-competence’ edo gaitasun-anitzarekin zuela zerikusia defendatuko zuten. Ez, ordea, bigarren hizkuntza bat ikastearen efektu espezifikoekin. Autoreen hitzetan:

‘Certainly this genre of research into L2 effects on the L1 must be prepared to find differences between monolinguals and bilinguals that are due to the overall changed state of the L2 user (i.e., their multi-competence) rather than to the specific effects of learning a particular second language’ (212. orr.).

Su (2001) ikerlariaren lanak ere 2. hizkuntzaren eragina lehen hizkuntzaren (1H) erantzun patroietan erakutsi zuen. Ikerketa honen parte-hartzaileak, ingelesa (2H) ikasten zuten hiru maila desberdinetako txinera (1H) hiztunak eta txinera (2H) ikasten zuten hiru maila desberdinetako ingeles (1H) hiztunak izan ziren. Parte-hartzaile guztiak bai txineraz zein ingelesez aztertuak izan ziren. Emaitzen artean, bi dira nabarmenenak:

(1) bigarren hizkuntzaren (2H) esaldi interpretazioan, ikasleek lehen hizkuntzan (1H) oinarritutako preferentzia erakusten zutela eta preferentzi hori murrizten zela 2. hizkuntzan zuten gaitasuna hazten zihoala,

(2) parte-hartzaileak lehen hizkuntzan (1H) bigarren hizkuntzan oinarritutako konfiantza handiagoa erakusten zutela 2. hizkuntza-gaitasuna hazten zihoala.

Suk (2001) aurkitutako lau patroia nabarmenenak ondorengoak izan ziren:

“ 1. Learners use their L1 strategies in processing the L2 (forward transfer).

2. Learners apply their new L2 strategies in processing the L1 (backward transfer).
3. Learners merge the two sets of cue hierarchies used by monolinguals and use the combined strategies in processing L1 and L2 (amalgamation).
4. Learners use separate strategies for each language: that is, they perform like monolinguals in their L1 and L2 (differentiation)” (Su, 2001, 108. orr.)

Ekoizpenaren domeinuan atzeman den elkarreragin sintaktiko zuzenena, adberbioen lokalizazioan antzeman da. Alonso (2002) ikerlariak, ingelesa (2H) ikasten zuten gaztelaniar nerabe zein helduekin bideratu zituen ikerketak. Emaitzek, kasu askotan lokalizazio adberbial okerren iturri nagusia hizkuntzen arteko elkarreragina zela frogatu zuten. Honela, adberbioen kokaleku okerra ariketa gutxi estrukturatuetan (elkarrizketetan) maizago gertatzen zela atzeman zuen estrukturatuago zeuden egoerekin alderatuz (galdeketa gidatuak). Eta, bigarren hizkuntzan (2H) gaitasun baxuago bat zuten ikasleetan ematen zela elkarreragin hau maizago hizkuntza-gaitasun altuago bat zuten ikasleekin alderatuz.

Ekoizpenean atentzio berezia jaso duen beste elkarreragina subjektu eta objektu omisioak izan dira. Fenomeno hauek ikertu dituzten ikerketa gehienak subjektuen omisioa onartzen zituzten eta onartzen ez zituzten lehen hizkuntza (1H) desberdinetako hiztunak aztertu dituzte (Yuan, 1997, adibidez). Beste ikerketa askok, aldiz, subjektuen omisiorik onartzen ez duten lehen hizkuntza testuinguru desberdinetako ikasleek 2. hizkuntzan subjektu eta izenorde kopuru altuegi bat erabiltzen dutela atzeman dute (Jin, 1994; Xie, 1992, adibidez).

Jarvis eta Pavlenkok (2008) beren monografian azaldu bezala, hizkuntzen arteko elkarreragin sintaktikoak ahalbideratutako unitate linguistikoen

gehegizko ('overproduction') edo ekoizpen murriztua ('underproduction') eremu gramatikal gehiagotan atzeman da. Adibidez, menpeko perpausetan (Schachter, 1974, adibidez), artikuluetan (Jarvis, 2002, adibidez), edo preposizioetan (Jarvis & Odlin, 2000, adibidez).

Gheiegizko edo murriztutako ekoizpen honek batzuetan bakarrik emango ditu erroreak, eta hizkuntzen arteko elkarreragin sintaktikoak sortarazitako errore hauek aurreko (Pavlenko & Driagina, 2006, 2007, adibidez), atzeko (Pavlenko & Jarvis, 2002, adibidez) zein alboko (Odlin & Jarvis, 2004, adibidez) norabidetan aurkitu daitezke. Nahiz eta kasu askotan hizkuntzen arteko elkarreragin hau elkarreragin lexiko moduan sailkatu daitezkeen, askotan errore hauek sintaktikoak dira. Adibidez, 'talk with' idaztea 'talk to' beharrean. Errore hauek tesi lan honen bigarren analisi kuantitatiboan aurkitu genituenez emaitzen atalean azalduko ditugu.

3.3.5. Elkarreragin diskurtsiboak

Jarraian azalduko ditugun hizkuntzen arteko elkarreragin diskurtsibo, pragmatiko eta soziolinguistikoa hitz edo esaldietatik haratago, zabalagoak diren erretorika, diskurtso edo interakzio komunikatiboetan atzeman daitezkeen elkarreraginak dira. Elkarreragin linguistikoak diren heinean, hauen azalpena eman nahi izan dugu labur.

Jarvis eta Pavlenko (2008) ikerlarien iritziz, hizkuntzen arteko elkarreragin diskurtsiboa honela defini zitezkeen:

'Discursive transfer concerns the ways thoughts are introduced, organized, and contextualized within an oral or written discourse, and also related to the conversation, as well as the concepts and notions that are conventionally expressed in a particular discursive context' (102.orr.).

Hizkuntzen arteko elkarreragin diskurtsiboa aztertu duten ikerketa gehienak erretorika kontrastiboaren eremuan egin dira, eta honela interes berezia dauka idatzizko hizkuntzaren ikerketan. Izan ere, hizkuntza bakoitzak beren konbentzio erretorikoak ditu eta konbentzio hauek lehen hizkuntzatik 2. hizkuntzara transferitu daitezkeela maiz azaldu da (ikus Connor, 1996; Kubota, 1998). Kaplanek (1966), hizkuntza eta kultura bakoitzak bere berezko konbentzio erretorikoak zituela azaldu, eta 2. hizkuntzaren idazketan ondorio negatiboak zituela adierazi zuen (Kubota, 1998, 69.orr.). Ildo berdintsutik, Connorrek (1996) idatzitako monografian, Kaplanen (1966) lehen lanetik liburua argitaratu zen urtera arte erretorika kontrastiboaren ikerketa esparruan egindako aurrera pausoak azaltzen ditu, bai eta disziplina honek beste disziplinekiko dituen harremanak zehaztu. Autorearen hitzetan:

‘Text linguistic contrastive rhetoric research shows that different cultures have different expectations of writing and that these different expectations are internalized as different patterns of discourse. Writers of second languages transfer their L1 writing strategies to the new situation of the second language. Hence, before they learn the expectations of their second language audience, ESL writers may use textual and rhetorical strategies that are considered off at the very least’ (167. orr.)

Jarvis eta Pavlenkok (2008) patroir erretoriko hauen preferentzien inguruan egindako hainbat ikerketa azaldu zituzten. Horietariko batzuk, adibidez, idazle japoniarrek patroir erretoriko inductiboak nahiago zituztela atzeman zuten. Alegia, ideia nagusia honen argumentuen aurretik ezartzea bai japonieraz idatzitako testuetan zein ingelesez idatzitako testuetan (Kobayashi, 1984; Kubota, 1998, adibidez). Gaztelanar hiztunek, aldiz, idazteko estilo elaboratibo bat dutela azaldu da bai gaztelaraz zein ingelesez. Honela, detaile kontestual gehiago ematen dituztela azaldu da main, nahiz

eta detaile kontestual hauek ingelesez konbentzionalak ez diren (Montaño-Harmon, 1991; Reppen & Grabe, 1993; Thatcher, 2000, adibidez).

Hizkuntzen arteko elkarreragin diskurtsiboa aurrerako norabidean ez ezik, atzerako norabidean ere azaldu da (Shi, 2002; Kecskes & Papp, 2000, adibidez), baita atzerako norabideko elkarreragin hau positiboa izan daitekeela. Kecskes eta Papp (2000) ikerlariak, adibidez, 2. hizkuntza ingelesaren idazteko konbentzioetan ikasleak trebatzea hungariar hiztunen lehen hizkuntzaren (1H) idazketan lagungarria zela hauteman zuten. Era berean, aurrerako norabidean Kubotak (1992) japoniera eta ingelesean informazioaren antolamenduak antzekotasunak zituztela atzeman eta ingelesa ikasten zuten japoniera hiztunek antzekotasun hauetaz balia zitezkeela erakutsi zuen. Ildo berdinetik, Kubota (1998) eta Sasaki & Hirose (1996) ikerlariak, 2. hizkuntzaren (2H) idazketan lehen hizkuntzaren (1H) idazketarekin positiboki koerlazionatzen zela erakutsi zuten. Honek, idazleek lehen hizkuntzatik 2. hizkuntzara idazteko abilitadeak transferitzen zituztela azaltzen zuelarik.

3.3.6. Elkarreragin pragmatikoak

Jarvis eta Pavlenkok (2008) azaldu bezala, Bachmanen (1990) gaitasun-komunikatiboaren eredutik abiatuz, gaitasun-pragmatikoa beste bi gaitasunek osatzen dute: gaitasun-illokutorioak eta soziolinguistikoak. Gaitasun-illokutorioa, hizkuntzaren oinarriko funtzioak ezagutu eta burutzeko gaitasuna da. Adibidez, informazioa edo laguntza eskatzea. Gaitasun-soziolinguistikoa, aldiz, konbentzio sozialetara hizkuntza moldatzeko gaitasuna adierazten du.

Hizkuntzen arteko elkarreragin pragmatikoa ikertu duten lanek, gaitasun-illokutorioan ematen den hizkuntzen arteko elkarreraginaren kontu eman

dute sarriago. Honetan, hizkuntzen arteko elkarreragin pragmatikoak bi izaera ditu: (a) izaera soziopragmatikoa eta (b) izaera pragmalinguistikoa.

Hizkuntzen arteko elkarreragin soziopragmatikoa (a) ikertu duten lanek, egoera sozialak exekuzioan duen eragina aztertu dute. Aldiz, hizkuntzen arteko elkarreragin pragmalinguistikoa (b) ikertu dutenek, exekuzio batean parte hartzen duten elementu linguistikoak aztertu dituzte.

Hizkuntzen arteko elkarreragin soziopragmatikoa (a) atzeman duten ikerketen artean Olshtain (1983) bideratutako lana daukagu. Ikerle honek, ingeles hiztun eta errusiar hiztunak ziren hebrear ikasleek beren lehen hizkuntzaren eragina azaltzen zuen joera erakusten zutela azaldu zuen barkamena eskatzeko orduan. Izan ere, hiztun hauek hebrear hiztunek baino gehiagotan eskatuko zuten barkamena testuinguru berdinetan. Hizkuntzen arteko elkarreragin pragmalinguistikoa (b) adibide, Eisenstein eta Bodman (1993) ikerlarion lana dugu. Ikerlari hauek, hiztun japoniarrek formula apologetikoak erabiltzen zituztela antzeman zuten Ekialde Ertaineko ikasleek eraikin proberbialak erabiltzen zituzten artean erakutsi zuten ingelesez eskerrak emateko garaian.

Hizkuntzen arteko elkarreragin pragmatikoa atzeko edo aldeko norabidean aztertu duten ikerketak gutxiago diren arren badira hauek ikertu dituzten autoreak. Horien artean, Fouser (2001) ikerlariak 2. hizkuntza japonetik 3. hizkuntza koreanorako elkarreraginaren kontu eman zuen. Hots, hizkuntzen arteko aldeko elkarreraginaren kontu ($2H > 3H$). Fouserren emaitzek, gainera, maila diskurtsiboan elkarreragin soziolinguistikoa lehen hizkuntzatik (ingelesetik) ematen ez zela azaldu zuten. Aitzeko norabidean, aldiz, Cenozek (2003b) 2. hizkuntza ingelesetik lehen hizkuntza gaztelararako elkarreragina atzeman zuen. Ikerketa honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko 69 lagunek hartu zuten parte. Guztiek zuten gaztelera lehen hizkuntza, euskara bigarren

hizkuntza, eta ingelesa hirugarren hizkuntza moduan ikasten zuten. Partaideak bi taldeetan banatu zituen ikerlariak ingelesean zuten hizkuntza-gaitasunaren arabera. Alde batetik, ingeles filologia ikasten zuten eta ‘jariotasun altu’ bat zuten 49 lagun. Bestetik, psikologia ikasten zuten eta ingelesean ‘jariotasun baxu’ bat zuten 20 lagun. Jariotasun altu bat zuten ikasleek ‘discourse completion test’ (DCT) testa ingelesez eta gazteleraz bete zuten, eta jariotasun baxua zutenek gazteleraz soilik. Ikerketa honetan, bost elementuren kontu eman zuen ikerlariak: ‘alerters’, ‘request strategies’, ‘syntactic downgraders’, ‘lexical and phrasal downgraders’ eta ‘mitigating supportives’ deritzonak (67.orr.). Emaitzek, ingelez jariotasun altua zuten ikasleen eta jariotasun baxua zuten ikasleen arteko desberdintasun esanguratsu batzuk azaldu zituzten. Ikerle honen hitzetan:

‘Speakers who are fluent in English use their interlocutor’s first name more often, use more indirect strategies and have a wider range of syntactic downgrader, lexical downgraders and mitigating supportives’ (77.orr.)

Hala, jariotasun altua zuten ikasleek patroikultural bat garatu zutenaren aldeko ebidentziak azaldu zituen. Izan ere, ikasle hauek gaztelaniaz eta ingelesez ekoiztutako eskaeretan antzekotasunak aurkitu zituzten baina baita desberdintasunak ere hiztun hauen eskaera eta hiztun natiboek egingo lituzketen eskaeren artean.

Amaitzeko, Safont ikerlariak modu zabalean ikertu ditu kontzientzia (Safont, 2003, 2005), ekoizpen (Safont, 2005) eta garapen pragmatikoa (Safont, 2011, 2013) hirugarren hizkuntzan. 2003. urtean argitaratutako artikuluan, ikerlari honek kontzientzia metapragmatikoa aztertu zuen ikasle elebidun eta elebakarrak alderatuz. Honela, ikerketaren emaitzek, ikasle elebidunen abantaila erakutsi zuten elebakarren aldean egite pragmatikoan. Ildo berdinetik, 2005. urtean argitaratutako liburuan, Safontek instrukzio eta

kontzientzia pragmatikoa aztertu zituen hirugarren hizkuntzan. Ikerketa honen datuak, Balentziako erkidegoko unibertsitate publiko batean jaso zituen, eta parte-hartzaileak elebakar/elebidun ziren eta xede-hizkuntzan zuten gaitasun-mailaren arabera sailkatu zituen. Ikerketa hauen galderen artean, instrukzio pragmatikoaren eragina aztertzea aurkitzen zen. Emaitzek, instrukzio pragmatikoaren eragin positiboak baieztatu zituen. Azkenik, 2011 eta 2013. urtean argitaratutako artikuluek, gaitasun-pragmatikoaren garapena aztertzen zuten bi ikerketen emaitzak azaltzen zituzten. Safontek (2011) aurkeztutako emaitza aipagarrienen artean, ingelesaren (3H) eragina gaztelania (1H) eta katalanaren (2H) sistema pragmatikoan azaltzen zuten, bai eta hirugarren hizkuntzaren (3H) jabekuntzak lehen eta bigarren hizkuntzan zuela eragina eskaera jarreretan. Honela, Safonten (2011) aburuz, pragmatika eleaniztunaren ikerketak hirugarren hizkuntza ikasleetan ematen den aldaketa kualitatiboaren kontu eman lezake. Ikerlariaren hitzetan, ‘multilingual pragmatics or pragmatic development in various languages may best account for the actual qualitative change that takes place in these learners’ mind’ (Safont, 2011, 274.orr).

3.3.7. Elkarreragin soziolinguistikoak

Hizkuntzen arteko elkarreragin soziolinguistikoa bi modutan ikertu da: (a) aldagai sozialak aintzat hartuz eta hizkuntzen erabileraren aldaerak aztertuz, eta (b) hiztun komunitate berri batean sozializatzen hasten diren hiztunen hizkuntza erabileran erreparatuz.

Lehenengoaren adibide (a), Lee (2000) eta Yu (2004) ikerlarion lana dugu. Ikerketa hauetan, ingelesa ikasten zuten txinatar eta korear hiztunek beren barkamena, kexak edota konplimendu-erantzun estrategiak lehen hizkuntzan

(1H) sozio-kulturalki definituak zeuden ezaugarrietan oinarritzen zituztela atzeman zuten, distantzia soziala eta estatus hierarkia zirela medio. Ildo berdinetik, Yu (2004) eta Itakurak (2002) ingelesa ikasten zuten txinatar eta japoniera hiztunek beren konplimendu-patroiak eraldatzen zituztela atzeman zuten beren lehen hizkuntzaren genero patroiak zirela medio.

Aipatutako bigarren hurbilpenaren eredugarri (b), aldiz, Mori (1997) ikerlariaren lana daukagu. Ikerlari honek hizkuntzen arteko elkarregin soziolinguistikoa atzerako norabidean aztertu zuen, eta 2. hizkuntzan identitate sendo bat eraikitako elebidunek beren jakituria soziokulturala 2. hizkuntzatik lehen hizkuntzetara (1H) transferitzen zutela atzeman zuen.

Hizkuntzen arteko elkarreragin soziolinguistikoa ikertzeko orduan, hainbat eragile nabarmen daudela atzeman da. Adibidez, generoa eta norbanakoen identitateak berak eragin berezia dutela. Pavlenkok (2001) bideratutako ikerketan, adibidez, identitate eta generoarekiko aproposak ziren hizkuntza jarrerak lehen hizkuntzatik bigarrenera transferitzen zirela atzeman zuen. Ikerlari honek 30 istorio aztertu zituen: (1) 2. hizkuntzaren jabeakuntza eta erabileran fokatutako 25 autobiografia kros-kultural, eta (2) 5 ahozko narratiba. Lehenengo 25 istorio idatziak 12 liburuk osatzen zuten eta bibliografia osoa artikuluen 137. orrialdeak aurkitu daiteke. Narratiba hauen analisiak generoaren gauzatze diskurtsiboaren etapa desberdinak azaltzeko aukera eman zion 2. hizkuntzan, bai gauzatze hori posible egiten zuten ezaugarri linguistikoen deskribapena emateko aukera ere (adibidez, intonazioa).

Laburpena

Atal honetan, eleaniztunen hizkuntzek modu oso konplexuan eragiten diotela elkarri azaldu dugu. Hizkuntzen arteko elkarreragina fenomeno negatibo

bailitzan ikustetik, ezinbesteko fenomeno delarik ulertzera eramaten gaituzten hainbat ikerlan aztertu ditugu, bai eta eleaniztasunean ematen diren hizkuntzen arteko elkarreragina hirugarren hizkuntza bat (edo gehiago) ikastearen bereziko trebetasunekin zerikusia duela. Hizkuntzen arteko elkarreraginean influentzia duten faktore hauek, alegia, ikaste estrategia, errepertorio linguistiko eta kontzientzia metalinguistiko garatuago bat direla ikusi dugu (Cenoz, 2013a). Honela, hirugarren hizkuntza ikasteko prozesuan, ikasleek beren aurretiko hizkuntzak modu sistematikoki erabiltzen dituztela dakigu (Hall eta Ecke, 2003; Rothman 2010, 2011, adibidez). Errepertorio linguistiko zabalago batek, hizkuntzen arteko elkarreraginen norabideak ugaltzen dituela (De Angelis 2007; Jarvis eta Pavlenko, 2008). Edota, bi hizkuntzetan hizkuntza-gaitasuna izateak hizkuntzekiko kontzientzia metalinguistikoa areagotzen duela (Jessner, 1999, 2008; Mieszkowka eta Otwinowska, 2015).

Elkarreragin-motei dagokionez, hizkuntzen arteko elkarreragina maila desberdinetan ematen dela azaldu dugu. Idatzizko ekoizpenari dagozkion elkarreragin-motetan erreparatuz, elkarreragin ortografikoak, morfologikoak, lexikoak, sintaktikoak, pragmatikoak eta diskurtsiboak desberdindu daitezkeela ikusi dugu, bai eta ahozotasunean gertatu ohi den elkarreragin soziolinguistikoa.

Elkarreragin ortografikoei dagokionez, aurretiko hizkuntzen fonologiak eta ortografiak xede-hizkuntzaren ortografian influentzia nabaria dutela erakusten dituzten ikerketak azaldu ditugu, (Okada, 2005; Seeff-Gabriel, 2003; van Berkel, 2005), bai eta transferentzia ortografikoak, batzuetan, xede-hizkuntzaren ortografiaren jabeakuntzan lagungarriak direla (van Berkel, 2004).

Elkarreragin morfologikoei dagokionez, prozesamendu morfologiko ortografiko eta semantikoek, elkarreragin desberdinak eragiten dituztela ikusi dugu (Jarvis eta Pavlenko, 2008). Era berean, hizkuntzen arteko identifikazio morfologikoak, kontzientzia morfologiko (inplizitu edo esplizitu) bat eskatzen dutela (Weinreich, 1953). Kontzientzia morfologiko hau, hiztegiaren jabekuntzan (Kieffer eta Lesaux, 2012) eta jariotasunean (Kieffer eta DiFelice, 2013) lagungarria dela ikusi dugu, bai eta kontzientzia morfologiko hau hizkuntza batetik bestera transferi daitekeela (Deacon, Wade-Woolley eta Kirby, 2007; Kieffer eta Lesaux, 2008; Ramirez, Chen eta Pasquarella, 2013). Horregatik, gure ustea da ikasleek kontzientzia morfologiko hau erabiltzen dutela hirugarren hizkuntzaren ekoizpenean.

Elkarreragin lexikoei dagokionez, forma eta esanahiaren eragin nabariago bat azaleratzen dituzten elkarreragin-motak continuum batean ezartzeak hauek hobeto ulertzen laguntzen digula azaltzen dituzten lanen ekarpenak ikusi ditugu (De Angelis, 2007; Ringbom, 1987). Gainera, hitzen pisu semantikoak hitzak bi kategoriatan banantzea ahalbideratzen digula. Hurbilpen neurolingüistikoei esker, bi kategoria hauek memoria desberdinetan gorde eta prozesatzen direla ikusi dugu, eta antolamendu honek, hizkuntzen arteko elkarreragin patroiak nolabait azaldu ditzakeela (Barkel eta Falk, 2012).

Elkarreragin sintaktikoak, harreran zein ekoizpenean ematen direla ikusi dugu, eta aurreko norabidean ez ezik (Zobl, 1992), norabide-biko eta atzeko norabidean ikertu duten lanak azaldu ditugu (Cook eta beste, 2003; Su, 2001). Elkarreragin sintaktiko ohikoenen artean adberbioen lokalizazio okerra edota gehiegizko zein gutxiegi hainbat unitate linguistikoen ekoizpena azaldu ditugu (Jarvis, 2000; Jarvis & Odlin, 2002, adibidez).

Elkarreragin diskurtsiboei dagokionez, erretorika kontrastiboaren esparruan maizago ikertu dela azaldu dugu, eta hizkuntza eta kultura bakoitzak bere berezko konbentzio erretorikoak izatea hizkuntzen arteko elkarreragin diskurtsiboa patroia erretorikoen preferentzietan eragiten duela (Kubota, 1998, adibidez). Gainera, elkarreragin diskurtsiboa norabide desberdinetan erakutsi duten ikerketak azaldu ditugu, baita atzerako elkarreragin hau positiboa izan daitekeela azaldu dutenak (Kecskes & Papp, 2000).

Elkarreragin pragmatikoek, izaera desberdinak dituztela ikusi dugu. Elkarreragin soziopragmatikoetan erreparatu duten ikerketek egoera sozialak exekuzioan duen eragina azaldu dute (Olshtain, 1983, adibidez). Elkarreragin pragmalinguistikoetan erreparatu duten ikerketek, aldiz, exekuzio horretan parte hartzen duten elementu linguistikoak aztertu dituztela (Eisentein eta Bodman, 1993). Gainera, elkarreragin pragmalinguistikoa atzeko (Cenoz, 2003b; Safont, 2011) zein aldeko (Fouser, 2001) norabideetan aurkitu duten ikerketak azaldu ditugu.

Amaitzeko, elkarreragin soziolinguistikoa aztertzeko bi hurbilpen azaldu ditugu: (a) aldagai sozialak aintzat hartuz hizkuntzen erabileran aldaerak aztertzea, eta (b) hiztun komunitate berri batean sozializatzen hasten diren hiztunen hizkuntza erabileran erreparatuz bideratu diren ikerketak. Lehenengoari dagokionez, lehen hizkuntzaren patroia soziokulturalek bigarren hizkuntzan aldaerak eragiten dituztela ikusi dugu (Yu, 2004, adibidez). Bigarren hurbilpenetik, aldiz, elkarreragin soziolinguistikoa atzeko norabidean azaldu dugu eta 2. hizkuntzaren jakituria soziokulturala lehen hizkuntzara transferi daitekeela ikusi (Mori, 1997). Gainera, elkarreragin soziolinguistikoan generoa eta identitatea bezalako eragileek garrantzi berezia dutela ere azaldu dugu (Pavlenko, 2001, adibidez).

3.4. Hizkuntzen arteko elkarreraginaren faktoreak

Hirugarren hizkuntzaren jabeakuntzan egindako ikerketetan oinarrituz, hizkuntzen arteko elkarreraginean indarra duten faktore esanguratsuenak honela laburbildu dira:

‘Research has indicated that all of the following factors interact with cross-linguistic influence in the acquisition of languages beyond the second: language distance, source language proficiency, target language proficiency, order of acquisition of the languages, activation of source languages, formality of context, and constraints on verbal memory’ (Odlin eta Jarvis 2004, 124. orr.)

Ondorengo ataletan, gure landa lanean aztergai ditugun faktore hauen aurkezpena egingo dugu. Betiere, faktore hauen eraginaren azalpen eta hausnarketa zabaldu duten ikerketen errebisioa eginez. Honela, aldagai indibidualetatik hizkuntza aldagaietara joko dugu: hizkuntza-gaitasunetik, hizkuntza tipologia eta 2. hizkuntzaren estatusaren faktoreen inguruan hausnartuz.

3.4.1. Hizkuntza gaitasun-maila

Hizkuntzen arteko elkarreraginaren ikerketan, hizkuntza gaitasun-maila bi norabideetan aztertu da. Alde batetik, xede-hizkuntzarekiko gaitasun-maila. Bestetik, jatorri-hizkuntzekiko gaitasun-maila. Atal hau, beraz, bi norabide hauetan oinarrituz antolatu dugu.

Gaitasun-maila xede-hizkuntzan

Xede-hizkuntzan hiztunok duten gaitasun-maila eta honek hizkuntzen arteko elkarreraginean duen indarra aztertu duten lanek, barietate handia azaltzen

dute beren emaitzetan. Gure ustez, hau gertatzeko arrazoien artean, lau azpimarratu daitezke:

Lehena, gaitasun-maila neurtzeko ebaluazio tresna desberdinak erabili dituztela ikerketek. Izan ere, gaitasun-maila kurtso akademikoen (Navés eta beste, 2005), norbanako-ebaluazioen (Costa eta beste, 2006) edota gaitasun-maila neurtzeko azterketa desberdinen bitartez (Angelovska eta Hahn, 2012; Wrembel, 2010) neurtu dela ikus dezakegu. Eta, egite honek, jasotako emaitzetan eragina duela ustearazten digu.

Bigarrena, jasotako emaitzek neurtutako hizkuntza jabekuntza-eremuarekin zerikusia dutela. Izan ere, transferentzia morfologiko eta lexikoetan xede-hizkuntzan hitzunek duten gaitasun-mailaren eragina lerromakurra dela hauteman dute ikerketak aurkitzen ditugu. Fonologian eta hitz-ordenan, aldiz, joera egonkorrago bat antzeman duten lanak (ikus Jarvis eta Pavlenko, 2008).

Hirugarrena, jasotako emaitzek idazketaren estadio deberdinekin dutela harremana. Izan ere, xede-hizkuntzaren gaitasun-mailaren eragina nabarmenagoa dela formulazioan errebisio-jardueretan baino azaldu da (ikus Roca de Larios, Nicolás-Conesa, eta Coyle, 2016).

Laugarrena, emaitzen bariazioak neurtutako elkarreragin-motarekin zerikusia duela. Izan ere, xede-hizkuntzan gaitasun-maila desberdinen ondorioz azaldutako hizkuntzen arteko elkarreragina, positiboa edo negatiboa izan daitekeela argudiatu duten ikerleak aurkitzen ditugu. Ildo honetan, hasierako jabekuntza etapetan gertatu ohi den elkarreragin negatiboa, kopiatze estrategia bat izatearekin lotu duten ikerleak aurkitzen ditugu (Hammarberg eta Hammarberg, 2005; Odlin, 1989; Wrembel, 2010), eta elkarreragin negatibo hau xede-hizkuntzan gaitasun-maila hazten doala murrizten dela

iradokitzen dute. Bestalde, xede-hizkuntzaren jabeakuntza etapa aurreratuagoetan ematen den elkarreragin positiboa, ikasleek beren aurretiko hizkuntzen jabeakuntzaz baliatzen direnean ematen da (Flynn eta besteak, 2004) eta, transferentzia positibo hau, xede-hizkuntzan gaitasun-maila hazten doala ugaltu egiten dela azaldu duten lanak aurkitzen ditugu. Adibidez, Odlinek (1989) bi elkarreragin mota hauen arteko desberdintzea egin zuen, eta jabeakuntzaren etapa bakoitzean elkarreraginak ikasleen behar eta jakiturietara lotu zituen.

Nahiz eta emaitzen bariazioa handia izan ikerketa batetik bestera, eta emaitza hauek batzuetan kontraesanen direla dirudien, ikerketa gehienek mantentzen dute hizkuntzen arteko elkarreragina xede-hizkuntzan gaitasun-maila baxua denean dela nabariagoa. Zehazki, hiztunek xede-hizkuntzan dituzten gabeziak asetzeko errekurtsio gehiago behar dituztenean (Navés eta beste, 2005; Odlin, 1989; Ringbom, 1986; Sikogukira, 1993; Singleton, 1987; Williams eta Hammarberg, 1998). Navés eta beste (2005) ikerlariak, adibidez, kurtso altuetan zeuden ikasleek esanguratsuki mailegu eta asmakizun lexiko gutxiago egiten zituazela azaldu zuten. Ondorioz, autoreek xede-hizkuntzan gaitasun-maila altuago bat izateak hizkuntzen arteko elkarreraginak murrizten zituela probatutzat eman zuten.

Halaber eta esan bezala, emaitzak kontraesanen direla dirudi. Honela, hizkuntzen arteko elkarreragina nabariagoa izatea xede-hizkuntzan gaitasun-maila baxuagoa denean, ez du esan nahi xede-hizkuntzan gaitasun-maila altua denean gertatzen ez denik. Cenozek (2003a) adibidez, lehen eta bigarren hezkuntza ikasleen ekoizpena aztertu zuen, eta ikasle helduenek hizkuntzen arteko elkarreragin kopuru handiagoa azaltzen zutela erakutsi. Alegia, xede-hizkuntzarekiko gaitasun-maila altuago batek ez duela zertan hizkuntzen arteko elkarreragina murriztu behar. Elkarreragin sintaktikoak

aztertuz, Angelovska eta Hahnek (2012) xede-hizkuntzan hiru gaitasun-maila desberdin zituzten ikasleen ekoizpena aztertu zuten. Emaitez, 2. hizkuntzaren propietate linguistikoak 3. hizkuntzaren ekoizpenera transferitzen zirela erakutsi zuten, baita gaitasun-maila altuenetan ere.

Labur, hortaz, hizkuntzen arteko elkarreragina ikasleek xede-hizkuntzan gaitasun-maila altua zein baxua dutenean gertatzen dela esan dezakegu. Eta elkarreragin hauek, ikasleen behar eta jakiturietara lotuak daudela (Odlin, 1989).

Gaitasun-maila jatorri-hizkuntzetan

Hizkuntzen arteko elkarreraginaren ikerketa-esparruan, gutxiago izan dira jatorri-hizkuntzen gaitasun-maila aldagai zentralizat izan duten ikerketak (ikus De Angelis, 2007, 34. orr.). Egin direnak, bi ideia nagusi azaltzen dituzte.

Alde batetik, jatorri-hizkuntzen gaitasun-mailak hizkuntzen aktibazio mailan eta, hortaz, elkarreragin-kopuruan duela eragina. Bestetik, gaitasun-maila honek forma edo esanahiaren bitartez gauzatutako elkarreragina izatean eragiten duela. Ondorengo paragrafoetan bi ideia hauek jantzi dituzten ikerlanen errebisioa egingo dugu:

Lehengoan erreparatuz eta dakigunez, hizkuntzen arteko elkarreragina gertatzeko, hizkuntzak aktibo egon behar dute garun eleaniztunetan (ikus Green 1986; Green eta Wei 2014). Pertsona eleaniztunek lehen-hizkuntza gaitasun-maila altu bat izan ohi dutenaren ideian oinarrituta, hizkuntzen arteko elkarreraginean jatorri-hizkuntzen gaitasun-maila ikertu duten ikerlariak, bigarren hizkuntzaren gaitasun-mailan erreparatu dute maiz.

Van Hell eta Tannerrek (2012), adibidez, 2. hizkuntza gaitasun-mailak hizkuntzen arteko aktibazioan zuen indarra aztertzen zuten ikerketen

errebisioa egin zuten. Honetarako, informazio-iturri desberdinak zituzten ikerketetan oinarritu ziren. Hain zuzen ere, hitz-sustraikideak, ikusi-errekonozimendu bidezko ikerketak, hizkuntzen arteko erreakzio denborak, kode-aldaketak, hitz-itzulpenak eta prozesamendu morfosintaktikoa aztertzen zuten ikerketetak errebisatu zituzten. Ikerketa hauen emaitza partekatuen artean, xede-hizkuntza ez den edozein hizkuntzaren aktibazioak, hiztunak honetan duen gaitasun-mailarekin duela erlazioa azaldu zuten. Zehazki, gaitasun-maila altuago batek hizkuntza honetan aktibazio maila altuago bat eragiten duela eta honek, era berean, eragin nabariago bat azalderatzen duela xede-hizkuntzan (2012, 163. orr.).

Ondorio berdintsuak azalduz, Van Hell eta Tokowiczek (2010) aktibazio eleaniztuna prozesamendu morfosintaktikoan aztertzen zuten ikerketen errebisioa egin zuten, eta antzeko emaitzetara iritsi. Alegia, 2. hizkuntza gaitasun-mailak pertsona eleaniztunen hizkuntzen aktibazio mailan eragin-faktore nagusienetako bat zela (2010, 71. orr.)

Tremblayk (2006) bigarren hizkuntzaren (2H) eragina hirugarren hizkuntzan (3H) nabarmena izateko, 2. hizkuntzan gaitasun-maila minimo bat beharrezkoa zela azaldu zuen. Autore honek hirugarren hizkuntzaren hiztegiaren ekoizpena aztertu zituen. Emaitzen artean, 2.hizkuntzaren gaitasun-mailak aktibazioan eragiten zuela antzeman zuen eta, aurkikuntza honetan oinarrituz, hizkuntza gaitasun-maila minimo bat gabe eragin nabarmenik azaldu ezin zitekeela 3. hizkuntzan ondorioztatu zuen. Ikerlariaren hitzetan:

‘The influence L2 has on L3 when the learner has achieved a very low level of L2 proficiency appears to be very marginal (...) Unless learners have reached a threshold level of L2 proficiency, that language is very unlikely to influence the acquisition of an L3’ (2006, 117.orr.)

Hipotesi honen aldeko ikerketen artean, Van Hell eta Dijkstrak (2002) ditugu. Ikerlari hauek, ingeles (2H) eta frantses (3H) gaitasun-maila desberdinen eragina aztertu zuten. Emaitzek, hizkuntzen arteko elkarreragina antzeman ahal izateko, hizkuntzen aktibaziorako maila-minimo hori beharrezkoa zela azaldu zuten (2002, 787. orr.). Gaitasun-maila minimo hau zehazki zein izan beharko lukeen jakiteko asmoz, De Angelisek (2005) jatorri-hizkuntzan gehienez urte eta erdiko instrukzioa zuten ikasleak aztertu zituen. Ikerketa honen emaitzek, hizkuntzen arteko elkarreraginak azaldu zituzten artean, ikerle honek gaitasun-maila minimo hau baxua izan zitekeela defendatu zuten; urte eta erdikoa, hain zuzen ere.

Beraz, jatorri-hizkuntzaren gaitasun-mailaren inguruan eta berriz ere, emaitzak nahasiak direla esan dezakegu. Alde batetik, jatorri-hizkuntzen gaitasun-mailak garrantzi gutxi duela defendatzen duten ikerleak aurkitzen baititugu (De Angelis 1999, 2005; Rivers, 1987). Bestetik, gaitasun-maila minimo bat beharrezkoa dela defendatzen dutenak (Gut, 2010; Ringbom, 1987; Van Hell eta Dijkstra, 2002).

Gauzak honela, hizkuntzen arteko elkarreragina hiztunek ondo dakizkiten hizkuntzetatik (Ringbom, 1987; Singleton, 1987; Williams eta Hammerberg, 1998, adibidez) zein ondo ez dakizkiten hizkuntzetatik gertatzen dela erakusten duten ikerketak aurkitzen ditugu (De Angelis 1999, 2005; Rivers, 1979, adibidez).

Atal honen hasieran azaldu bezala, bada jatorri-hizkuntzen gaitasun-mailari dagokionez ikerketek azaldutako bigarren ideia aipagarri bat. Hain zuzen ere, jatorri-hizkuntzen gaitasun-mailak elkarreragina forma edo esanahiaren bitartez izatean eragiten duela dioten ikerketak. Ringbomek (1987), adibidez, jatorri-hizkuntzen gaitasun-maila elkarreragin-motarekin lotu zuen lehen ikerlaria izan zen. Egindako sailkapenean, formaren transferentzia azaleko

transferentzia zela argudiatu zuen. Esanahiaren transferentzia, aldiz, hizkuntzaren jakituria zabalago bat exijitzen zuen elkarreragina. Ondorioz, Ringbomek (1987) formaren transferentzia hiztunek gaitasun-maila baxu bat zuten hizkuntzetatik gerta zitekeela argudiatu zuen. Esanahiaren transferentzia, aldiz, gaitasun-maila altu bat zuten hizkuntzetatik gerta litekeela soilik.

Ildo berdinetik, Kroll eta Stewarten (1994) eredu hierarkikoak, hizkuntzen arteko erlazioetan antzeko logika bat adierazten zuen. Izan ere, ikerlari hauek aurreko ataletan azaldutako hizkuntzen arteko bi erlazio desberdin zituzten. Hain zuzen ere, hizkuntzen gaitasun-maila baxuago (edo ikaste prozesuko hasierako etapetara lotutako) formaren-bitarteko elkarreragina, eta hizkuntzen gaitasun-maila altuago bati (edo ikaste prozesuko etapa aurrerakoei) lotutako esanahiaren bitarteko elkarreragina. Ikerketa hauek, honela, formaren bitarteko elkarreragina iradokitzen zuten jatorri-hizkuntzen gaitasun-maila baxu bat azaltzen zutenean hiztunek. Jatorri-hizkuntzetan gaitasun-maila altu bat izateak, aldiz, elkarreragin hauek esanahiaren bitartekoak izatea ahalbideratuko lukeen artean.

Singleton (2003) eta Van Hell eta Tanner (2012) ikerlariak, jatorri-hizkuntzen gaitasun-mailak hizkuntzen arteko elkarreraginean zuen indarra azaltzen zuten ikerketetan oinarrituz, interes berezi bat sortarazten zien kezka azaldu zuten. Hain zuzen ere, bigarren hizkuntzaren (2H) gaitasun-maila desberdinak kontutan hartzen zituen lexiko eleaniztun eredurik ez egotea. Zentzu honetan, Kroll eta Stewarten (1994) eredu hierarkikoa litzateke hizkuntzen gaitasun-maila desberdinetan oinarrituz, hizkuntzen arteko elkarreraginen eredu teorikoa bat proposatzen zuen eredu teoriko bakarra.

Labur, hortaz, jatorri zein xede-hizkuntza gaitasun-mailak hizkuntzen arteko elkarreraginean duten indarrean erreparatuz, hainbat ideia ondorioztatu ditzakegu:

- Hizkuntzen arteko elkarreragina xede-hizkuntza maila desberdinetan gertatzen dela; zehazki, gaitasun-maila baxu (Navés eta beste, 2005; Nicoladis eta Gravilla, 2015; Sikogukira, 1993; Williams eta Hammarberg, 1998) zein altuagoetan gertatzen dela (Angelovska eta Hahn, 2012; Cenoz, 2003a).
- Hizkuntzen arteko elkarreragina jatorri-hizkuntza maila desberdinetan gertatzen dela; zehazki, gaitasun-maila baxu (De Angelis, 1999, 2005) zein altuagoetan gertatzen dela (Gut, 2010; Singleton, 1987; Williams eta Hammarberg, 1998).
- Hizkuntzen arteko elkarreragina jatorri-hizkuntzan gaitasun-maila minimo bat izateari lotua egon daitekeela (Tremblay, 2006) baina maila-minimo hori, era berean, baxua izan daitekeela (De Angelis 1999, 2005; Rivers, 1987)
- Ikasleek jatorri-hizkuntzan duten gaitasun-mailak hizkuntzen arteko elkarreragin-motetan duela eragina (Kroll eta Stewart, 1994; Ringbom, 1987).

3.4.2. Hizkuntzen arteko distantzia tipologikoa

Hizkuntzen arteko distantzia tipologikoari hainbat modutan deitu zaio. Modu hauek, ‘gertutasun tipologiko’ (Kellerman, 1983), ‘antzekotasun distantzia’ (Odlin, 1989), ‘jatorri-ahaidetasun distantzia’ (Jarvis, 2000) edo ‘hizkuntza distantzia’ (Ringbom, 1987) dira, eta eragin-faktore honen aldaera

desberdinak islatzen dituzte. Oro har, distantzia tipologikoaren eraginera hurbiltzeko bi modu desberdinu dira: modu objektibo eta subjektiboa.

Distantzia tipologiko objektiboak, hizkuntzalari batek objektibo eta formalki hizkuntza batetik edo hizkuntza familia batetik bestera dagoen distantziari egingo dio erreferentzia (De Angelis, 2007, 22. orr.). Honela, aztertutako hizkuntzen arteko gertutasun (antzekotasun) edo urruntasun (desberdintasunak) objektibo eta formalak izango dira. Distantzia tipologiko objektiboei erreferentzia eginez, De Angelisek (2007) distantzia tipologiko generikoa eta distantzia tipologiko formalak desberdinu zituen. Lehenak, hizkuntza familiei egingo lioke erreferentzia (hizkuntza erromantzeen arteko distantziari, adibidez). Bigarrenak, hizkuntza ezaugarriei. Hala nola, lexikoen estruktura gramatikalei edo ezaugarri fonetikoei (De Angelis 2007, 26. orr.).

Nahiz eta ikerketa gehienek distantzia tipologiko generikoa aztertu duten, badira distantzia tipologiko formalaren inguruan hausnartu dutenik ere (Ringbom, 2003, adibidez). Distantzia tipologiko formal honek, euskaraz dakien pertsona batek alemana ikasteko gazteleraz bakarrik dakien pertsona batek baino erraztasun gehiago izatea azalduko luke. Zergatik? Alemanak eta euskarak hizkuntza familiak partekatzen ez dituzten arren, bi hizkuntza eranskari edo aglutinatibo diren heinean, morfologikoki (formalki) antzekotasunak dituztela esan dezakegulako eta, alemanaren morfologiaren jabekuntzan, euskararen aurretiko jakituria morfologikoak efektu lagungarri bat izan dezakeela argudiatu daitekeelako.

Distantzia tipologiko objektibo eta generikoa aztertu duten lanen artean, hizkuntza ez indoeuroparrak lehen-hizkuntza bezala eta hizkuntza indoeuroparrak 2. hizkuntza bezala dituzten hiztunekin bideratutako ikerketak aurkitzen ditugu (Ringbon 1987, 2001, adibidez). Ikerketa hauetan,

tipologikoki gertuago dauden hizkuntzek xede-hizkuntzan eragin nabariagoa zutela antzeman zen. Betiere, tipologikoki urrunago zeuden lehen-hizkuntzekin alderatuz.

Distantzia tipologiko subjektiboa, ordea, hiztunen pertzepzioetan oinarritzen da (Kellerman, 1983). Eta, hizkuntzen arteko gertutasun (antzekotasun) edo urruntasunaren (desberdintasunen) pertzepzioak, ez du ezaugarri tipologiko objektiboetan oinarriturik egon behar. Hain zuzen ere, hiztunek existitzen direla uste duten antzekotasunei egingo die erreferentzia. Nahiz eta hauek, agian, existitzen ez diren. Distantzia tipologiko subjektiboaren eragina edo 'psikotipologiaren' eragina aztertu duten ikerketen artean, Kellerman (1977, 1978, 1983) lanak edo Singletonen (1987) lana daukagu.

Aldagai honetara hurbiltzeko moduak ikusi ditugula, ondorengo paragrafoetan hizkuntzen distantzia tipologikoaren azalpen eta hausnarketa zabaldu duten ikerketen errebisioa egingo dugu. Eragin-faktore honi dagokionez eta jarraian azalduko ditugun ikerketei jaramon eginez, lau ondorio nagusi azpimarratu daitezke:

- Hizkuntzen arteko elkarreragina gertatzea errazagoa da hizkuntzak tipologikoki gertuago daudenean (Cenoz, 2001, 2003; De Angelis, 2005; Ecke, 2001; Fouser, 2001).
- Xede-hizkuntzarekiko tipologikoki gertuen dauden hizkuntzek dute elkarreraginaren jatorri-hizkuntza izateko aukera gehiago (De Angelis, 2005; Fouser, 2001; Ó Laoire eta Singleton, 2009; Rothman, 2010, 2011, 2013).
- Bigarren (2H) eta hirugarren (3H) hizkuntzak, jatorri-hizkuntza dira sarritan hizkuntzen arteko elkarreraginean tipologia dela medio (De Angelis, 2005; Dewaele, 1998; Ecke, 2001)

- Hizkuntzen arteko gertutasun tipologikoak, 2. hizkuntzen jabekuntzan ondorio positiboak ditu eta zenbat eta korrespondentzia gehiago egon eta egin ikasleek orduan eta lagungarriagoa gertatzen da (Kresić eta Gulan, 2012; Negadi, 2015).

Jarraian, aurkikuntza hauek plazaratu dituzten ikerketak xehetasun gehiagoz aztertuko ditugu:

Eckek (2001) hizkuntzen arteko elkarreragina gertatzea errazagoa dela distantzia tipologikoa txikiagoa denean azaldu zuen. Ikerlari honek bideratutako ikerketan, lehen-hizkuntza gaztelania (1H) eta bigarren hizkuntza ingelesa (2H) zuten 24 lagunaren ekoizpena aztertu zuen. Partaide hauek, alemana (3H) 50 orduz ikasi zuten eta Eckek hauen akatsak aztertu zituen. Emaitzek, ingelesaren eragina (2H) gaztelaniaren (1H) eragina baino nabariagoa zela antzeman zuten. Hain zuzen ere, gertutasun tipologikoak errazten zuela hizkuntzen arteko elkarreragina eta eragin-faktore honek jatorri-hizkuntza zein izango zenean eragiten zuela.

Hizkuntzen arteko elkarreraginaren jatorri-hizkuntzei dagokionez, hizkuntzen tipologiak hizkuntzen arteko elkarreraginaren jatorri-hizkuntza lehen (1H), bigarren (2H) edo hirugarren (3H) hizkuntza izatean duela eragina azaldu da. Aurreko atalean azaldu bezala, De Angelisek (2005) tarteko-hizkuntzen eragina aztertu zuen (2H/3H). Horretarako, errepertorio linguistiko desberdinak zituzten partaideak aztertu zituen eta talde desberdinetan banatu. Talde hauen bitartez jasotako emaitzek, hizkuntza tipologiak elkarreraginaren jatorri-hizkuntzaren aukeraketan aldagai nagusia zela azaldu zuten. Hau, hizkuntza hirukote desberdinetan hala zela frogatuz.

Hizkuntzen tipologiak hizkuntzen arteko elkarreraginaren jatorri-hizkuntzan duela eragina azaldu duten beste lanen artean, Rothman (2010, 2011, 2013)

ikerlariaren lana aipatzekoa da. Izan ere, ikerlari honek hizkuntzen tipologiak hizkuntzen arteko elkarreragina definitzen zuen aldagai esanguratsuen zela defendatu zuen. Autorearen aburuz, hirugarren hizkuntzaren jabekuntzaren hasierako etapetan, ikasle eleaniztunek beren hizkuntzen antzekotasun tipologikoetan oinarritutako ebaluazio holistiko bat egiten zuten. Ebaluazio horretan, antzekotasun tipologikoak aztertu eta, horietan oinarrituz, 3. hizkuntza ikasleek beren lehen edo bigarren hizkuntza aukeratzeko zuten transferentzien oinarritzko jatorri-hizkuntza gisa. Rothmanek (2010) bideratutako ikerketaren emaitzek hipotesi (eta jabekuntza eredu) hau sostengatzen zuten. Izan ere, portugesearen (3H) ekoizpenean, gaztelania zela (1H/2H) hizkuntzen arteko elkarreraginen jatorri-hizkuntza erakutsi zuten emaitzek. Ez, ordea, ingelesa (1H/2H). Honela, jatorri-hizkuntzaren aukeraketan, hizkuntza tipologia zela faktorerik erabakigarriena frogatutzat eman zuen.

Azkenik, hizkuntzen arteko gertutasun tipologikoak hizkuntzen arteko korrespondentziak ahalbideratzen dituela eta jabekuntzarako onuragarria dela azaltzen duten lanak aurkitzen ditugu. Negadik (2015), adibidez, lehen-hizkuntza arabiera eta 2. hizkuntza frantsesa zuten 25 ikasleekin bideratu zuten beren ikerketa. Ikerketa honetan, 25 lagunek ingelesez testu bat idatzi ostean honen inguruko 20 minutuko ahozko hausnarketa egin zuten. Emaitzek, 2. hizkuntzak (frantsesak) zuten paper lagungarria azaldu zuten ingelesaren idatzizko ekoizpen eta jabekuntzan. Emaitza hauek frantsesa eta ingelesaren arteko gertutasun tipologikoari atxiki zion ikerlariak. Betiere, arabiera eta ingelesaren arteko distantzia tipologikoarekin alderatuz. Ikerlariaren hitzetan:

‘French helps learners to develop proficiency in English through the transfer of their French-based background, in particular the typological (syntactical and lexical) similarities between French and English’ (2015, 496. orr.)

3.5.3. Bigarren hizkuntzaren estatusa

Bigarren hizkuntzaren estatusaren faktoreak 2. hizkuntzarekiko preferentzia bat azaltzen du hizkuntzen arteko elkarreraginean. Ahozko ekoizpenari erreferentzia eginez, De Angelis eta Selinkerrek (2001) lehen-hizkuntza erabili ordez tarteko-hizkuntza bat erabiltzea ‘atzerritarragoa’ zenaren ideiapean, faktore honen erakusgarri zela argudiatu zuten. Egite honek, era berean, transferentzien jatorri-hizkuntzaren hautaketan eragiten zuela azaldu zuten. Autoreen hitzetan:

‘The possible association in the multilingual mind of the ‘foreign-ness’ of words, and the impact of such association in interlanguage production, may be a plausible explanation for some sorts of interlanguage transfer [...] Thus, we believe that there is a potential cognitive mode called ‘talk foreign’ or ‘foreign language mode’ (Selinker eta Baumgartner-Cohen, 1995; De Angelis eta Selinker, 1998) that eases the path of interlanguage transfer’ (De Angelis eta Selinker, 2001, 56. orr.)

De Angelis eta Selinkerrek (2001) bideratutako ikerketan, bi pertsona eleaniztunek hartu zuten parte. Lehenak, italiara zuen 4. hizkuntza. Bigarrenak, aldiz, italiarra 3. hizkuntza gisa zuen. Tarteko-hizkuntzen transferentziak, era berean, transferentzia lexiko eta morfologikoetan klasifikatu zituzten. Transferentzia lexikoek, italiarraren ekoizpenean tarteko-hizkuntza baten hitz oso baten transferentziari egiten zioten erreferentzia. Transferentzia morfologikoek, aldiz, tarteko-hizkuntzen morfema aske zein loturen erabilpen edo moldaketari. Emaitzek,

transferentzia lexiko nahiz morfologikoetan beren lehen-hizkuntza ez zenak pisu nabariena zuela azaldu zuten. Hots, tarteko-hizkuntzak erabiltzearen joera edo aurretik aipatutako ‘talk foreign’ edo ‘foreign language mode’ delakoa. Gainera, tarteko-hizkuntzen transferentziak formalak zirela azaldu zuten (ez semantikoak), eta morfema lotuen aukeraketak aktibazio mailarekin erlazioa zuela.

Ikasleek beren tarteko-hizkuntzen gaitasunaren pertzepzioak hizkuntzen arteko eragina baldintzatzen duela erakutsi duen beste ikerketa esanguratsu bat, Dewaelek (2001) bideratutakoa litzateke. Ikerketa honetan, lehen-hizkuntza nederlandera zuten 25 ikasle hirueledunek hartu zuten parte. Galdetegi sozio-biografiko baten bitartez, 19 ikaslek beren 2. hizkuntza frantsesa zela eta beren 3. hizkuntza ingelesa zela adierazi zuten. Beste 6 lagunek, aldiz, beren 2. hizkuntza ingelesa zela eta 3. hizkuntza frantsesa zela adierazi zuten artean. Emaitzek, tarteko-hizkuntzen gaitasunaren pertzepzioak hizkuntzen arteko eragina baldintzatzen zuela erakutsi zuten. Ikerlariaren hitzetan:

‘The base language is always French, but the degree of activation (or deactivation/inhibition) of the native Dutch or the English IL lemmas varies according to the speaker’s judgement of his/her capacity to translate his/her communicative intention in the base language’ (Dewaele, 2001, 84. orr.)

Bigarren hizkuntzaren estatusa edo ‘L2 status’ terminoa bera, aldiz, Williams eta Hammarberg (1998) zehaztu zuten lehendabizikoz. Ildo berdinetik, termino honek 3. hizkuntza ikasleek beren lehen-hizkuntza saihestsi eta 2. hizkuntza hobesteko joerari egiten zion erreferentzia (Hammarberg, 2001, 23. orr.).

Bigarren hizkuntzaren estatusaren ebidentziak, hirugarren hizkuntzaren maila desberdinetan antzeman dira: maila fonologikoan (Hall eta beste, 2009; Wrembel, 2010), lexikoan (De Angelis, 2005; Filatova, 2010) edo sintaktikoan (Bardel eta Falk, 2007; Falk eta Bardel, 2011), adibidez.

Halaber, eragin-faktore hau beste batzuekin erlazioa duela azaltzen duten hainbat ikerketa aurkitzen ditugu. Terminoa bera zehaztu zuten ikerlariak, Williams eta Hammarbergek (1998) alegia, 2. hizkuntzaren estatusa beste hiru eragin-faktoreekin erlazionatu zuten. Zehazki, distantzia tipologiko, gaitasun-maila eta erabileraren gertutasunarekin. Izan ere, ikerlari hauek hizkuntzen arteko elkarreraginaren jatorri-hizkuntza lau faktore hauen arteko balantzerik altuena zuen hizkuntza zela uste baitzuten. Ildo beretik, Wrembelek (2010), 2. hizkuntzaren estatusa eta gaitasun-maila erlazionatu zituen. Ikerlari honen hitzetan:

‘The findings confirm the results of some previous studies on the phenomenon of ‘L2 status’ and demonstrate a tendency for the L2 phonological transfer in L3 production at the initial stages of acquisition that decreases with growing third language proficiency’ (Wrembel, 2010, 75. orr.)

Gure testuinguruan, Cenoz (2001) ikerlariak 2. hizkuntzaren estatusaren faktoreak distantzia tipologikoaren faktorea baino eragin ahulago bat zuela frogatu zuen. Izan ere, hizkuntzen arteko elkarreraginaren jatorri-hizkuntza nabarmenena gaztelania zela azaldu zuen hirugarren hizkuntza ingelesean. Hots, xede-hizkuntzatik eta tipologikoki gertuen zegoek hizkuntza hain zuzen ere.

Labur, hortaz, 2. hizkuntzaren estatusak hizkuntzen arteko elkarreraginetan duen influentzien inguruan hiru emaitza garrantzitsu azpimarratu daiteke:

- Hizkuntzen arteko elkarreraginaren jatorri-hizkuntza 2. hizkuntza izatearen aukerak areagotzen dituela (Bardel eta Falk, 2007; Falk eta Bardel, 2011; Hammarberg, 2001; Williams eta Hammarberg, 1998).
- Hizkuntza-maila desberdinetan (sintaxian, lexikoan etab.) eragiten duen faktorea dela (Bardel eta Falk, 2007; De Angelis, 2005; Falk eta Bardel, 2011; Filatova, 2010; Hall eta beste, 2009).
- Xede-hizkuntzarekiko gaitasun-maila hazten doan heinean, faktore honen eragina murriztu daitekeela (Williams eta Hammarberg, 1998; Wrembel, 2010).

Laburpena

Hizkuntzen arteko elkarreragin-faktoreei dagokionez, hainbat dira atera ditzakegun ondorioak:

Aldagai-indibidualetan erreparatuz, hizkuntza-gaitasuna aldagai esanguratsuenetariko bat dela ikusi dugu. Gainera, hizkuntza-gaitasuna aztertu duten ikerketei jaramon eginez, aldagai honen indarra bi norabideetatik aztertu daitekeela dakigu. Zehazki, xede eta jatorri-hizkuntza gaitasun-mailak abiapuntu izanik. Gaitasun-maila xede hizkuntzan aztertu duten ikerketek emaitzetan bariazio handia azaltzearen arrazoiak hiru egiteekin harremandu ditugu. Hain zuzen ere, gaitasun-maila neurtzeko ebaluazio tresna desberdinen erabiltzearekin, aztertutako jabekuntza-eremuarekin, eta elkarreragin positibo edo negatiboa aztertzearekin. Hau honela, ikerketa gehienek hizkuntzen arteko elkarreragina nabariagoa dela defendatzen dutela xede-hizkuntzan gaitasun-maila baxuagoa denean dirudi (Navés eta beste, 2005, adibidez). Nahiz eta emaitza hauek kontraesanen dituzten ikerketak aurkitzen ditugun (Cenoz, 2003a, adibidez). Kontraesanen diren emaitza hauek azaldu lezakeen arrazoietakoa bat, elkarreragin-moten

arteko desberdintasuna izan liteke. Izan ere, ikerketa gehienek akatsak aztertzen dituzten artean, elkarreragin negatiboetara zuzentzen dutela beren interesa esan daiteke. Honela, logikoa dirudi elkarreragin negatiboa xede-hizkuntzan gaitasun-maila baxuagoa denean nabariagoa dela azaldu izana; bai eta, elkarreragin positiboa xede-hizkuntzan gaitasun maila altuagoa denean azaltzen dela argudiatzea (Odlin, 1989). Honela, ikerlari batzuek elkarreragin positiboa hizkuntza-errekurtsoen erabilera kontzienteago batera lotu dute (Flynn eta beste, 2004, adibidez); elkarreragin negatiboa, aldiz, kopiatze estrategia soiletara (Wrembel, 2010, adibidez). Gaitasun-maila jatorri-hizkuntzetan aztertu duten ikerketei jaramon eginez, bi ideia azpimarratu ditzakegu. Alde batetik, gaitasun-mailak hizkuntzen aktibazio mailan eta, hortaz, elkarreragin-kopuruan duela eragina (Van Hell eta Tanner, 2012). Bestetik, gaitasun-maila honek forma edo esanahiaren bitartez gauzatutako elkarreragina izatean eragiten duela (Kroll eta Stewart, 1994). Hala, hizkuntzen arteko elkarreragina antzemateko, gaitasun-maila minimo bat beharrezkoa dela defendatu duten lanak (Tremblay, 2006), eta gaitasun-maila minimo hori beharrezkoa ez dela defendatu dutenak aurkitzen ditugu (De Angelis, 2005). Elkarreragin-motei dagokionez, formaren-bitarteko elkarreragina gaitasun-maila baxu bat duten hizkuntzetatik, eta esanahiaren-bitarteko elkarreragina gaitasun maila altu bat duten hizkuntzetatik gertatzen dela argudiatu duten ikerleen lana aurkeztu dugu (Kroll eta Stewart 1994, adibidez).

Hizkuntza-aldagaiei dagokionez, hizkuntzen arteko distantzia tipologikoa eta 2. hizkuntzaren estatusaren aldagai esanguratsuenak direla erakutsi duten ikerketak azaldu ditugu. Hizkuntzen arteko distantzia tipologikoan erreparatuz, hurbilpen objektibo eta subjektiboak ezagutu ditugu. Honela, hizkuntzen arteko distantzia objektiboa, generikoa edo formala izan daitekeela dakigu. Hizkuntzen arteko distantzia subjektiboa, ordea, hiztunen

pertzepzio subjektiboak islatzen dituela. Distantzia objetiboaren eragina aztertu duten ikerketei jaramon eginez, xede-hizkuntzarekiko tipologikoki gertuen dagoen hizkuntzak duela elkarraginaren jatorri-hizkuntza izateko aukera gehiago ikusi dugu (Ó Laire eta Singleton, 2009, adibidez). Bai eta gertutasun tipologiko honek, tarteko-hizkuntzak jatorri-hizkuntza izateko aukerak areagotzen dituela (De Angelis, 2005; Ecke, 2001). Bai eta ikuspegi pedagogiko batetik, hizkuntzen arteko antzekotasun eta desberdintasunen irakaste esplizitu batek, hirugarren hizkuntzaren jabeakuntzan ondorio positiboak dituela (Ringbom, 2007, adibidez).

Bigarren hizkuntzaren estatusa, eleaniztunek hirugarren hizkuntzaren ekoizpenean bere lehen-hizkuntza sahietsi eta bigarren hizkuntza erabiltzeko joerari egiten diola erreferentzia dakigu. Aldagai honen eragina, hizkuntza-maila desberdinetan azaltzen dela azaldu duten ikerketak ikusi ditugu (Bardel eta Falk, 2007; De Angelis eta Selinker, 2001). Bai eta aldagai hau gaitasun-mailarekin harremana izan dezakeela azaldu dutenak; zehazki, xede-hizkuntzan gaitasun-maila hazten doan heinean, faktore honen eragina murriztu daitekeela erakutsi duten ikerketak (Williams eta Hammarberg, 1998; Wrembel, 2010).

Alderdi enpirikoa

4.KAPITULUA: ALDERDI ENPIRIKOA

4.1. Sarrera

Aurkeztutako kapitulu teorikoaren bitartez, gure ikerketaren marko egokia eraiki nahi izan dugu. Horregatik eta lehendabizi, eleaniztasunaren zenbait eredu teoriko aurkeztu nahi izan ditugu. Gero, hizkuntza idatzian zuzentasuna aztertzeko erabili diren neurri-motak deskribatuz. Azkenik, hizkuntzen arteko elkarreragina hizpide izan dugu eta honetan parte-hartzen duten eragin-faktoreak azaldu ditugu.

Atal honetan, gure landa lanaren xehetasunetan murgilduko gara. Horretarako, lan honen ondorioak jasoko dituen errealitatea begiratuko dugu lehendabizikoz (4.2 atala). Jarraian, ikerketa honetan planteatutako galderak zeintzuk izan diren aurkeztuko dugu (4.3.1 atala). Ondoren, lagina eta datuak biltzeko erabilitako neurri-tresnak deskribatuko ditugu (4.3.2 eta 4.3.3 atalak). Amaitzeko, datu horiek aztertzeko prozeduren berri emango dugu, betiere bi ikerketa galderak eta hauen azpi-galderak erantzuteko erabilitako pausuak zehaztuz (4.3.4 atala).

Esan bezala, errore ez kontrastibo eta kontrastiboek oso bestelako informazioa helarazte digute. Bakoitzak bere modura, aldiz, hizkuntza jabekuntzaren inguruko zehaztapenak eskaintzen dituzte. Gure ustez, hizkuntzen irakaskuntzan erroreen arteko desberdintze hau egitea ezinbestekoa da. Horregatik, arean ere, bi errore-mota hauen inguruko xehetasunak azalduko ditugu tesi lan honetan.

Dakigunez, Focus on Multilingualism (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014) eredu holistikoa erabiliz jaso ditugu datuak. Beraz, hurbilpen holistiko baten egokitasuna berez adierazten dute. Lehenengo ikerketa galdera erantzun aldera, bigarren hezkuntzako laugarren mailako 133 ikasleek idatzizko

testuak aztertu ditugu hiru hizkuntzetan. Totalean, 399 idazlan. Bigarren ikerketa galdera erantzun aldera, metodologia konbinatu bat erabili dugu 133 ikasle berdinek ingelesez idatzitako testuak azatertuz. Metodologia honek analisi kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu ditu. Datuen azterketa desberdindu honek ondorio osatuago bat izatera eraman gaituztela uste dugu. Ekin diezaiozun, bada, ikerketaren testuinguruaren aurkezpenari.

4.2. Ikerketaren testuingurua

Tesi lan honetan, bi testuinguru desberdinetatik jaso ditugu datuak. Honela, ahalik eta lagin heterogeneoena eraikitzea espero genuen. Datuak bildu genituen ikastetxeak Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroako Foru Aldundian daudenez, bi eskualde hauen egoera soziolinguistikoa eta hezkuntza sistemaren inguruko azalpen bat ematea nahitaezkoa ikusi dugu. Azalpen honetan, hainbat momentu historiko kontsideratu behar ditugu, bai eta eskualde hauetan bideratutako hizkuntza eta hezkuntza politikak errebisatu ere.

EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko egoera soziolinguistikoa


Dakigunez, Nafarroako Foru Erkidegoak 642.000 biztanle ditu; Euskal Autonomi Erkidegoak (EAE), aldiz, hiru herrialde (Araba, Bizkia eta Gipuzkoa) eta 2.1 miloi biztanle ditu. Bi eskualde hauen garapen soziolinguistikoa ulertzeko, euskararen garapenean funtsezko izan diren hainbat gertaera azpimarratu nahi izan ditugu.

Euskal Autonomi Erkidegoko Estatutuak (1978) Euskal Autonomi Erkidegoan euskara eta gaztelera bi hizkuntza ofizialak bezala aldarrikatu zituen. Legedi honek, gutxiagotutako hizkuntzari errekonozimendu legala eskaintzen zion. Haatik, erkidego bakoitzaren hizkuntza-politika

desberdinek, eskualdeko garapen soziolinguistiko eta hiztunen eboluzio berezitu bat eragin dute.

1991. urtetik aurrera, Eusko Jaularitzak ikerketa soziolinguistiko bat argitaratzen du bost urtero eta garapen soziolinguistiko honen berri ematen digu. Azkeneko ikerketa 2016. urtean izan den arren, oraindik ere datu probisionalak bakarrik argitaratu dira. Horregatik, Euskal Herriko hizkuntza-gaitasunen arteko desberdintasunen ondorengo irudikapena 2011. urtean egindako ikerketan oinarritu dugu.

Irudia 4.1: Hizkuntza-gaitasuna eskualdeko (Eusko Jaularitza, 2011)



Ikus dezakegunez, Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE), biztanleriaren %32a da elebiduna da, %17ak ulertu dezake euskara eta %50,6ak ez daki euskaraz hitz egiten. Hala ere, datu hauek ez dute 16 urtetik beherako adin-tartea irudikatzen. Hezkuntza sistemak hizkuntza-sustapenean jokaturako paper positiboari esker, adin-tarte honetan elebidunen presentzia nabariagoa dela dakigu.


Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoan, biztanleriaren %11,7a da elebiduna eta %7,5ak soilik ulertzen ditu bi hizkuntzak. Honela, biztanleriaren gehiengoak ez daki euskaraz (%80,7a).

Amaitzeko, Iparralden, biztanleriaren %21.4a da euskal-frantsez elebiduna eta %9,1ak bakarrik ulertzen du euskara. Honela, biztanleriaren %69,4a frantses elebakarra da.

Argi ikus dezakegunez, Iparralde zein Nafarroako Foru Erkidegoan, euskal hiztunen kopurua askoz ere txikiagoa da. Bi eskualde hauetan euskararen sustapenerako hizkuntza-politikak ahulagoak izan diren artean, politika hauen gabeziak arintzen saiatu diren inizatiba pribatuak eraman dira aurrera (bereziki, Iparralden). Honela, datu hauek Euskal Herriko hiru eskualdeetan bideratutako hizkuntza-politika desberdinen eragina islatzen dute. Nahiz eta, IV. Inkesta Soziolinguistikoan argitaratutako datuei jaramon eginez, Nafarroako Autonomi Erkidegoan euskararen erabilerak gora egin duen 1991 eta 2016 urteren bitartean (ikus Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016). Honela diogu legediaren desberdintasun hauek berebiziko garrantzia dutela euskararen sustapenerako: bai bideratutako errekurtsioei dagokionez, bai eta hizkuntza mantentze eta sustapenari dagokionez (Cenoz, 2008).

Nafarroako Foru Erkidegoan, gainera, Euskararen Foru Legeak (1986) hiru hizkuntza eremutan banatu zuen erkidegoa. Honela, hizkuntza-eremu bakoitzak, hizkuntza-eskubide desberdinak opa zizkion zonalde bateko zein besteko biztanleei. Eusko Jaurlaritzak (2011) argitaratutako datuen arabera, Nafarroako Foru Erkidegoaren hizkuntza-gaitasunen hiru zonaldeetako irudikapena ondorengoa da:


Irudia 4.2: Nafarroako Foru Erkidegoko hizkuntza-gaitasuna hizkuntza-eremuko (Eusko Jaurlaritza, 2011).



Irudian azaldu bezala, Nafarroako Foru Erkidegoko hiru eremuetan desberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu. Honela, eremu euskaldunean %59.3a da elebiduna, eremu mistoan %9.8a eta eremu erdaldunean %2.3a. Euskararen erabilerari dagokionez, Nafarroako Foru Erkidegoan hainbat oztopo aurkitzen direla azaldu da. Bereziki, Nafarroako Foru Erkidegoko eremu erdaldun eta mistoan (Oroz eta Sotés 2008, 23-24. orr.).

Ildo honetan, egoera soziolinguistikoko oso desberdinak aurkitzen ditugun eskualdez eskualde. Ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, Euskal Herriko hiru eskualdeetan hiztun elebidunen portzentajeak oso desberdin garatzen dira hizkuntza-politikak medio direla.

Irudia 4.3: Hiztun elebidunen eboluzioa eskualdez eskualde (Eusko Jaurlaritzak, 2011).



Eusko Jaurlaritzak bideratutako lehenengo ikerketatik aurrera (1991. urtetik aurrera) Euskal Autonomi Erkidegoan 8 puntu igo da elebidunen portzentajek, Nafarroako Foru Erkidegoan 2.2 puntu eta Iparralden, aldiz, 5 puntu behera egin du.

2013. urtean Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegorako Euskararen Agenda Estrategikoa gainditu zuen. Abiapuntutzat, euskara eta gaztelaren arteko desberdintasun soziala azaltzen zen, bai eta ofizialtasunaren eta errealitatearen arteko banatzea. Helburu nagusia, hortaz, hizkuntza bien arteko berdintasuna eta euskararen sustapena gizartearen eremu desberdinetan bilatzearena zen (ikus ESEP, 2013).

Nahiz eta aurrera pauso garrantzitsuak eman diren euskararen normalizaziorako bidean, euskararen jakituria eta erabileraren arteko aldea

